

Año L urtea

N.º 92. zk.

2018



CUADERNOS de Etnología y Etnografía de Navarra

SEPARATA

Nafarroako herrietako bizimoduak eta hizkerak XX. mende bukaeran kontaturik

Orreaga IBARRA MURILLO

Nafarroako herrietako bizimoduak eta hizkerak XX. mende bukaeran kontaturik

Las costumbres y los dialectos de los pueblos navarros, contados a finales del siglo XX

The Ways of Life and the Dialects of Navarrese Villages Narrated at the End of the 20th Century

Orreaga IBARRA MURILLO

Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Hizkuntzalaritza eta Filologia Saila
orreaga@unavarra.es

Jasotze data: 2018/03/26. Behin-behineko onartze data: 2018/06/28. Behin betiko onartze data: 2018/07/26.

LABURPENA

Etnotestuok dialektoen eta bizimoduen adierazgarri dira. Lan honetan XX. mendearen bukaerako etnotestuak bildu dira Nafarroako hizkeren eta ohituren aldakortasun horren berri emateko helburuz. Testuen analisiak ezaugarri linguistikoak agerian uzten ditu eta aldi berean, eguneroko bizitzaren testigantzak dira. Testu bakoitzak, azterketa fonologiko, morfologiko, sintaktiko, lexiko eta etnografikoa du ondoan. Hori guztia ikuspegi alderatzailearekin egina, lekuan lekuko ezaugarri dialektal eta etnografikoak agerian jartzeko asmoz.

Gako hitzak: Euskal hizkerak; etnotestua; euskara; Nafarroa.

RESUMEN

Los etnotextos son reflejo de los modos de vida y de la diversidad dialectal. En este artículo transcribimos varios etnotextos de finales del siglo XX que recogen la diversidad de hablas y costumbres en Navarra. El análisis de los mismos muestra estos rasgos lingüísticos y constituye un testimonio de aspectos de la vida diaria rural. Cada uno de ellos se acompaña de un análisis fonológico, morfológico, sintáctico, léxico y etnográfico. Todo ello desde una perspectiva contrastativa, con el fin de que afloren los rasgos dialectales y etnográficos propios.

Palabras clave: dialectos vascos; etnotexto; euskera; Navarra.

ABSTRACT

The etnotexts are a reflection of the ways of life and of the dialectal diversity. In this article we transcribe several etnotexts recorded at the end of the 20th century which reflect the diversity of speech and customs in Navarre. The analysis of them shows these linguistic features and constitutes a testimony of aspects of daily life. Each text is accompanied by a phonological, morphological, syntactical and ethnographic analysis done from the perspective contrastive, in order to bring out the dialectal and ethnographic features of each speech.

Keywords: Basque dialects; etnotext; Basque; Navarre.

1. GARTZARON. 1.1. Fonologia. 1.2. Izen morfologia. 1.3. Aditz morfologia. 1.4. Sintaxia. 1.5. Lexikoa. 1.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak.
2. ITUREN. 2.1. Fonologia. 2.2. Izen morfologia. 2.3. Aditz morfologia. 2.4. Sintaxia. 2.5. Lexikoa. 2.6. Ondorio etnografikoak eta linguistikoak.
3. LEITZA. 3.1. Fonologia. 3.2. Izen morfologia. 3.3. Aditz morfologia. 3.4. Sintaxia. 3.5. Lexikoa. 3.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak.
4. LESAKA. 4.1. Fonologia. 4.2. Izen morfologia. 4.3. Aditz morfologia. 4.4. Sintaxia. 4.5. Lexikoa. 4.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak.
5. LINTZOAIN. 5.1. Fonologia. 5.2. Izen morfologia. 5.3. Aditz morfologia. 5.4. Sintaxia. 5.5. Lexikoa. 5.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak.
6. LIZARRAGA-ERGOIENA. 6.1. Fonologia. 6.2. Izen morfologia. 6.3. Aditz morfologia. 6.4. Sintaxia. 6.5. Lexikoa. 6.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak.
7. LESAKA, OIARTZUN. 7.1. Fonologia. 7.2. Izen morfologia. 7.3. Aditz morfologia. 7.4. Sintaxia. 7.5. Lexikoa. 7.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak.
8. OSKOTZ. 8.1. Fonologia. 8.2. Izen morfologia. 8.3. Aditz morfologia. 8.4. Sintaxia. 8.5. Lexikoa. 8.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak.
9. URDAZUBI. 9.1. Fonologia. 9.2. Izen morfologia. 9.3. Aditz morfologia. 9.4. Sintaxia. 9.5. Lexikoa. 9.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak.
10. URDIAIN. 10.1. Fonologia. 10.2. Izen morfologia. 10.3. Aditz morfologia. 10.4. Sintaxia. 10.5. Lexikoa. 10.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak.
11. ONDORIOAK.
12. ERREFERENTZIAK.

Nafarroako hizkerak nabarrak dira; nahiz eta gaur nafarrera deituriko izenean biltzen diren (*cf.* Zuazo, 1998), jakin badakigu kolore eta ezaugarri desberdinak dituztela. Bizimoduak ere oso desberdinak dira. Hori erakusteko gauza diren hamar etnotestu aurkeztuko dira lan honetan. Entotestu hauek baliagarriak dira galdutako lexikoa, ohiturak eta bizimoduak berreskuratzeko, testuok 2000-2002 urte bitartean egindako elkarrizketetatik sortu dira. XX. mendearen bukaeran egin ziren, giro lasai eta konfiantzazkoan eta hiztunen baimenekin. Hori dela eta, tokian tokiko mende hasierako eta erdiko bizitzaren eredu dira; egungotik erabat aldentzen den bizimodua. Etnotestu hauek erkidego landatar baten diskurso kulturalaren erakusgarri dira, herrian bizi izan den erkidegoa, herriko bizitza eramane duena, eskola, baserria eta elizaren inguruan. Etnotestuak, definizioz, ahozko literaturaren elementuak, eta literarioak ez diren beste batzuk aztertzen ditu, alegia, eguneroko bizitzaren kontakizunak eta deskribapenak ditu aztergai. Guk etnotestu luze hauen zati batzuk aukeratu eta izenburua jarri diegu, gaia zein den erakutsiz. Gaiak hauexek izan dira: garai bateko bizimoduak, euskararen egoera, gerraren ondorioak, jolasak eta mendiko eta etxeko hainbat lan. Ondoren, etnotestu hauen azterketa sinkronikoa proposatzen dugu eta beren ezaugarri fonologiko, morfologiko eta sintaktikoak aztertzen ditugu artikulu honetan.

Honenbertzez, bi dira artikulu honek uztartzen dituen alderdiak. Alde batetik, etnotestuok dialektoen adierazgarri dira, eta XX. mende bukaerako bertako ezaugarri lektalak erakusten dituzte, hiztun alfabetatu gabeen ahotsetan eta estandarizazioak oraindik ukitu ez dituen garaian. Bertzaldetik, garai bateko bizimoduaren ereduak dira hauek, ahozko hizkuntza eta prestatu gabeko elkarrizketaren lekukoak. Honatx, bada, lortu nahi izan ditugun helburuak: batetik, bildutako testuak aztertzea eta alderaketa egitea beraien artean eta ondoko hizkerekin; horrela, modu laburrean bada ere, ikuspegi

kontrastiboa bilatu da. Bertzaldetik, orain arte egindako ikerketetan errandakoa testu hauek noraino betetzen duten aztertu nahi izan dugu, aukeratutako ezaugarriek bizirik dirauten ala ez egiaztatuz eta azken urteotan egindako azpieuskalkien sailkapenekin bat datozen ala ez neurtuz.

Hauexek dira hautatutako herriak: Gartzaron (Basaburua Nagusia), Ituren (Malerreka), Leitza, Lesaka (Bortziri), Lintzoain (Erroibar), Lizarraga (Sakana), Lesaka-Oiartzun, Oskotz (Imotz), Urdazubi-Erratzu (Baztan) eta Urdiain (Burunda). Bistan denez, Nafarroako euskararen azpieuskalkiak eta tarteko hizkerak ordezkaturata daude; Aezkoakoa falta da, espazioaren mugak hala agintzen baitu.

Kontuan izan behar dugu Nafarroako herri hauen gaineko hizkerari buruz hainbat doktoretza tesi, ikerlan eta artikulua idatzi direla. Hauexek dira lan aipagarrienak: Basaburuan, Imotzen eta ipar-mendebalean Apalauzak (2008a, 2008b, 2012) eta Ibarak (1995) egin dituzte ikerketa zabalak (1995); Baztanen ere baditugu lan sakonak: Salaburu & Lakar (2006) eta Salaburu (1986). Sakanako hizkerari buruz Zuazok (2010) eta Erdoziak (2004) ikertu dute berriki. Bortzirietan Iñigok (2007) egin ditu lan batzuk, eta baita Zelaietak (2008) ere. Erroibarren Ibarren (2000, 2006) eta Artolaren (1992, 2016) lan ezagunak ditugu. Lan orokorrak ere badira: hego nafarrera Caminok (2003) ikertu zuen eta Leitza hizkera Olanok (1998) deskribatu zuen. Urdazubiko euskararen gainean badugu bertze monografia bat (Montoya, 2004). Bukatzeko, Malerrekan ere badira ikerketa sakonak (Zelaieta, 2008) eta solasen bilketak (Apalauza & Lakar, 2005). Laburbilduz, gehiago edo gutiago herri hauetako hizkeren ezaugarrien deskribapena badugu.

Jakina denez, dialekto guztien egoera sozio-historikoa aldatu da, gizartea ere erabat aldatu delako. Hori dela eta, XX. mendearen bigarren aldirian hizkuntza desberdintasun geografikoak txikitu dira, eta horren ondorioz dialektoek berdintzera jo dute. Berdinkaritze horri *dialect levelling* deitu izan zaio, ezaugarri estandarrek herrialde guztian hedatzea, alegia. Fenomeno hau Europako hizkuntza anitzetan gertatu zen, Auerrek (1998) XX. mende bukaeran eginiko ikerlanean adierazi zuenez, bertzeak bertze Danimarkan, Alemanian eta Frantzian, eta baita katalanez ere (*cfr.* Arnal, 2011, 22. orr.).

Honenbertzez, artikulua honen interes zientifikoa, hein batean, honetan datza: ahozko hizkera hauen ezaugarriak eta eremu txikian dagoen aldakortasun lektala agerraraztean eta etnotestuen ikuspegi etnografikoa islatzean. Izan ere, urtetik urtera galtzen ari dira ohiko mintzamoldearen ezaugarriak, alde batetik estandarizazioaren ondorioz: eskolan, hedabideetan eta liburuetan hedatzen ari den euskara batuak iluntzen ditu ezaugarri hauek.

Bertzaldetik, gizartea erabat aldatu delako eta lehen abereekin, nekazaritzan eta mendialdean bizi zen gizarte hori, orain desberdina delako. Honatx bildutako pasarteak: Iturenen gaurko gazteen euskara eta herrikoaren arteko aldea agertzen da eta Iturenen eta Zubietan nola ospatzen ziren eguberriak, erregeak eta inauteriak. Leitza, lixiba nola egiten zen eta horreratako erabiltzen zituzten tresnak; eta baita matatxerriaren zehaztasunak ere. Lesakan, gerra zibila herriaren ondoan, Oiartzungo frentean; hango errepidea nola egin zuten, zaurituak eta miseria. Jarraian, gerra ondorengo errotak istea eta gosetea, baita kontrabandoa ere Bidasoa inguruetan. Lintzoainen kuxetaginean,

ikaztakogien, eta, azkenik, eultzien berri dugu, larrainetan egiten zirenak. Lizarragakoak kontatzen du nola izan zen gerra denbora Donostian eta auzokideen arteko laguntza eta baita gorrotoa ere. Oskozkoak kontatzen du nola zen baserriko bizitza, gaztainak bilduz eta merkatuan salduz, etxeko arropa josten etab. Urdazubikoak iratzeak biltzearen berri ematen du eta errekan nola garbitzen zuten eta, azkenik, Urdiainen ikusten dugu momoxorren festa eta baita umeen jolas mota batzuk ere.

Erran bezala, egungo gizarte modernoan mintzo estandarragoa eta homogeneousagoa erabiltzen da, bereziki euskara batua sortu zenetik. Joera honen testigantzak baditugu Euskal Herriko edozein hizkeratan; erraterako, erabat testigatua dago Donostian (Camino, 2000) horren ondorioz Donostiako euskara koloregabetzen ari da. Poliki-poliki ezaugarri berezko horiek galduz doaz; Caminok (2009, 198. orr.) berak bertze lan batean argi azaltzen duenez, folk mintzoa biltzea zaila suertatzen dela: «zenbait alderditan gero eta zailagoa da orain arteko folk mintzoa ongi ematen duen jendea aurkitzea: honela da egun Amikuzen, Lapurdiko itsasaldean, Aezkoan eta Gipuzkoako hiriburuan.

Bertze ikertzaile batzuek ere iltze berean jotzen dute: Makazagak (2009, 476-7. orr.), euskara batuaren eragina azpimarratzen du bere Elgoibarko ikerketan. Aurrekoetxearen arabera (2006), Arratian (Bizkaia) euskara estandarren eragina oso nabarmena da. Ormaetxeak (2008, 253. orr.), ordea, Bizkaian, Otxandion batasunaren eragina ez dela hain handia azpimarratzen du. Bertzaldetik, Zelaietak (2009, 123. orr.) erdialdeko hizkeren eragina sumatu du Nafarroako Baztan-Bidasoa inguruan. Bere erranetan, Goizuetan jende heldua goi-nafarrera deituriko hizkeran mintzo bada ere: gazteek gipuzkeraren eragin handiagoa erakusten dute. Lujanbiok ere (2012) antzeko ikerketa egiten du gizarte-eragile batzuk kontuan hartuta, horietako zenbait elkarrekin erlazionatuak daudela ikusirik: adina, ikasketa-maila eta erdialdeko euskaldunekiko harreman-maila. Gizarte-eragile garrantzitsuetako bat da adina eta, ikertzaile honen ustez, tarteko belaunaldiko hitzun asko espero baino berritzaileago agertu dira. Haddicanek (2005) Oiartzunen argi ikusten du berezko ezaugarri lektalak euskara batuak ordezkatu dituela, nahiz eta bertze batzuk gordetzen diren. Salaburu & Lakar-ek (2005, 9) esaldi honekin laburbiltzen dute urte hauetan gertatu den aldaketa Baztanen: «pasatu gara “fite torko da” erratetik “laster etorriko da” erratera».

Herrien grabaketak, 2000-2002 urte tartean eginak- irizpide geografiko eta linguistikoaren arabera aukeratu dira. Horrela, saiatu gara nafarreraren eremu guztietako hizkerak biltzen Zuazok (2014, 112. orr.) proposaturiko azpieuskalkien eta hizkeren sailkapenaren arabera. Ondorioz, nafarreraren lau eremutako hizkerak biltzen dira Zuazoren (2014) arabera, eta baita tarteko hizkerak ere. Testuan «nafarrera» erabiliko dugu Bonaparteren bi goi-nafarrerak eta Zuazoren euskara nafarra izendatzeko:

- Ipar-sartaldekoa: Lesaka, Ituren.
- Hego-sartaldekoa: Lizarraga.
- Erdigunekoa: Erratzu.
- Sortaldekoa: Lintzoain.
- Nafar-lapurtera: Urdazubi.
- Tarteko hizkerak: Leitza, Oskotz, Gartzaron, Urdiain.

Irizpide sozialak ere hartu dira kontuan: adinean 50 urtetik gorako hiztunak aukeratu dira eta, bertzaldetik, ikasketa-maila ez altukoak: euskaraz alfabetatu gabeak dira elkarrizketatuak, alegia, euskaldun zaharrak. Grabaketa bakoitzean nabarmendutako ezaugarri linguistikoak ugari dira eta hizkuntzaren atal guztietakoak: fonologian, morfologian, sintaxian, lexikoa eta etnografikoa. Ezaugarri hauek bereizgarriak diren heinean hautatu ditugu, alegia, ia esklusiboak direlako, bateratzaileak direlako edo sistematikoki betetzen direlako. Hori guztia kontuan hartuz, mintzoaren azterketa kontrastiboa eginen dugu. Honetarako, Zuazok (2014, 108. orr.) euskara nafarra izateko proposatzen dituen 11 ezaugarriak noraino betetzen diren testu hauetan aztertuko dugu. Hauxek dira: 1) azentu indartsua, azkenaurreko silaban; 2) aferesia eta sinkopa; 3) erdal *-on* eta *-ion* amaierak gordetzea; 4) instrumentalean *-s* ahoskatzea; 5) *joan*-en adizkietan *noaie* gisakoak; 6) *-ren bat* > *-on bat* egitea; 7) *yaiz* ‘haiz’ eta *yabil* ‘habil’ moduko adizkiak; 8) nork-nori-nor adizkietan *-it-* morfema; 9) nor-nori adizkietan *-ki-* erroa; 10) geroaldian *-tuko* > *-tiko*; 11) *oa-* aurrean *g-* agertzea. Gisa berean, trantsizioko hizkeratzat jotzen dituen ere zenbat ezaugarri betetzen diren aztertuko dugu. Xedea da, testuaren mugak izanda, izaera nafar hori noraino betetzen den ikustea.

Irakurketa errazteko asmoz transkribaketa «erdi ortografikoa» izango da. Hala ere, homogeneousun eta argitasunari begira honako erabakiak hartu ditugu: <h> grafema ez da erabiliko, hasperenik ez badago. Era berean, azentu diakritikorik ez jartzea erabaki dugu. <y> grafema agertuko da bokal epentetikoa dagoenean: *eriyak*, *irriyek* eta ohiko *-ie*, *-io*, *-ia* gisako taldeetan: *geyenetan*, *zitzeyo*. Hitz hasierako hots igurzkaria ere <y> grafemaz adieraziko dugu: *yoan*, *yarri*. <j> grafemak, berriz, belare frikari ahoskabea adierazten du: *garaje*. *-in* taldeetan <ñ> jarriko da, soinu sabaikaria argi dagoenean: *giñun*, *ziñen*. Gauza bera gertatzen da <tt>-rekin (*itten*, *otture*) eta <ll>-rekin: *pernillek*. Azkenik, letra etzana jarri dugu gaztelania tartekatzen denean adib. *de usté*. eta inkestatzailearen izenean. Parentesi karratuak [] ere erabili ditugu inoiz, hitzen edo esaldi motzen bat testuen barruan tartekatu ditugunean, hauetan jasotzen dena argitzeko asmoz. Zalantza dugunean, berriz, edo zerbait ongi entzuten ez denean, parentesia jarri dugu.

Bertze arazo bat hitzen loturak dira, kate mintzatuan gertatzen diren hitzen arteko loturak. Argitasunaren mesedetan, entzun bezala transkribatu ditugu; alegia, batzuetan askatu ezinezko loturak direnean, horrela transkribatu ditugu: *lekuetian*, *puxketez*, *eztuena*, *eztire*, *oñiauzu*, *beau* gure belarriak kolpe batez erranak entzun baditu. Bertze batzuetan, bereiz agertuko dira: *txuri bet*, *itten nintzen*... Bertzaldetik, hitz barnean, hasieran edo erdian soinu bat desagertzen denean, ez dugu markatu: *eramtten*, *kar ziaten*. Ondoren, azterketa atalean argitzen da erranahia, etimologia eta gainerakoak. Nolanahi dela ere, transkribatzea aukeratzea da, eta horixe izan da gure hautua.

1. GARTZARON

Gure elkarrizketatua 63 urteko gizona da, artzaina. Gartzaronen bizi da eta noiz-behinka Burgosera joaten da artaldearekin. Elkarrizketa honetan ardiak nola markatzen duten azaltzen du, marka bat belarrian lehenago eta orain ere bai, baina desberdina.

Ardien markak

—*Ta zuk ardiri ze itten diozu, markaonbat o ola o nola?*

—Marka? Ez, oain ez bate, lenao bai biño orain ez, oain Itejeko txapa mateote, kontrolekoa.

—*A, ta orden badakizu zein deen zuriak...*

—Bai, eamateute belarrietan, zea, kontroleko txapa, ta numero ore bera beste belarrin tatua tatuajea.

—*Numeroana?*

—Bai, ta ala ardik eztattike galdu. Norbattek ostutzen badu, belarri mozteariko dio, ta oi ya señale txarra da, artzaie audo goartzen da, ze in dioten.

—*Ta numeroa ta ola emateizute Itejetik o zuk patzeuzu?*

—*Itejekoak patzen diote*

—A, bai?

—Bai

—*Tatuatu ta dena beak? Yayotzen delaik, ta ola o...*

—Yaotzen delaik, bai ya aurrea aurreako uztear ttulik, aurreako uztekoai, ta kendear ttuneai ebai. Kendear ttutenak, ke... bademate goian obligetzeute txapa ta matea.

—*Zer, kendu bear ttuzulaik re bai?*

—Axurik bai, oain yayotzen delik axurik zea insemiatioakoak, itten dut yayoz bezala apuntetu zein ardina den, ze pintan yayo den, ta arikoa den, urrixe den, ta arrei patzen diot.

—*Oi zer da, urrixe?*

—Axa, emea. Ta txapat patzen dio aikei, numero ta, ta gio... esplotazioko... zea numeroa, *numero de explotación*.

—*Ta geo zuk bazka ta ola ze mateiozu, pentsue?*

—Pentsu bai ta oain pentsuet oso ona atraute mezklat itteotena, Unzuek itten do, ta artaik maten diotet, oso ona da.

Elkarrizketatzailea: Amaia Legarra Beunza.

Elkarrizketatua: Rufintxo Gaintza.

1.1. Fonologia

- Izenari + *-a(k)* mugatzailea eransten zaionean, asimilazioaren ondorio dateke: *-iak* > **-iik* > *-ik* bilakabidea: *axurik* ‘axuriak’. Basaburu Nagusiko eta Larraun ekialdeko ezaugarri nabarmena dugu hau (*cf.* Apalauza, 2008b, 54. orr.). Oro har, erdialdeko hizkeren ezaugarria da, Gipuzkoa ingurukoa eta Bortzirietan, Lesakan eta Leitza betetzen dena.

- Bokal arteko *g*, *b* eta *r* kontsonanteen galera arrunta eta bizia da: *gio* ‘gero’, *zue* ‘zure’, *audo* ‘agudo’, *atraute* ‘atera dute’, *aurreako* ‘aurrerako’, *patzen* ‘paratzen’. Hitz muga gainditzen duen fenomeno da, *bat*-ekin elkartzen denean: *mezklat* ‘mezkla bat’, *txapat* ‘txapa bat’, *pentsuet* ‘pentsu bat’.

- Bustidura automatikoa ugaria da, erdialdeko hizkeretan ohi den bezala: *itte* ‘egiten’, *eztattike* ‘ez daiteke’, *norbattek* ‘norbaitek’. «Palatalizazioa hitz erdian zein hitz bukaeran gertatzen da, eta euskal hitzetan zein maileguetan» (cfr. Apalauza, 2008b, 78. orr.). Horrez gain, **Edun* aditzaren pluralgilea egiteko *tt* kontsonante palatalizatua dago, alegia, *-it-* pluralgilea dugu Imotzen bezala: *ttulik* ‘dituzularik’, *kendear ttutenak* ‘kendu behar dituztenak’.

- Sinkopa eta aferesia euskara nafarraren ezaugarritzat hartu ditu Zuazok (1998a, 215-216. orr.). Bilakabide indartsua da Erroibarren eta Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Ibarra, 1995, 31-138. orr.), baina sinkopa eta aferesia bilakabide ahulak dira bertze hizkera batzuen aldean (Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa, Malerreka, Bortzirriak...). Basaburuan aferesia bilakabide ahula da eta, oso ugaria ez bada ere, kasuren batean gertatzen da: *maten* ‘ematen’. Testu honetan sinkopa agertzen da, nahiz ez den oso ugaria: *atra* ‘atera’.

- *-ten* aditz-izena *d-z* hasitako aditz laguntzailearekin elkartzean *-n* galtzen da, eta hasierako *d-* kontsonantea ere bai bokal artean gelditzean: *mateiozu* ‘ematen diozu’, *itteotena* ‘egiten dutena’, *obligatzeute* ‘obligatzen dute’, *emateizute* ‘ematen dizute’, *mateiote* ‘ematen diote’. Hizkera arduragabeen gertatzen da. Imozko Oskotzen, Etxalekun eta Muskitzen, baita Erbitin eta Gartzaronen ere (Apalauza, 2012, 261. orr.).

- Gauza bera partizipio morfema + *behar* taldeetan, hala partizipioaren bukaerako bokala (*-u*, *-i*) nola hasierako *b-* galtzen dira: *moztearko* ‘moztu beharko’, *kendear* ‘kendu behar’, *uztear* ‘utzi behar’. Apalauzaren arabera (2008b), Imozko Etxalekun, Oskotzen eta Muskitzen entzuten da, baina, bistan denez, hedadura zabalagoa du.

- Yod kontsonante igurzkaria belare ahoskatzen da hala ondare zaharreko zenbait hitzetan (*joan* ‘joan’) nola mailegu berrietan: *tatuajea* ‘tatuajea’; dena dela, gehienetan *y-* igurzkariz ahoskatzen da: *yayo* ‘jaio’. Soinu igurzkaria oro har, goi-nafarreraz eta baita nafar-lapurteran ere hedatzen da. Gure eremuari dagokionez, Basaburu Nagusiko herri anitzetan gertatzen da: Erbitin, Gartzaronen, Berueten, Arraratsen, Igoan eta Orokietan. Aldiz, Basaburu Nagusiko gainerako herrietan, eta orobat Larraunen eta handik mendebalera soinu belarea dago (Apalauza, 2008b, 80. orr.).

- *i* eta *u*-ren ondoren *a > e* hurbileko bokal asimilazioa gertatzen da. Hego Euskal Herriko hainbat hizkeratan betetzen delarik, Imotz eta haren inguruko hizkerak isoglosaren barnean daude: Imotz osoan, Basaburu Nagusian, Larraunen eta are Araitz-Betelun ere ageri zaigu *a > e* asimilazioa (Apalauza, 2008a, 72-74. orr.). Testu honetan oso ugaria ez bada ere, badira kasuak hitz barruan eta baita *bat* zenbatzailearekin ere: *apuntetu* ‘apuntatu’, *urrixue* ‘urriza’, *pentsuet* ‘pentsu bat’.

- *g* protetikoa jartzen da *oa-z* hasitako taldeetan. Imotzen eta Basaburua Nagusian biltzen dira halakoak, baina bilakabide ahula da mendebalera egin ahala: *goartzen* ‘ohartzen’.

1.2. Izen morfologia

- Noren morfema *-na* izaten da, bokal arteko *r*-ren galeraren ondorioz (ikus gorago): *ardina* ‘ardirena’.

- Erakusleetan *-rik* dugu. *Artaik* ‘hartatik’. *-tarik* aldaerak hedadura zabala du Nafarroa Garaian: batetik, Imoztik ekialdera eta hegoaldera ageri da, hala nola Atetzen eta Ultzaman (Ibarra, 1995, 400-404. orr.), Artzibarren, Aezkoan (Camino, 1997b, 81-82. orr.), Txulapainen eta orobat Hego-nafarreran (Camino, 2003, 81-82. orr.); bertzetik, Nafarroako ipar-ekialdeko Baztanen (Salaburu, 1984-2, 180. orr.) eta Ipar Euskal Herriko zenbait hizkeratan ere bada (Camino, 2004, 468. orr.; *cfr.* Zuazo, 2003, 190. orr.).

- Bertzaldetik, *-on bat* egitura dugu: *markaonbat* ‘markaren bat’. Basaburu Nagusian indar handia du honek (*cfr.* Apalauza, 2012, 332. orr.), eta edozein bokal eta kontsonanteren ondoan ager daiteke. Bertze toki gehiagotan ere zabaldua dago: Larraunen, erraterako. Araitz-Betelun kasu batzuk badira eta baita Ultzaman ere. Aski ezaugarri berria dirudi ondoko Ultzaman, *-on bat* ageri da 1863 eta 1903an (Ibarra, 1992, 928. orr.), baina ez dugu bertze lekukotasunik aurkitu.

- 3. mailako pluraleko erakuslearen datiboko morfema hau da: *aiki* ‘haiei’. Imozko hizkeran pluraleko erakusleek deklinatzean pluralari dagokion *k* horrekin egindako forma analogikoak hedatu dira (*cfr.* Apalauza, 2004, 95. orr.). Bertzaldetik, 2. mailako singularreko erakuslea *ore* ‘hore, hura’ da, goi-nafarreraz eta ultzameraz ohi denez, eta 3. Mailako singularreko datiboa *arrei* ‘hari’ da, *r* anizkunarekin.

- Ezaguna denez, nafarrerazko hainbat hizkeratan –aezkeraz, erraterako– izenondoa *bat* zenbatzailearen ondoan ager daiteke: *pentsuet oso ona* ‘oso pentsu on bat’.

1.3. Aditz morfologia

- Nork-nori-nork-en paradigmaren Nori pluraleko 3. pertsonaren morfema *-ote* da: *maten diotet* ‘diet’. Datiboko morfema hori ondoko Imotzen, Basaburu Nagusian eta Arakilen ere bada, eta orobat, ekialdera eta hegoaldera hedatzen da.

- Aspektu ez burutuan, *-tzen* morfema partizipioaren ganean eransten da. Erdialdeko ezaugarri hedatua da partizipio pleonastikoak erabiltzea, eta Imotz eremu horretan dago, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitzekin batera: *Norbattek ostutzen badu* ‘Norbaitek lapurtzen badu’. Erran bezala, ezaugarri hau erdigune zabalean ageri da (Camino, 2003, 84. orr.), eta aspaldik, gainera, XVII. Menderako hori gertatzen da, batez ere *-i* bukaera dutenekin (Reguero, 2017, 591. orr.): Gipuzkoan, Lapurdiko mendebalean, Nafarroa Garaiko Bortzirietan, Leitzaan, Sakanan eta Ultzaman, eta hegoalderago Gesalaten, Goñerrian, Olloibarren, Oltzan eta Eguesibarren. Ez dira ageri, ordea, ez Baztanen, ez Aezkoan.

- *Egin* indartzailea + aditz laguntzailea + aditz nagusia egitura agertzen da, erdialdeko hizkeretan ohikoa dena: *itten dut yayoz bezala apuntetu zein ardina den*. Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko hizkeren ezaugarritzat hartu izan da (Zuazo, 2008, 216.

orr.) «egin» aditz-indartzailea, baina Nafarroako ekialdeko zenbait hizkeretan ere bada, hala nola Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra, 2000, 221-222. orr.).

1.4. Sintaxia

- Kasu ergatiboan *-ak* da pluraleko morfema, mendebalde eta erdialdeko hizkeretan gertatzen den bezala: *Itejekoak patzen diote* ‘ITGkoak paratzen diote’. (ITG Abeltzainen eta Nekazarien erakunde bat da.)

- Denborazko perpausetan *-larik* morfemaren *-laik* eta *-lik* aldaerak dira nagusi: *yayotzen delik axurik* ‘jaiotzen direlarik axuriak’, *kendu bear ttuzulaik* ‘kendu behar dituzularik’, *aurreako uztear ttulik* ‘aurrerako utzi behar dituelarik’. Basaburu Nagusian *-larik* da nagusi, hurbileko Ultzaman bezala; Larrauna orduko, berriz, *-nean* erabiltzen da (cfr. Ibarra, 1995, 506. orr.). Ezaguna denez, oro har, Ipar Euskal Herriko hizkeren eta euskara nafarraren ezaugarria da *-larik* morfema, denborazko perpausetan eta moduzkoetan hedatzen dena Oiartzun-Irun bitartean, Basaburuan eta Imotzen (Zuazo, 2003, 185. orr.). Jakina denez, *-(e)la* baizik ez dago mendebalean eta erdialdean, eta *-la* zein *-larik* eta *-larikan* ekialderagoko hizketan.

- Denborazko kutsua dute *-z bezala* egiturarekin osaturiko perpausak: *itten dut yayoz bezala apuntetu zein ardina den* ‘egiten dut jaio ahala, apuntatu zein ardirena den’. Egitura hau «partizipioa + *ahala*» egituraren parekoa da eta Nafarroako Zugarramurdi eta Urdazubin bederen aukera erabiliena da (Montoya, 2004, 213. orr.). Horrez gain, Baztango Anizen eta Elizondon ere ezaguna da. (Camino, 1997a, 496. orr.)

1.5. Lexikoa

Arikoa ‘ardi arra’, *axoa* ‘ardi emea’, *urrix* ‘bildots eme jaio berria’.

1.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak

Geolinguistikoki Gartzaron gehienbat nafarreraren barnean kokatzeko ezaugarriak agerian gelditzen dira. Erraterako, Gartzaronen *mintzatu* erabiltzen da, nafarrera sortaldekoari begira dagoela erakutsiz eta *g*-protetikoa jartzen da *oa*-z hasitako taldeetan: *goartzen* ‘ohartzen’. Bertzaldetik, 3. mailako erakuslea *ore* ‘hore’ da, goi-nafarreraz eta ultzameraz ohi denez, eta haren datiboko forma *arrei* ‘hari’, *-r*-anizkunarekin. Horrez gain, denborazko *-z bezala* egitura eta *-larik* dugu Gartzaronen. Hurbileko hizkeretan *-larik* da nagusi Ultzaman eta baita, Beruete eta Igoa ez, Basaburu Nagusiko bertze herrietan ere. Larrauna orduko, berriz, *-nean* bertzerik ez da erabiltzen (Goldaratza orduko, hobeki esanda). Kasu honetan ikusten dugu Gartzarongo hizkera hegoaldeetik hurbil duen Ultzamako hizkerarekin eta iparraldearekin batera doala.

Baina, bertzaldetik, kontsonante herskariak erruz galtzea bokal artean, bustidura, *-on bat* egiteko joera, *-ak* ergatibo pluralean eta *egin* indartzailea bezalako ezaugarriak Nafarroa Garaiko erdigunean, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen agertzen zaizkigu eta erdialderago jotzeko parada ematen digute. Honainokoa laburbilduz, beraz, Basaburuko mintzoa Zuazok (2014) trantsiziozko hizkeratzat hartzen badu ere, testu honen arabera Apaluzaren (2012) proposamenetik hurbilagokotzat joko genuke, alegia, nafarreratik hurbilago, nahiz erabat garbia ez den kokapen hau. Bukatzeko,

hasierako kapituluan genioenez, (*cfr.* 1. Sarrera) Gartzaronen 2., 8., eta 11. ezaugarriak betetzen dira gure testuan, izaera nafarra badu, honen arabera.

Ondorio etnografikoei dagokienez, jakina denez, etxe eta artzain bakoitzak bere marka jartzen zion ardiari belarrian bertzeengandik bereizteko. Horregatik, belarrietako marka haiek desberdinak izaten ziren; xedea zen artzain bakoitzak bere abereak identifikatzea. Belarriaren seinale horrek itxura desberdina zuen: miruaren buztanaren antzekoa, bi mozketak berdinak, ilargierdiaren antzekoa... Horrela kontatzen du Ameriketako egondako Bermeoko artzain batek: «Ardiei belarrian egiten zaien marka: «miru-buztena», «urkulue», «okatza»... Beharrezkoa izaten da egitea. Ardiak ez ditu sekula aseguratuta izan beste batzuk okatza,-ta segun bakotzak, bakotzak bere pastoriek ze marka dekien, bai» (Sasiain, 2010).

Ariznabarretak (1991, 142. orr.) aziendaren marka etxeko ondarearekin identifikatzeko balio duela dio:

Por esta función prioritaria que se le asigna de identificar a la casa con su patrimonio pecuario es por lo que hemos denominado «marca ganadera», aun siendo conscientes de que hubiera sido más apropiado hablar de «marca de la casa». Es fundamental el papel que desempeña la marca ganadera de la casa a la hora de identificar a ésta con su patrimonio.

Beranduago, artilea bikearekin margotzen zitzairen, eta gero margoarekin, eta marka horrek ia urte osoa irauten zuen. Orain plastikozko krotalo bat jartzen diete belarrian bere zenbakiarekin, ardiak identifikatuak egoteko.

2. ITUREN

Gure elkarrizketatua 1935. urtean jaioa da; aita Iturengoa du, eta ama Oizkoa, orain 65 urte ditu. Kanpoan egin ditu egonaldi batzuk: hamabortz urte zituela Ávilan egon zen eta gero Madrilera bizitzera joan zen. Beraz, erran dezakegu bere euskara dela Iturenen duela berrogeita hamar bat urte hitz egiten zena. Pasarte honetan festak eta inauteriak nolakoak ziren kontatzen digu, baita momoxorren beldurra eta joaldunak ikusteko ilusioa ere. Erregetako festaz eta oraingo euskara eta lehenagokoaren arteko aldeaz mintzo da.

Inauteriak

—*Adibidez inautetan, esperatzen zenuten urte osoa, inauteak etortzeko, ilusiokin ta...*

—Bai ilusio andikin gañera, asitzen ziren ya zortzi egun lenigo ora, neska guzik piperropilak, roskilla batzuk itten, gero gizonak bueno, mutilak pasatzen ziren yoaldunekin itxez itxe ta ola, ta ilusioa ikaragarri andia inautitako.

—*Eta emen Ittunin egoten ziñeten zuek edo emen eta gero yoaten ziñeten Zubietaraino...*

—Bai, emen, nik uste bestik andina emen itten zela gañera, Zubietatik ere tortzen ziren unara ta egun bat ere yoaten giñen Zubitara. Biño guri adiña aundi xomarra zen arte, etziguten utzitzen yoatia ola giaun gisa, geienin gu Ittunin, bueno mutilak orik oaiñiken, baña neskari, libertadea arront gutti, yoan ta torri ibiltzeko.

—*Eta, adibidez, zer naiago zenuten; inauteriak edo bestetan, ez dakit, zer gustatzen zitzaizuen geyago?*

—Niri geigo bestak nik uste e, Ittungo bestak bai, porke, len oroitzen naiz gu ttikik giñela gañera bestetako sekulako ilusiona, beti estreintzen giñun zerbait arropa, ez. Nola zen Sanmartiñak ya negua, abrigu berrikin ta ola nik, nik nerez geiago gustatzen zitten bestak ora inautik biño. Inautia zakarrugua mozorrokin ta ikatu guk ez. Gu ttikik giñela porke disfraztzen ziren mozorroz beztittu, urdun erraten zen bezala, eta beldurrez pasatzen giñun, nik neretako bestak geigo gustatzen zitten inautik biño.

—*Baña bietan dantza eta...*

—Bai, bai, bai ori dena, bueno, plazan gañera dena otzak biño dena plazan.

Eguberriak, erregeak

—*Eta adibidez errege gau ortan egiten zenuten zerbait, bueno edo egiten zuten...*

—Bai, erge bezperan ere, pasatzen ziren beti yoaldunak bezperan, erri guzitiken yoaldunak yoka ta ola aitzen zien, besta bat bezperan arront majoa. Gero ilusioa terriblia gero erregikin, zapatak emen denak patzen ginttun salan denak, bakotxak orik denak garbittuta patzen ginttun zapatak ta gero pentsazu ainbertze senide izanik pues erreglu ttikiak, ez, baña bueno sekulako ilusiokin, ilusioa arront aundia, oroitzen naiz beti gu ttikiak giñela, gu gottiko pisuan itten giñun lo eta bueno, bajatzen giñen gaberdin denak laixterka bat bertziri abistuta ilusio andikin, zapatan erregik ze utzitzen zigun pentsa, gauza andirik ez, biño ilusio andio.

—*Gero amasei urtetan yoan ziñenean...*

—Bai ni, oañik betetzeko nittunin, yoan nintzen oain besta oken ondotiken yoan nintzen ni, febrero edo ola Agilarrera yoan nintzen osaba batzukin, an tzuten tienda bat ta ola, ta an zen aman anaia, tio Jesus, or ya utziko zien alaba bat an laguntzen pixkot tiendan ta ola nola zen negozio bat arront familiar ta itxe berin ta kanpoko neskarik etzutela sartu nai, ni yoan nintzen amabost urtetan, ta an pasatu nittun amar urte.

Euskararen inguruan

—*Ta adibidez nabaritzen duzu euskararen, ba len eiten zenutena edo orain egiten dena, kanbioren bat edo...*

—Difentzia aundiz bai, bai, kanbio aundia, pentsazu nik telebisionin ta itten tenin ola solasa auñiztan patu bear diot ta atenzione andia kartzen ttuzten solas auñitz.

—*Ez baina bertakoei adibidez ba Karmeni edo ahizpei edo ez dakit, emengo gazteei, diferente nabaritzen diezu edo...*

—Ez, nik emengo jendikin ez tiot olako diferentziarik arrapatzen.

—*Eta gurekin eta orrela, ez duzu...*

—Bai, bueno zuek bai sartzen ttuzue or solas auñitz difenti, guk ez, Iruñakuk, biño enteinttu arront ongi.

—*Ezda kostatzen...*

—Ez, poejemplo nik erraten dten bezala enteintzen dugu ta zuk entenditzen duzu, ola difentego biño, ez, guk ddaus biño geigo aman euskaraz ez, amak ere gure euskara itten du. Ez, solasa... Bai guk gramatika ta gauz orik ez ttugu estuiatu bat ere, dena erautsi digutena ttiki-ttikitiken ta ttiki-ttikitikin ttugun solasa.

—*Ta adibidez, txikitan ikasten zenuten dena eskolan ta erdaraz ez, baina...*

—Baña kosta auñitz, ni Agilarara amabost urtekin yoan nintzenin, nai nun konbersazione bat segitu, ezin mintzatuz egoten nintzen, auñitztan lotsatu... oartzen nintzen niaurek ere erraten nittula solas gaizki...

—Ta an dena erdaraz, klaro!... etxekukin ta beti euskaraz, telefonoz ta orrela.

—*Gero etortzen zarenean etzaizu batere kostatzen.*

—Bai, lenbizin bai pixkot, lenbizin asira artan igual nai solas bat erran ta kosta bezala ez, biño ori lenbiziko egunin do lenbiziko momentun, sarreran ez, gero ya segidan artzen nion ya, nola beti, ni nola beti mintzatzen nintzen euskaraz, amakin ta senidikin telefonoz denakin beti euskaraz, oain difentzia arrapatzen diot. Biño franko aundia ez euskaraz, gu mintzatzen giñen maneratikan oain zuek ta, bueno, zuek ta nik telebisionin ta ola mintzatzen ttuztenin, difente solas auñitz.

Elkarrizketatua: Ascensión Iñigo.

Elkarrizketatzailea: Leire Arbelaiz.

2.1. Fonologia

- «-a organikoa» galtzea, artikulua balitz bezala, horixe da Malerrekako eta Bortzirietako hizkeraren ezaugarria eta indar handia du: *bi eskol* ‘bi eskola’, *gauz orik* ‘gauza horiek’.

- Hasierako *e*-ixten da txistukariaren aitzinean dagoenean; ohikoa da bilakabide hau goi-nafarreraz: *itxe* ‘etxea’, *izautu* ‘ezagutu’. Egia erran, *itxe* aldaera Nafarroatik kanpo ere gertatzen da: Getarian, Zumaian eta Antzuolan.

- Mugatzaileak sortutako hiatoak desagitea oso ohikoa da; asimilatu eta batzuetan suntsitu ere egiten dira: *-o + -a > -oa > -u*: *etxekukin* ‘etxekekin’, *-ea > -ia > -i*, *-e*: *erregik* ‘erregeak’, *jendikin* ‘jendearekin’; *-i + -a(k)* deklinabideko hiatoa ere desagertzen da: *-iak > -ik*: *ttikik* ‘txikiak’. Horrezaz gain, Malerrekan eta Basaburu Nagusian bezala, inesiboan bilakabide hau dugu: *-ean > -ian* (disimilazioa) *> -iin* (asimilazioa) *> -in*: *lenbizin* ‘lehendabizian’, *egunin* ‘egunean’, *gaberdin* ‘gaberdian’, *itxe berin* ‘etxe berean’; eta *-oan > -un*: *momentun* ‘momentuan’. Lesakan, Igantzin, Arantzan eta Sunbillan, ordea, *-ian > -iyan* (epentetikoa hiatoa hausteko) *> -iyin* (asimilazioa) aldaera da nagusi: *erdiyin* ‘erdian’, *erriyin* ‘herrian’, Beran eta Etxalarren, ordea, *mendiyin*, *erriyan* modukoak gailen dira.

- *-ón* eta *-ión*-ez bukatutako erdal hitzek *-n* atxiki dute: *telebisiona* ‘telebista’, *ilusiona* ‘ilusioa’. Nafarroa gehieneko bilakaera berezia da: *alkona*, *frontona*, *abiona*, *kamiona*

dira aldaera nagusiak nafarreraz (Zuazo, 2014, 108. orr.) eta ezaugarri aski zaharra da Reguerok (2017, 559. orr.) erakusten duenez. Gisa berean, erdal *-ción*-en bukatutakoek *-zione* egiten dute: *konbersazione* ‘elkarrizketa’, *atenzione* ‘atentzioa’, nahiz oso sistematikoa ez den; testuan *ilusioa*, *ilusiokin* ere baditugu.

- Sinkopa indartsua da Malerrekan. Hitz barnean sortzen direnak ugariak dira: *auñiztan* ‘aunitzetan’, *erreglu* ‘erregalu, opari’, *abistuta* ‘abisatuta’, *disfraztzen* ‘disfrazatzen’, *estreintzen giñun* ‘estrenatzen genuen’, *erge* ‘errege’. Partizipio inperfektiboa laguntzailearekin elkartzean sortzen direnak ere badira: *erraten ten* ‘erraten duten’ (cfr. Zelaieta, 2005, 234. orr.).

- Diptongo irekitzea, alegia, *eu > au* egitea arrunta da Nafarroan eta Iparraldeko euskaran: *yaus* ‘deus’. *Yaus* aldaera Bortzirietako eta Ultzamako bereizgarria da.

- Bokal arteko *b*, *g*, *r*, *d* kontsonante ahostunak galtzea ohikoa da hizkera guztietan eta hemen ere bizitasun handia du: *eakutsi* ‘erakutsi’, *estuiatu* ‘estudiatu’, *paratu* ‘patu’, *ikatu* ‘ikaratu’.

2.2. Izen morfologia

- Lehen graduko erakuslearen hasierako bokala sudurkariaren aurretik doanean *u* bihurtzen da: *unara* ‘honara’, Baztanen, Malerrekan eta Iparraldeko hainbat tokitan ohi denez.

- *Aunitz* zenbatzailea gradu-adberbio gisa erabiltzen da, nafarrera eremu handian gertatu bezala: *auñitz difenti* ‘oso diferente’.

- *-ik* morfemaren *-ikan* forma indartua agertzen da partitiboan, ablatiboan, motibatiboan eta modu-denborazko perpausetan. Berrikuntza hau erdialdeko hizkeretan aurkitzen dugu, bereziki Nafarroako Bidasoaldean: *bi auzo oritikan* ‘bi auzo horietatik’, *maneratikan* ‘maneratik’, *ttiki-ttikitiken* ‘txiki txikidandik’, *guzitiken* ‘guzititik’, *ondotiken* ‘ondotik’, *oaiñiken* ‘oraindikan’. Hala ere, *-ikan* ez da Ultzamara lerratu, ezta Baztanera ere (cfr. Zelaieta, 2005, 244. orr.).

- Izenordainen forma indartuek *-au(r)* morfema izaten dute, Euskal Herriko ipar-ekialdean bezalaxe: *niaurek* ‘neronek’, *giaun gisa* ‘geuren gisa’. Erran bezala, aldaera hau lapurteraz, behenafarreraz eta zaraitzueraz hedatzen da; ezaugarri honetan, baliteke lapurteraren eragina izatea Iturenen, alegia, gibelka ari den ezaugarria oraindik bizirik erakustea. Bertzaldetik, *Nik nerez*-ek izenordain indartuaren funtzioa egiten du, *niaurek*-ekin batera.

- Lehen mailako pluraleko erakusleek pluralari dagokion *-k* analogikoa dute. Horrela gertatzen da Nafarroako muga inguruko hizkeretan: *oken* ‘hauen’, Bortzirietan, Baztanen eta Malerrekan, bertzeak bertze.

- Destinatiboan *-tako* baliatzen da Nafarroako hizkera anitzetan ohi denez, eta zehatzago, Sunbillan, Malerrekan eta Bertizaranan bezala: *ik neretako* ‘nik neretzat’. Hain zuzen ere, hauxe da Bortzirietatik bereizten duen isoglosa bat, han *-tzat* nagusitzen baita (Zelaieta, 2005, 272. orr.).

2.3. Aditz morfologia

- Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko hizkeren ezaugarritzat hartu izan da «egin» aditz-indartzailea (Zuazo, 2014, 216. orr.). Nafarroko Imotzen, Basaburuan, Malerrekan, Altsasun eta Sakanako hizkera batzuetan ere bada eta baita Nafarroako ekialdeko zenbait hizkeratan ere, hala nola Erroibarren eta Esteribarren: *espostu emen in nintzen* ‘ezkondu hemen egin nintzen’ (Ibarra, 2000, 221-222. orr.).

- Malerrekako ezaugarria da *-i* duten partizipioetan aditz-izena *-i*-ren gainean osatzea, alegia, bokala galdu gabe, aditzoina silaba muturrekoa bada: *asitzen zen* ‘hasten zen’, *utzitzen zigun* ‘uzten’, *etziguten utzitzen yoatia* ‘ez ziguten uzten joatera’. Erran beharrik ez dago mendebalde eta erdialdeko hizkera askotan ere topatzen dugun ezaugarria dela.

2.4. Sintaxia

- Denborazko perpausak *-nean* > *-nin* morfemarekin osatzen dira: *yoan nintzenin* ‘joan nintzenez’, *televisionin ta itten tenin* ‘telebistan eta egiten dutenez’; aldiz, ondoko Bortzirietako euskarari *-likan* nagusitzen da.

- *Utzi* edo *eman* aditzen menpeko perpausetan adlatiboa agertzen da: *etziguten utzitzen yoatia* ‘ez ziguten uzten joatera’. Hauxe da, hain zuzen ere, nafarreraren ezaugarri bateratzaile bat, halere eksklusiboa ez dena, Iparraldean ere ezaguna baita (Zelaieta, 2008, 202. orr.) eta Basaburu Nagusiko iparraldean, Imotzen eta Larraungo hego ekialdean (Apalauza 2005, 97. orr.).

2.5. Lexikoa

Aunitz ‘anitz’, «*anitz* aditzondoa Nafarroako ipar-ekialdean Baztan, Malerreaka, Bortzirietak... eta ekialdean eta baita Ipar Euskal herrian ere, *arrant* ‘oso’, *espostu* ‘esposatu, ezkondu’, *mintzatu* ‘hitz egin’.

2.6. Ondorio etnografikoak eta linguistikoak

Iturengo testu honetan Malerrekako ezaugarri eksklusiboak agertzen dira: erraterako, badugu *a* > *o* bihurtzen duen aldaeraren bat: *xomarra* ‘xamarra’. Bertzaldetik, *urdu* ‘ordu’ dugu, hots, *o* > *u* bilakatzen da dardarkariaren (eta txistukariaren) aurrean, Malerrekako ezaugarri eksklusibo bakarrenetarikoa.

Ikusiak ikusirik, Bortzirietako eta Malerrekako testuen artean alderaketak egin ditzakegu. Denborazko morfema *-likan* ‘-larikan’ da Bortzirietako hizkerari; erraterako, Lesakan; Iturenen, ordea, *-nean* > *-nin* dugu. Destinatiboan *-tako* dugu, Bortzirietan, ordea, *-tzat*. Bertzaldetik, *egin* indargarri gisa agertzen da; Bortzirietan, aldiz, gutiago. Eta ez dugu *izatten*, *ematten*, *egotten* gisako aditz-izen bustirik aurkitu, Bortzirietan ez bezala. Gisa berean, Iturenen ez dugu *i + a* > *iya* epentesiaren adibiderik, *andia* baizik. Malerrekan eta Basaburu Nagusian bezala, inesiboan *-ian* > *-iin* > *-in* asimilazioa gertatzen da (*lenbizin* ‘lehendabizian’) eta *-oan* > *-un* (*momentun* ‘momentuan’); Lesakan, Igantzian, Arantzian eta Sunbillan, ordea, nagusi da *-ian* > *-iyin* aldaera: *erdiyin* ‘erdian’, *erriyin* ‘herrian’, Beran eta Etxalarren, ordea, *mendiyan*, *erriyan* modukoak gailen dira. Bukatzeko, ez dugu aurkitu Zelaietak (2010, 138. orr.) Malerrekarako ematen dituen ezaugarri biren arrastorik: ez *al* galde-partikularen erabilpenik, ezta *bida* zenbatzailerik ere.

Badira, bertzalde, ezaugarri komunak: erraterako, Malerrekako eta Bortzirietako hizkeran *-a* organikoa galtzen da: *bi eskol* ‘bi eskola’. Lexikoan *arront* dugu, Baztan eta GN eta BN aldeko aldaera, Oiartzuneraino heltzen dena; eta *aunitz* eta *mintzatu*, nafar aldaerak nagusitzen dira. Bukatzeko, *niaur* eta *giauren* aldaerak ditugu, Euskal Herriko iparraldearekin eta ekialdearekin (erronkaria eta zaraitzua barne) lotzen dutenak eta eremu honetan usu aurkitzen ez direnak, agian lapurteraren eragin zerbait islatzen dutenak; ibar hauetako bizilagunak Ipar Euskal Herriko merkatuetara maiz joan dira eta bien artean harremana izan dute *cfr.* (Zelaieta, 2008, 28. orr.). Azkenik, testu honetan Zuazok (2014, 108. orr.) nafarreratzat ematen dituen ezaugarri hauek betetzen dira: 1.a, 2.a eta 3.a, nolabait izaera nafar hau azpimarratzen dutenak.

Etnografiaz den bezainbatean, jakina denez, orobat inauteriak izan dira gizonen festa. Emakumearen eginkizunean aldea dago toki batzuetatik bertzeetara; izan ere, herri bakoitzak bere festa izan du, bere pertsonaia eta bere erritua, gure informatzaileak dioen bezala. Nolanahi dela ere, herri anitzetako ohitura zen herriko neskek ‘piperropilak’ egitea festetan eta mutilei eskaintzea. Hirinez, arrautzez, esneaz eta azukrez egindako postrea zen eta Baztanen (Izeta, 1996), ere egiten zen; gure Mezkirizko amatxik kontatzen zigunez, festetan hori eskaintzen zieten mutilei eta baita anis xorta bat ere. Bide batez, horixe izaten zen zen herriko mutilekin egoteko momentu egokia:

La comitiva es abierta por una persona que viste una blusa negra y una boina y que, con sus toques de cuerno y voces, busca «acompañar» el sonar y caminar de los joaldunak. Este personaje lleva colgado al cuello una bolsa con «piperropillas» (dulces caseros) que, de trecho en trecho, va poniendo en la boca de los joaldunak, acto cargado de un simbolismo oscuro y que parece casi un acto litúrgico (Guerrero & López, 2011).

Bertzaldetik, gure hiztunak nabarmentzen du inauteriak festa zakarrak zirela, haurrek beldurra pasatzen zutela eta neskei ez zietela uzten herritik ateratzen. Dударik gabe, mutilek askatasun gehiago zuten hara eta hona mugitzeko, neskatxoak, aldiz, beldur egoten ziren moztaroen atzetik. Ikus aurrerago, Urdiango testuaz zer diogun gizonen jokabideari buruz (*cfr.* 10.6).

Bertzaldetik, ezinbestekoa da aipatzea inauterietan Iturenen joaldunen pertsonai ezaguna; joareekin estuki lotua baitago. Joareak egitea herri honetako lanbidea zen. Hain zuzen ere herri honetan kalitatezko joareak egiten zirela diote, eta halaxe dio Nafarroako euskal abesti herrikoiak eta euskaldunon artean ospetsua den ‘Iturengo arotza’ kantak.

Inauterietako garaiaz gain, erregetako bezperan haurrek joareak soinatzen zituzten etxeko atarrietan (Imbuluzqueta, 1991). Ohitura honek bizirik iraun du Pirineo inguruetako hainbat herritan, erraterako Erronkarin, Baztanen, oraindik bizirik gordetzen dute; guk ere txikitandik errege bezperan txirrintxak eta joareak hartu eta etxeko atarian jotzen genituen erregeak noiz etorriko ziren zain. Iturenen joaldunak etxez etxe pasatzen ziren eta puskek biltzen zituzten. Bistan denez, besta hauek neguko solstiziotik hurbil kokatzen ziren eta denetan puska-bilketa egoten zen erritu antzeko bat eginez. «El carácter ritual de las cuestaciones, en los días descritos y en otros no determinados por no ser tan usuales, viene acompañado del deber tradicional, el acopio de alimentos, la consumición de productos» (Dueñas, 2001, 18. orr.).

3. LEITZA

Paulina Leitzako Benta baserrian jaioa da eta gaur egun herriko Txatxunea etxean bizi da. 1934. urtean jaioa, 67 urte zituen grabaketa egiterakoan. Etxeko lanak nola egiten diren azaltzen du: lixiba nola egiten zuten, urratsez urrats eta lexiko berezia nabarmenduz, eta lixu hori arropa nabarrak garbitzeko nola erabiltzen zuten. Ondoren, txerri hiltzearen berri zehatza ematen du, eta txerrikiarekin egiten zen guztiaz mintzo da.

Lixiba egin

Eta monton bat ola, dexente itten zenen, itten giñuzenak denak beratzen patu sabe uren, sabe da uren, eta an euki urtu arte, pues ordu pareaten ola, sabeatu ure artan itten zitizioan zeuken zikiñe arrotu, errextu, eta gero asten giñen maiolak patu atarin eta berriz sabea eman ez xarta-xarta ola... iñez, iñez, iñez... eta alaxe pues itten giñuzen gero kuela aundi bet patu eta kuela aundi oin azpin, patzen giñuzen zera batzuk... ola, kontra kontra itxatxi gabe, aritzen txotx batzuk patzen giñuzen arrogo yartzeko arropak, gañekoan oso beian, zolan yarri eta oso itxatxi iñen zien.

Arro xamarren yartzeko aritzen txotx batzuk patzen giñuzen beian, kuelan beien, e!, eta kuel orrek zun txulo bat kanpora eta patzen giñuzen arropak patuz, patuz, patuz... arropa pille bato lendabizi manyarek, almuadak, gero alkandorak, kantzontzilloak... pues ola, zien arropak patzen giñuzen eta gero itten giñuzen zeratu... lixu enea, osea patzen giñun, astontzie esaten zitizion, astontzie, zaku bet ola... ebaki ola zaku itxi-txi bet yunto, ola zaku itxi-txiet ebaki ta punto kruz o itten giñion, ez arik ateatzeko eta, ure patzen giñun kuel orren gañen eta gero patzen giñun an aus pille bat, autse asko-asko, suko autse patzen giñun zera orren gañen austontzi orren gañen. Austontzie esaten zitizion, telazko zaku orrei, irikitteko orrei, eta gero botatzen giñion, asten giñen ure pixkeneka-pixkeneka ure bero-beroa, ola oso beroa ezin da ezin... epeltxegoa, epeltxegoa, gero ta gexeo berotu, gero ta gexeo, urdu pare bat itten giñun lixu ori egosten, lixu ori ure botaz-botaz, gero berroxegoa gero ta... beiko txulo artatik ateatzen zitizion ure, lixu erre ori, lixu errea esaten zitizion.

Eta gero ala urdu pareat gutxina, urdu pareat o bi urdu terdi igual ure botaz-botaz-botaz, betetzen zen kuela mutur ori ta... bera yoaten zen gottik bera ta andik berriz e, andik urdu erdi betea o, bota ure beroa berriz eta ala... Eta gero ateatzen zen beiko txulo artatik kanpora ur ori eta gero pues... oztu artan utzi bealaxe eta gero erreka yoan, lixu errea, osea, errekaa yoan ta zeatu itten giñun... ni oneaño uren sartute aitzen nitzen negun ebai tte uden ebai, antxe lixu ure yotzen. Andik arropak artu, saski aundie bete eta errekaa yoan eta an bañun ola, tente arri bet, da askotan ur asko zenen, pues... dena... ure eotten zen eta ankak sartu, ez noski katiuska uangoak, baño ordun etzegoan katiuskaik. An ez zegoan ureko oñetakoik, ola altu alturik eta abarkak eta yauntzi, oneaño denak busti-bustik antxe... eta lixue jo olaxe jotzen giñun: tapa, tapa, tapa... ta gero, langa bat bazegoan an ola, bi sardeetan patue, ola zearka eur bet... ta arropak an patzen giñuzen. «Txurruin», ure botaz. Da alaxen lixuri jo ta negu biden biñipin, krixton otza!. Eta nire eamaten ziden anaiek edo, arroltz bat uren pasatue, ta bai, arroltz bat uren pasatue ta gero... zera... katillue kafe, bero bero beroa, pixkoat piztu negun alako lixue kozkorra yotzen errekan antxe, osea ke... Amairu urteako lixue yotzen nun da... iñe bai lixue, e!

—*Lixue zen arropa monton oi?*

Arropan monton orrei lixue esaten zaio, eozine galdetzen badiozo... lixue ateatzen zun gero a! ta negu biden nek errekatik atera eta txintxilik patu arropa orik, olako bi sarde oin ola zegoan sardea patue... eta gero zearka zegoan, zera... arropak botatzeko patue aurre, arropa patzeko ta, «txiriii» kollatu igual itten zien! Kollatu, e! Kollatu negu biden e! Sei antxe ta andik brasa eramatten zuen pertz zar baten, autse patu ta pertza baten zera rebai... brasa rebai...

Eon pixkoat berotu, ta segi yo arte eta gero, anaiek etxea eramatten zuen, da uañik ure asko zeuken ta berriz'e gauze bera itten zen. Etxen patu eur beten gañen ta ure bota arten an utzi, ukullun o, baztar baten, otza gutxio zean tokin, ez kollatzeko. Eta gero, belatsoan zabaltzen giñun de... gañekoan berriz, ekaitz aundie baldin bazen, ganbaran, urek denak botatzen zittunen, ganbaran.

—*Eta, oi ze itten ziñuen amabost eunetik bein?*

Bai, amabost bat eunetik, bai, amabost bat eunetik. Bañon arropak monton iñ arten. Oitture zen ori, e! Nik bezalaxe, gue etxen bezela Soanen¹ eta... denetan, baserri guzittan... Errin, ez dakitte, errin nik ustet itten zuela... bai!

—*Errin, labaderora igual yoanen zien?*

Labaderoa bazuen, bai... guk e, nai izan ezkeo... erreka re bagiñun, e! Baño oitture zen e, eta gero arropa.... Afaldu berrie nau, ta... ipoa yarri zat... Gero botatzen zun lixue, zera ori, ur ori, oso ona zen arropa nabarrak garbitzeko, *por ejemplo* galtzak eta mantalak, jertsek eta oso, oso, oso ona izaten zen, ori de ikeagarri ona, arropa illune garbitzeko... garbitzen zien ta ateatzen zuen usai bet goxoa lixuarrekin... Bai! Lixu ori sekatzzen zenen, oso goxoa ateatzen zen usaie... ta txurie e! Oso txurie arropa...

Txerri hiltzea

Txerrie, *por ejemplo*, biar il beau, biar goizen il beau, txerrie zazpitan eta baño ortaako itten giñun bezperatik txaka, txaka, txaka tipule, porrue, perrejille... dena prepaatu, txiki-txiki inde, eta gaben prepaatuta ta uzten giñuzen. Gero goizen denak yekitzen giñen eta itten giñun sue aundi-aundi bet eta gero kazul bat aundie patu ure berotzen, artan itten giñun batxui zopa gosaltzeko, baño bittarte ortan iltzen zen txerrie; atarin txerrie iltzen, gizonak, gizonak, ni ez nitze yoaten odola artzea, ikatu itten nitzen, bai, gizonak, eta... baño emakome bat izaten ziñeten eta alaxe txerri ori il eta itten zuen erre, lastoa patu, lastoa ez... ixtorra patu atarin eta errtzen zuen eta gero mayen gañen patu eta tapakin, karraxka-karraxka ure bero, bero, beroa botaz, itten zioan axal ori kendu. Ankatako axkaxalak ebai eta txuri, txuri, txuri itten zen, ta bittarten emakomek batxui zopa in de, barrendik ateatzen zen gibel ure txikittu, ta prejittu te... gosarie denantzat... ementxe prepaatu eta denak gosaltzea! Gizon guzik pozik bai! Gosari ederra prepaatute.

Eta alaxe gero... pues, atxalden, bostak alden edo, yoaten izan zien txerrie oztutzen zenen gero, txerri ori puskatzea etortzen zen karnizeroa eta ortxe pasilloan patu ol bat... lendabizi [...] oial txuri bet eta puskatzen zittun, gauz betzuk alde batera, bestek bestera

1 Sorobarren, baserri izena.

eta gero denak auspez tapatzen giñuzen axala gora zuela olen gañen denak, yaki orik, eta oixe izaten zen.

Gero pues euki, eun pare baten, odolrik itten giñuzen gañea eta, euki yaki orik gottik bera beide axala gora zuela eun pareaten, de gero gatza ta batxurik iñe uzi, uzi, uzi iñ eta odola aterazi pernilletik, de artuko [...] ta pernillei odola ateatzen zitzion ola, exurren ondolik, urera atera eta gero gatzen, zean patu... kajon aundi beten gatzaakin, bai pernillek eta espaldak eta gero, solomoa ta orik, ta kostillek ta oik... Oik eun pareat eta yasta, ateri in bear izaten zien, baño pernillek eta espaldak pues... amabost-obei eun gatz artan, eta lau bet eunetik buelta emanez, ta berriz e odol ori atea azi, ezurren ondoko odol uri ori, eta alaxe... Pues mira, alaxe izaten giñun txerrin asuntoa. Geo, odolrik in eta partittu, etxez etxe partitzeko otture puxkek partitzen... bi odolki, txistor bet, urdai puxke bat, eta giarre puxke bat... ta... «Pixke de baño proatzeko ekarrizue!» Ori esaten zen.

—*Pixke da, pixke da baño proatzeko!*

Ta gero ematten zuen aik o, pezta bat, eo ba pezta erdi et edo... odolrik eman tzealako, pues, umeri, sari pixkoat...

Elkarrizketatua: Paulina Urkiola Sukunza

Elkarrizketatzailea: Yolanda de Carlos

3.1. Fonologia

- Gutxi asko, Euskal Herri osoan dago *o > u* egiteko joera (*ze muz?* ‘zer moduz?’ orok.), kasu honetan, agian asimilazioz: *urdu kuarto bat* ‘ordu kuarto bat’. *Urdun* ‘orduan’ eta *urduti* ‘ordutik’, *urdueko* ‘ordurako’ eta halakoak ohikoak dira Basaburu Nagusiko Arrarats eta Beruete herrietan eta Larraungo herri gehienetan ere. Oinarri berekoak badira Araitz ibarrean, Gaintzan eta Azkaraten (*cfr.* Apalauza 2012, 270. orr.).

- Aldi berean, oso bizkorra da *u > o* egiteko joera erdialdeko eremu honetan, hau da, Basaburuan, Mailopen eta abarretan: *emakome* ‘emakume’, *bato* ‘batu’. Hain zuzen ere, Leitzako ezaugarria da *-zo* aditz atzizkia erabiltzea: *badiozo* ‘badiozu’. Ondoko Areson *-zo* salbuespena izaten da. 2. pertsona singularreko *-zo* atzizkia oparo erabiltzen da Imozko Goldaratzen eta ekialdeko herriak ez bertze Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz Betelun. Ekialdera joan ahala adizkion maiztasuna jaitsi egiten da eta oso-oso bakanka ageri dira (*cfr.* Apalauza, 2012, 243. orr.).

- *-i > e* bokal irekitzea ere gertatzen da Basaburu Nagusiko iparraldean eta Larraungo iparmendebalean. Oso bakanka bada ere, ez da harritzekoa Leitzan ere agertzea, ondoko Larraunen sistematikoa baita. Hemen *nik > nek* dugu.

- Hitz hasieran yod fonema ahostuna da: *yekitzen* ‘jaikitzen’, *yo* ‘jo’, *yoaten* ‘joaten’, ondoko Gipuzkoan, Aranon, Araitzen eta kasik Larraun osoan soinu belarea dugun bitartean. Leitzan ere aldera belareak badira hitz erdian eta mailegu berrietan: *kajon* ‘kajoi’, *prejittu* ‘frijitu’, *perrejille* ‘perrexil’. Ondoko Areson belarea nagusi da, auzo Gipuzkoan bezala.

- Leitzan *-iak* > *-ik* eta *-ia* > *-in* bilakabideak ditugu: *odolkik* ‘odolkiak’, *batxurik* ‘baratxuriak’, eta baita inesibo morfema eranstea ere: *atarin* ‘atarian’, *errin* ‘herrian’. Honen hedaduraz (cfr. 2.1.).

- *i* eta *u* bokalek eragindako *a* > *e* asimilazioa hemen ere bizi samarra da: *puxke* ‘puska’, *otture* ‘ohitura’, *tipule* ‘tipula’, *porrue* ‘porrua’, *perrejille* ‘perrexila’, *pixkeneka* ‘pixkanaka’, *prepaatute* ‘preparatuta’. Morfematik kanpo ere sortzen da: *aundi bet* ‘handi bat’, *txuri bet* ‘txuri bat’, *aundi beten* ‘handi batean’, *lau bet* ‘lau bat’, *gauz betzuk* ‘gauza batzuk’. Leitza ekialdeko hizkerekin lotzen duen ezaugarria da, ondoko Areson ez baitago horrelako inflexiorik.

- Hitz jakin batzuetan *e* > *a* egiten da /r/ anizkunaren aurrean: *baztar* ‘bazter’. Euskal Herriko mendebaleko hizkeren berrikuntzat jotzen da dardarkari hobikariak eragindako *e* > *a* bokal-irekitzea. Mitxelenak adierazi zuenez (1977, 62. orr.) bokal irekitze hori ohikoa da bertze euskal hizkera askotan, eta baita bertze ingurune fonologiko batzuetan ere. Honenbertzez, Euskal Herri osoko ezaugarria da, baina erdigunean da indartsuen.

- Bokal arteko *b*, *g*, *r*, *d* kontsonanteen galera hitz barruan eta hitzen artean gertatzen da: *prepaatu* ‘preparatu’, *ixtor* ‘iraztor, iratze, garoa’, *beaugu* ‘behar dugu’, *oik* ‘horiek’, *eun* ‘egun’, *proatzeko* ‘probatzeko’. *Bat* eranstea ere bai: *pareat* ‘pare bat’, *eun pareaten* ‘egun pare batean’. Egia erran, gehiago ala gutiago, euskalki guztietan gertatzen da bilakabide hau, baina, alde dago batzuetatik bertzeetara: hizkera batzuetan emaitzak egonkorragoak dira bertzeetan baino. Eta horixe da, hain zuzen ere, erdialdeko hizkeren ezaugarri bat (cfr. Olano, 1998, 86. orr.).

- Bokal artean *b* dugu *g*-ren ordean *obei* ‘hogei’ gisako formetan: *amabost-obei eun* ‘hamabost hogeia egun’. Bertzaldetik, *r* eta *d*-ren arteko aldaketak indar guti badu ere Olanoren arabera (2000, 138. orr.), kasu batzuk badira: *beide* ‘begira’.

- Sinkopa Leitzan ere agertzen da, baina ez da oso sistematikoa: *pezta* ‘pezeta’, *errtzen* ‘erretzen’.

- Fonologian *-a-* > *-au-* bilakera dugu: *aundi* ‘handi’; gipuzkerarekin bat egiten du ezaugarri honek.

- *-i*-ren ondoko *-t*-ren palatalizazioa ugaria da: *otture* ‘ohitura’, *parttitu* ‘partitu’; adibideen artean *eotten* ‘egoten’, *eramatten* ‘eramaten’ eta *ematten* ‘ematen’ topatu ditugu, alegia, *egoiten*, *emaiten* eta *eramaiten* forma zaharren aldaerak, baina ez da zabaltzen *izaten*, *esaten* bezalakoetara. Jakina denez, asimilaziozko palatalizazioa Euskal Herriko toki anitzetan gertatzen da eta, zehazkiago, Euskal Herriko erdiguneko eremu murrizteko bereizgarria da (Zuazo, 1998a, 201-202. orr.). Nafarroari dagokionez, ohikoa da Bortzirriak-Malerreka-Bertizarana aldean (salbu Etxalarren), Ultzaman eta Atetzen, Imotzen, Larraunen, bi Basaburuetan, Araitz-Betelun, Leitzan eta Areson, Goizuetan eta Aranon, eta Sakanan (salbu Burundan) (cfr. Olano, 1998, 106. orr.).

- Bokalarteko *r* > *d* bilakera ere partikularekin oso nabarmena da ondoko Areson, baina Leitzan ere kasuren bat aurkitu dugu: *zopa in de* ‘zopa egin ere’. Larraunen eta Araitz-Betelun ere badira adibideak, ziurrenik euskara giputzaren eraginez.

- Goi-nafarreraz arauzkoa denez, eta gorago hainbatetan ikusi dugunez, *-on* bukaera duten erdal maileguetan *-on* gorde da: *kajon* ‘kajoia’, *monton* ‘montoia’. Jakina denez, Nafarroa Garai gehieneko ezaugarria *-on* bukaera da (Zuazo, 1998a, 214. orr.; 2003, 111. orr.), eta isoglosaren muga Nafarroaren eta Gipuzkoaren artean kokatzen da.

3.2. Izen morfologia

- *-a* organikoa galtzea: *gauz oik* ‘gauza horiek’. Erdialdeko hizkeren ezaugarri hau bereziki emankorra da Malerrekan eta Bortzirietan, baina bertze hizkeretan ere gertatzen da. Zuazok euskara giputzaren ezaugarritzat hartu du *-a* berezkoaren egonkortasun-eza (1998a, 217. orr.). Bilakabide indartsua da Tolosaldeko hegoaldean, eta Goierrin ere bada, baina ahulago. Nafarroako Imotzen, Larraunen, Basaburu Nagusian, Araitzen eta Leitzan ere badira adibideak. (*cf.* Apalauza, 2012, 345. orr.).

- Destinatiboan *-rentzat* da morfema, erdialdeko eremuan ohi bezala: *gosarie denantzat* ‘gosaria denontzat’. Imotz eta Basaburu Nagusia trantsiziozune dira destinatibo-morfemari dagokionez: handik ekialdera eta hegoaldera *-tako* da nagusi, eta mendebalera, berriz, *-tzat* (*cf.* Olano, 1998, 136. orr.). Prolatiboari dagokionez, Euskaltzaindiak (1985, 447-450. orr.) bi balio bereizten ditu: ‘xedeia’ eta ‘ustea’. Xedeia edo helburua adierazteko Nafarroa gehieneko *-tako* ezaguna da.

- Hemen ere izenondoa *bat* zenbatzailearen ondoan ager daiteke: *kazul bat aundie patu* ‘kazuela handi bat paratu’, *usai bet goxoa* ‘usai goxo bat’.

- Euskaraz aditzondoak errepikatu egiten dira indartu nahi direnean. Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko hizkeretan mugagabeen edo partitiboan deklinatu ohi dira halako errepikapenak; aitzitik, euskara nafarraren eta Ipar Euskal Herriaren ezaugarria da errepikapenetan mugatzailea erabiltzea (Zuazo, 2003, 182. orr.). Kasu honetan partitiboa erabiltzen da: *busti-bustik* ‘busti-bustirik’.

3.3. Aditz morfologia

- **Edun* aditzaren iraganaldian pluralgilea *-z* da erdialdeko hizkeretan gertatzen den bezala. Imotzen, Basaburu Nagusian, Larraunen, *giñ-* eta *ziñ-* ohikoak dira, osotara, Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko hizkeretan (zehatzago *zin-* eta *gin-* ageri dira Ipar Euskal Herrian). Nafarroan barrena Aezkoaraino heltzen dira *ginduze*, *zinduze* tankerako aditzak (Camino, 1997, 184. orr.): *partitzen giñuzen* ‘partitzen genituen’.

- Bertzaldetik, **edun* aditzaren iraganaldia *-iñu* itxuran egiten da: *arropak patzen giñuzen* ‘arropak paratzen genituen’. Nafarreraren ezaugarri bateratzaile ez eksklusiboa dugu hau; alegia, iraganeko nor-nork aditz sailean nork pluralean *i-*agertzea. Ondoko Areson, aldiz, *-nd-* taldea dugu.

- Euskal Herriko erdigunean ohikoa den bezala, *-ten*, *-tzen* morfemak aditz partizipioari eransten zaizkio: *oztutzen* ‘hozten’ (*cf.* 1.3.). Horrez gain, *-du* partizipio analogikoaren erabilera Leitzako eta oro har erdialdeko hizkeren ezaugarria da: *izandu* ‘izan’, *egondu* ‘egon’, *yakindu* ‘jakin’, *bizittu* ‘bizi’ usu erabiltzen dira Leitzan (*cf.* Olano, 1998, 234. orr.).

- Leitzako testuan, partizipioetan *-a-z* gainera *-ta* nagusitzen da, *-rik*-en ordeztuz: *prepaatute* ‘preparatuta’, *pasatue* ‘pasatua’, *sartute* ‘sartuta’, *iñe* ‘egina’, *bi sardeetan patue* ‘bi sardeetan paratua’, erdialdeko hizkeretan gertatzen den bezala. Jakina denez, euskarak hiru morfema ditu partizipioak eratzeko: *-ta*, *-rik* eta *-a*. Hirurak baliatzen dira Imotzen, eta badirudi *-rik* maizago erabiltzen dela Imotzen eta Basaburu Nagusian, ondoko Larraunen edota Araitz-Betelun baino. Partizipioaren aldaketa graduala da, baina mendebalera egin ahala *-ta* ugaritu eta *-rik* urritu egiten da, eta alderantziz, *-rik* ugaritu eta *-ta* urritu egiten da ekialdera egin ahala. Azkenik, *-ak* morfema «izan» eta «egon» aditzekin ager daiteke, baina ez da ohikoa «eduki»-rekin batera agertzea.

- Azkenik, fonologiak eraginda, *zitziön* ‘zitzaion’ gisako adizkiak ditugu, Larraunen eta Basaburu Nagusiko iparraldeko herrietan bezala (Apalauza, 2012, 363. orr.).

3.4. Sintaxia

- *Egin* aditz indargarriaren adibideak badira: *eta gero itten giñuzen zerratu* ‘eta gero egiten genuen zerratu’; *ateri in bear izaten zien* ‘atera behar izaten ziren’, *ikatu itten nitzen* ‘ikaratu egiten nintzen’. Batzuk aditzaren aurretik doaz, eta bertze batzuk atzetik. Berriemaileei galdetuta ea ezberdintasunik sumatzen duten batetik bertzera, eta ezezkoa jaso dute beti (cfr. Apalauza, 2012, 388. orr.). Agian sintaxiaren aldetik aztertzea litzateke (Haddican, 2006). Honen hedaduraz (cfr. 2.3.).

- Denborazko esaldietan, *-nean* > *-nen* dugu: *txerrie oztutzen zenen* ‘txerria hozten zenean’. Ezaugarri honen bidez, Leitzako hizkera erdialdekoei hurbiltzen zaie, *-larik* morfema nafarrerazko hizkeren ezaugarri delako, gorago azaldu bezala.

3.5. Lexikoa

astontzi, *austontzie* ‘lixiba egitean, errautsa botatzen zen zapia’, *ateri* ‘atera’, *auspez* ‘ahozpez’, *gizenki* ‘gizenkia’, *kollatu* ‘izoztu’, *kuela* ‘upela’, *nabarra* ‘nabarra, kolore anitzetakoa’, *partittu* ‘banatu’, *puxke* ‘txerriaren odolkiak eta bertze’, *sabea* ‘saboia’, *sabeatu* ‘saboiatu’, *salmonera* ‘txistorraren masaren ontzia’, *ukullu* ‘ikuilu’, *urbil* ‘hurrengo’, *yaki* ‘janari’. Bertzaldetik, aditzondoetan *asko* dugu erdialdeko hizkeretan ohi den bezala. Nafarroan Basaburuan, Larraunen eta Leitzan hedatzen da; Nafarroako ekialdean *anitz* eta gainerakoak nagusitzen dira.

3.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak

Zuazok (2014, 113. orr.) erdialdeko euskalkiaren barnean, baina nafarreraren mugan paratu du hizkera hau. Kokapen hau zehazteko, honatx mendebal eta erdialdearekin lotzen dituzten ezaugarriak: *u* > *o* egiteko joera; *-a* organikoa galtzea; asimilaziozko palatalizazioa; *-rentzat* destinatiboan; **edun* aditzaren iraganaldia *-iñu* formarekin egitea; *-tutzen* erako aditz-izenak; partizipioetan *-a*-ren aldean *-ta* nagusitzea; denborazko esaldietan *-larik*-en ordeztuz *-nean* > *-nen* izatea. Bistan denez, erdialdeko eremura hurbiltzen dituzten ezaugarriak ugariak dira, baina ondoko Aresoko hizkerak erdialderago jotzen du; aldiz, Leitzak nafarrerarekin lotzeko ezaugarriak ere badira.

Hauek dira Nafarrerarekin lotzen dituzten ezaugarriak: *-on* bukaera erdal maileguetan. Hurbileko bokal asimilazio bizia, sinkopa kasuren bat, eta hitz hasieran yod fonema ahostuna da nagusi. Azkenik, lexikoan *kollatu* dugu, Baztanen eta Ultzaman bezala, eta nafarreraz ohikoago den *barren*, eta *ixtor* ‘iraztor’, ondoko Areson *garo* dugularik.

Bigarren maila batean, bertze ohar hauek ere nabarmendu behar dira: «partizipioa + *-rik*» egituraren arrastorik ez dugu aurkitu, nahiz Olanok (2000, 133. orr.) dioen «ongi bertakoa dela» eta «Leitzako kalean bertan arrunta izaten d[ela] oraindik»; azterturiko testuan aurkitu adibide guztiak bertzelako partizipioarenak dira. Gisa berean, adlatiboan *-ti* atzizkiaren arrastorik ez dugu aurkitu, baizik eta *-tik* kasu guztietan. Bukatzeko, atzera egiten ari den bilakabidea, alegia, $r > d$, ageri da hemen (*beide*), hiztun adintsuaren ahotan. Bukatzeko, testu honetan Zuazok (2014, 108. orr.) nafarreratzat ematen dituen ezaugarri hauek betetzen dira: 2.a eta 3.a. Bistan denez, eta testuaren mugak kontuan hartuz, izaera nafarra badu, baina lauso xamarra.

Alde etnografikoari dagokionez, lixiba egitea lan neketsua izaten zen etxeoandreedako; baina, aldi berean bertze emakumeekin egoteko eta herriko hikamika guztiez mintzatzeko aukera egokia ere bazen. Herrietako erreka bazterrak eta baita harraskak ere herriko emakumeekin betetzen ziren. Herri guztietan egoten zen harraska polita, iturriaren ondoan, eta hor belaunikaturik emakumeak garbiketan, ondoan esportak bete arropa zutela.

Lixiba hamabortz egunetatik behin gutxienez egiten zen. Argi azaltzen du Paulinak nola garbitzen zen arropa etxeetan urik ez zegoenean: etxean xaboitu eta harraskara eramanean, eskuz marruskatu, hedatu eta bildu. Xaboitu baino lehen errautsa botatzen zuten: ontzi batean arropa sartzen zuten, ondoren maindire bat edo lihoz eginiko arpila izeneko zapia ezartzen zuten eta haren gainean errautsa, eta gero ur bero beroa bota. Oso ongi garbitzen omen zen, hori baino lixiba garbiagorik ez zegoen. Etxeko haurrek anitzetan berriz ur hori aprobetxatzen zuten gero, han oinak bustiz eta garbituz.

Arropa asko garbitzeagatik eskuak larrutzen ziren, izan ere, lixiba egiteko errautsa erabiltzen zuten. Etxe guztietan horrela egiten zuten lixiba. Anitzetan larunbaterako erreserbatzen zen. Ibarrak (1997, 66. orr.). Mezkirizko esapidea biltzen du «Mari urdin bentako...lixue larunbatetako» eta jendearearen oroitzapenak biltzen ditu, oroitzen baitira eskuak nola ekartzen zituzten suminduak lixibarengatik.

Bertzaldetik, txerri hiltzea negu garaian egiten zen, eta hiruzpalau egun irauten zuen eta festa bat zen etxe guztietan, Auzokoak eta ahaideak lagun izaten ziren lan horretan. Goiz goizean egiten zuten lan hori gizonok, txerria hil eta larrua kixkortu ondoren, bi zatitan ireki, tripak atera eta puskatu eta zintzilikatuz gero emakumeen lan luzea etortzen zen: txistorrak, lukainkak, birikak, odolkiak eta urdaiazpikoak ateratzen ziren, urte guzira jakia.

Gero, odolkiak partitzeko ohitura zegoen etxez etxe, saski batean eramanean ohi zuten gihar pixka bat, odolkia, txistor bat eta urdai pixka bat etxez etxe banatzeko. Gero bertze auzokoek beren txerria hiltzen zutenean, ordaina banatzen zieten. Horixe izaten zen haurren lana, etxez etxe joatea saskiarekin. Jakina, apaizari eta maisuari puska ederra banatu behar zitzaion, «herriko autoritateak» zirelako eta zerririk ez zutelako.

4. LESAKA

Emakume hau 1916. urtean jaio zen Lesakako Bertizenea baserrian. 20 urte zituela Espainiako Gerra Zibila bizi izan zuen. Elkarrizketa egin zitzaionean 84 urte zituen. Ama ere lesakarra zen, baina aita beratarra. Eskolara oso denbora laburrean joan zen; beraz, helduaroan ikasi behar izan zuen gaztelaniaz, etxean euskaraz bertzerik egiten ez baitzen. Interesgarria da Oiartzungo frentearen pasadizoa, errepidea egin zutenei nola ematen zieten laguntza, errotak itxi eta artoarekin nola moldatzen ziren eta gerran izandako istripuaren sufrimenduez mintzo da.

Gerra kontuak familian

Gero gerra etorri zen, Españako gerra eta orduan baserrian giñen eta iraun zittun, nik eztatik, iru urte iraun zittun gerrak bai, nik nittun emeretzti urte, emetzi-ogei urte, bai, eta dena fuertza, ejerzitia dena, Endaltsako zubiya, Gipuzkuarakua in zuten bota eta gero pasatutzen zen nere erritik, Lesakatikan Aritxulegi aldera, Agiña aldera.

—*Oyartzunetik pasatzen ziren?*

—Oyartzunetikan, an zen frentia, Oyartzunetik ta onat eta yuaten zen nere anaia, azindak, itxian bai bagenittun beyak eta kañoyak ta eramttera, ez paitzagon karreterarikan oain bezala, eta azindak, baserriko azindakin eramtten zittuzten kañoyak eta manduakin ta orrela, ta gure beyakin, eta orrela...

Gerra ondoren

—*Zenbat anai joan ziren zure etxetik?*

Gerrara?

—*Bai, zenbat gizon?*

Bi, bi anai nittun, eta bertze anai ttikiyak ameka urte bakarra zittun oañikan. Biek gerrara yoan ziren, biño oso ongi egon ziren, bat trasmisionestan eta bertzia berriztik morterostan, ta etzuten tirurikan ere bota. Oso suerte ona izandu zuten, etziren erittu ta yousere eta orrela gerra akautu zalekan ez genun guk gerra denboran guk deusere izatten erriyan, ez musikikan eta ez deusere deusere, elkarrengana igandetan billu ta kantatu batzutan, ongi umorin giñelikan, dantzatu ta ola itten giñen pixko bat.

Oiartzungo karreteraz

—*Eta gerra ondun ze situazio geldittu zen Lesakan?*

—Gerran ondun, bo, errotak itsi zittuzten, gerra ondun txarrogua yanan gañin, ta guk artua bagenun, itten genun errotan arekin iriña, ta itten genittun boronak, opillak. Eta ekin eta gero karreterak itten asi zielikan, tor ziren trabajorik, gerra ondun, eta karretera in zuten Lesakatikan, pues, Gipuzkiño...

—*Oraingo karretera?*

—Bai oaingo karretera ori, eta pues ematten genion aunitzeri yatera, ta lo itteko tokiya ta ematten ginittion. Eta lenogo ez dut erran eriyak nola yautsizen zittuzten gure zubira.

—*Errazu orain, errazu bada.*

—Gero, ori, an frentia zelikan, pues eritzen zittuztenak yauntsitzen zittuzten Lesakara eta Lesakatikan gero Iruñerat eta Donostira do nora eran bar ziren, eramten zittuzten. Errittuk denak or, gure itxian eta bertze nere auzoko itxe onduan, erdiyin da karretera ta ura ararat yauntsitzen zittuzten, miño gaizki denak, iltzen ziren bidian, karruan, zera, bide txarra baitzen ekartzeko eriyak, bai eta gero pues, ola gerra ondun errotak itxi ta emen etzen deusere, etzen arrautzen deusere.

Ni espoteko prestatutzen asi nintzelikan, ez nun arroparik erosteko biderik deus izatten. Kar zittiazten Iruñitikan eta bertze familia batekin amistadia gunulikan, pues Bartzelonara yuan ta ek andik bi manyire, ta orrela pixkaka-pixkaka orrela, ta soña re kar ziaten, beltza arrautu nun Donostin; miño kolorazkia Bartzelonatikan familia orrek kar zian.

Gerran istripua eta haren ondorioak

—*Nola izena zun baserrik?*

—Baserrik, Xartenborda. Gero Leuntenera tor ziren errira, andikan ta erriyin zagolikan gerrara joan zen, eske nere anaian kintua zen, kinto bera ziren eta joan zen ta gerran erittu zen gizajua, bai kamion batetikan eztakit zenbat metro, ogeita eztakit zenbat metrotikan kamiona jua, eta ogeitabostik iru bakarra bizirik geldittu, ta bat izan zen Daniel, nere senarra.

—*Miño mutilatua zen, ez?*

—Gero, ordun geldittu zen mutilatua, ordun, anak puskatuk zittun, ta ordun ezpaiztittuzten oain bezala konpontzen, gaur baldin bazen ongi konponduko zittiozten, miño zurmiyurik gabe geldittu zen. Etzazken edozein ointoko ibilli, ez espartziñikan ta ez galtzerde konpondurikan ta ez deusere, ta zittun kostillak autsiyak, klabikula autsiya, egondu zen amalau illaute igeltsuan, gerriniko igeltsun, bai, eta igeltsua kendu bar ziotelikan, pues, sufrimentun galdu zittun larogeitamasei kilotik berrogeitamartara do eztakit zera etor zen, txupatu ta kendu ziotelikan, zera, eskayola, pues arek asnaya omen zun ta sartzen zun, ola flakatu zen, or uekua ta olibo adar bat ola asnaya itteko ta kendu ziotelikan, andre bat omen zen alarguna, pues arek artu guata multzo aundi bat eta palangana batin ura ta eztakit zer, arekin kendu omen, zorriya kapa bat iña barrena dena. Zorriyak yan zuten.

—*Horretaz flakatu zen, ez?*

—Bai, klaro, penitentzi ikaragarriya amalau illaute badakizu ta ala flakatu ta tokiya izaki ta olibo adar arekin asnaya itten men zun gizajua, ta monja arek guata artu ta onela raspatu men zion dena, zorriya dena zorriya.

Ta pasatu zen gero an bertan tifus, iguldik kus zittun... ta gero maingua geldittu zen, klaro, gaizki konponduk zittun, maingua aunitz sufritzen zun. Gero nozpattere mutilatua geldittu zen, ta nozpattere man zioten *mutilau de guerra* paga pixka bat, *Cruz de sufrimientos*, bai ori bai, oañikan bialtzen diate niri, ni alarguna, iltzen nere senarra ta bialtzen diate arena pixka bat, bialtzen diate.

Elkarrizketatua: Martina Picabea.

Elkarrizketatzailea: Argia Apeztegia.

4.1. Fonologia

- Bortzirietako hizkeran sinkopa egiteko joera arrunt indartsua da, eta gainera, Bortzirietako testu zaharretan agertzen da (Zelaieta, 2006, 234. orr.); gehienetan bokala galtzen da bi kontsonanteren artean dagoenean. Gure testuan aditzetako *-ten*, *-teko* aditz-izen mugetan agertzen da: *eramtten* ‘eramaten’, *esposteko* ‘esposatzeko’ eta deklinabide morfema hauekin ere: *-etan*: *trasmisionestan* ‘trasmisionesetan’, *morteroetan* ‘morterosetan’ eta hitz barruan ere: *ointoko* ‘oinetako’. Sinkoparen adibide dira, halaber, aditz nagusiaren mugan sortzen diren bilakabideak. Halakoak oso orokorrak dira gipuzkeraz (Goierri), eta baita bizkaieraz ere: *tor ziren* ‘etorri ziren’. Baina, bereziki indartsua da goi-nafarreraz, zaraitzueraz eta ekialdeko hizkeretan.

- *-ia* > *-iya*, Bortzirietako ezaugarri nabarmena: *eriyak* ‘erriak’, *tokiya* ‘tokia’, *ttikiyak* ‘txikiak’, *erriya* ‘herria’, *zorriya* ‘zorria’, eta Malerrekarekin isoglosa ezartzen duena. Ezaugarri hau berezkoa da Gipuzkoako eta Bizkaiko alderdi batzuetan eta baita Sakanan ere.

- *-e-z* bukaturiko lexemetan: *-eak* > *-iak* > *-ik* egiteko joera dugu: *trabajadorik* ‘trabajadoreak’. Honen hedaduraz (cfr. 1.1.).

- Inesiboan *-ian* > *-iyin*: *erdiyin* ‘erdian’, *erriyin* ‘herrian’. Aldaera hau Lesakan, Igantzin, Arantzan eta Sunbillan nagusi da, Beran eta Etxalarren, ordea, *mendiyan*, *erriyan* modukoak gailen dira. *-yin* erakoak, berriagoak, Oiartzunen ere badaude (Fraile & Fraile, 1996, 43. orr.). Bertzaldetik, *-ean* > *-ian* (*bidian* ‘bidean’) eta batzuetan *-in* bihurtzen da: *gañin* ‘gainean’; *-o* bokalarekin ere *-oan* > *-un* dugu: *ondun* ‘ondoan’, eta *-uak* > *-uk* ere bai: *erittuk* ‘erituak’.

- Maileguek bere horretan gorde dute *-on* bukaera: *kamiona* ‘kamioia’, baina ez da sistematikoa, *kañoiak* ‘kanoiak’ baitugu. Honen hedaduraz jakiteko (cfr. 3.1.).

- Hasierako *e* ixten da txistukarien aurretik: *itxin* ‘etxean’. Honen hedaduraz (cfr. 2.1.).

- Bustidura automatikoa ugaria da Lesakan. Ondoko Etxalarren ez dago horrelakorik. Beraz, haxe da Bortzirietako isoglosa esanguratsua. Aditz partizipioan agertzen da: *aittu* ‘aditu’, *prejittu* ‘frijitu’, eta hemen ere bada *izatten* ‘izaten’ (*izaiten* forma zaharren aldaera), *itten* ‘egiten itugu’. Honez gain, aditz pluralgiletan agertzen da: *zittuzten* ‘zituzten’, *nittun* ‘nituen’, *bagenittun* ‘bagenituen’ eta, azkenik, badago kontsonante asimilazioa eta bustidura ere: *billu* ‘bildu’.

- Bortzirietako ezaugarria da herskari ezpainkariak irristari bilakatzea. Horren ondorioz, *au* diptongoa sortzen da: *arrautu* ‘harrapatu’, *akautu* ‘akabatu’, *illaute* ‘hilabete’. «Badakigu Bortzirietan (Sunbillan eta Malerrekako toki batzuetan) silaba postonikoan herskari ezpainkariak irristari bilakatzen ahal direla: *akautu* ‘akabatu’, *eskautu* ‘eskapatu’, *arrautu* ‘harrapatu’, *irauzi* ‘irabazi’, *irautsi* ‘erakutsi’, *illaute* ‘hilabete’ eta *kalauza* ‘kalabaza’» (cfr. Zelaieta, 2005, 235. orr.).

- *-st* eta *-rtz* kontsonante pareari dagokionez, dardarkariaren taldea dugu hemen, alegia, *-rtz* nagusitzen da: *bertze* ‘beste’. Kontsonante talde hau ohikoa da, Lapurdin, Nafarroa Behereko hizkera batzuetan eta euskara nafarrean agertzen da, honako tokietan: Malerreka-Bertizarana aldean eta Basaburu Nagusitik ekialdera, Beintza-Labaienen, Saldiasen, Baztanen eta ekialdeko hizkeretan.

- Aferesia Lesakan oso emankorra ez bada ere, badira kasuak: *man* ‘eman’. (cfr. 1.1.)
- Bokalen arteko *d* kontsonantea erraz galtzen da, nork-nori-nor-en adizkietan agerian dagoenez: *diate* ‘didate’, *kar zaten* ‘ekarri zidaten’, *kar zian* ‘ekarri zidan’.

4.2. Izen morfologia

- Partitiboaren eta ablatiboaren gainean inesiboa eranstean da *-tikan* eta *-rikan* eginez: *tirurikan* ‘tirorik’, *musikikan* ‘musikaririk’, *Iruñitikan* ‘Iruñetik’, *ez espartziñikan ta ez galtzerde konpondurikan* ‘ez espartziñik eta ez galtzerdi konpondurik’, *Bartzelonatikan* ‘Bartzelonatik’, *metrotikan* ‘metrotik’, *oañikan* ‘oraindik’. Berrikuntza hau erdialdean aurkitzen dugu, batez ere Gipuzkoan, Basaburu Ttikian, Malerrekan eta Bertizaranan. Dena dela, *-tik* ere agertzen da noizbehinka: *Oyartzunetik*.

- Bortzirietan barreneko banaketa oso garbia dago, Beran eta Etxalarren *-rat*, *-ganat*, *-t(z)erat* daude aukeran, eta bertzeetan *-ra* da atzizki emankor bakarra (Zelaieta, 2005, 244. orr.). Honenbertzez, Lesakan, Norat-en forma fosilduak baizik ez daude: *ararat* ‘hara’, *onat* ‘honat’.

- Lehen graduko pluraleko erakusleak absolutiboaren formaren gainean eratuak dira analogikoki. Gorago ere ikusi dugunez, horrela gertatzen da Nafarroako erdialdeko hizkeretan, Basaburuan eta Imotzen, bertzeak bertze: *ekin* ‘hauekin’, *ek* ‘hauek’.

- Hirugarren graduko singularreko erakuslea *harek* eta honen eratorriak dira, nafarreraren eremu handian arauzkoa denez; genitiboan *arena* ‘harena’, sozietiboan *arekin* ‘harekin’.

- «*-en gainean*» postposizioa erabiltzen da zerbaiten inguruan mintzatzeko: *yanan gañin* ‘janariaren gainean’. Instrumentala erabiltzeko modu hau ohikoa da Euskal herri osoan. (cfr. OEH s. v. *gain*, 4. adieran); estandarrak alde batera utzi badu ere, kalkoa zelakoan.

- Ergatibo pluralean ez dago *-ak* / *-ek* bereizketarik, erdialdeko hizkeretan ohi denez: *zorriyak yan zuten* ‘zorriek jan zuten’.

- Hitz bukaeran *o > u* bihurtzen da, Bortzirietan ohikoa denez, kontuan hartuz *-oa > -ua* itxiera badagoela: *tirurikan* ‘tirorik’. Joera hau Araitz-Betelun, Basaburuan eta erdialdeko hizkeretan nabarmena da (Apalauza, 2012, 270. orr.); hedadura nabarra da, baina Gipuzkoako eremuan ohikoak dira honelakoak. Baztanen, Bortzirietan, Malerrekan (cfr. Zelaieta, 2004, 237. orr.) eta Iparraldean ere joera indarrean dago sudurkarien aitzinetik dagoenean bereziki.

4.3. Aditz morfologia

- Bortzirietan eta Malerrekan ohi denez, *-i-z* eta *-tu-z* bukatutako partizipioaren gainean sortzen dira aditz-izenak: *prestatutzen* ‘prestatzen’, *yautsitzzen zittuzten* ‘jausten zituzten’, *pasatutzen* ‘pasatzen’. Honen hedaduraz (cfr. 1.3.).

- *-du* partizipio analogikoa dago: *izandu* ‘izan’, *egondu* ‘egon’. *Suerte ona izandu zuten* ‘suerte ona izan zuten’. (cfr. 1.3.).

- Nork-nori-nor adizkietan pluralgilea *-it-* da, oraingo joera eremu honetan *-zki-* erabiltzea bada ere Gipuzkoan eta erdialdean bezala (cfr. Zelaieta, 2008, 138. orr.): *ematten ginittion* ‘eramaten genizkion’, *kar zittiazten* ‘ekarri zizkidaten’, *konponduko zittiozten* ‘konponduko zizkioten’.

- *Egin* aditz indartzailea aditz nagusiaren aurretik kokatzen da, erdialdeko hizkeretan arauzkoa dena: *Gipuzkuarakua in zuten bota* ‘Gipuzkoarakoa egin zuten bota’ (cfr. 2.3.).

- Aditz sintetikoen iraganean *a* euskara batuko eta bertzetako *-e-*ren orde: *erriyin zagolikan* ‘herrian zegoelarik’, *ez paitzagon* ‘ez baitzegoen’. Imotzen, Basaburu Nagusian, Atetzen eta Ultzaman aurkitu da ezaugarria (Ibarra, 1995, 503. orr.), eta *a* zein *e* nahaska Larraunen. Nafarroa Garaiko toki anitzetan ere ageri da.

4.4. Sintaxia

- Denborazko morfema *-likan* ‘-larikan’ da, Bortzirietako hizkeran ohi den bezala. Gorago azaldu denez, *-ik(a) > -ikan* gertatu da nola Nafarroako Bidasoaldean hala Euskal Herriko erdigune zabalean, partitiboan, ablatiboan, motibatiboan, kontzesio perpausetan eta modu-denborazko perpausetan: *amistadia gunulikan* ‘amistadea genuelarik’, *umorin giñelikan* ‘umorean ginelarik’, *asi zelikan* ‘hasi zelarik’, *frentia zelikan*, ‘frentea zelarik’, *akautu zalekan* ‘akabatu zelarik’, *zagolikan* ‘zegoelarik’, *familia batekin amistadia gunulikan* ‘familia batekin laguntasuna genuelarik’.

- Kausazko perpausak *bait-*ekin osatzen dira: *ezpaitzagon karreterarikan oain bezala* ‘ez baitzegoen karreterarik orain bezala’, *bide txarra baitzen ekartzeko eriyak* ‘bide txarra baitzen ekartzeko eriak’, *ordun expaitzittuzten oain bezala konpontzen* ‘orduan ez baitzittuzten orain bezala konpontzen’.

- *Eman* aditzarekin *-tzera* nominalizazioa aukeratzen da, goi-nafarreraz ohikoa den bezala: *ematten genion aunitzeri yatera* ‘ematen genion askori jatera’. Ezaugarri hau ekialdeko euskalkien bereizgarria da, nahiz GN iparralderaino hedatzen den. (cfr. 2.4.)

- «Partizipioa + *ki*» egitura arrunta da Bidasoaldean: *ta hala flakatu ta tokiya izaki ta olibo adar arekin* ‘eta hala mehetu eta tokia izan, eta olibo zahar harekin’. Baztanen eta Bortzirietan maiz agertzen da *jakin*, *izan*, *joan* eta *egon* aditzekin; moduzko eta kausazko erranahia du, nahiz anbiguo xamarra den. Euskara nafarraren eta nafarlapurtarraren ezaugarritzat hartu du Zuazok (2008, 206. orr.), baina eremutik kanpo Nafarroako hego-mendebaleko hizkerak (Araitz, Larraun, Sakana) eta ekialdekoak (Zaraitzu eta Erronkari) daude. Hiru erabilera nagusi ditu: perpaus oso bat hanpatzeko, puntukaritasuna adierazteko eta diosal egiteko.

4.5. Lexikoa

Ameka ‘hamaika’, *asnaya* ‘azkurea’, *aunitz* ‘anitz, asko’, *borona* ‘artoz egindako opil mota bat’, *erittu* ‘zauritu’, *flakatu* ‘mehetu’, *zurmiyua* ‘txurmioa, orkatila’.

4.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak

Lesakako testuan, Bortzirietan ohikoa denez, ia ezaugarri eskusiborik ez dago (cfr. Zelaieta, 2010, 127. orr.). Era laburrean, fonologian, *-ia* morfema mugan kontsonante

anihiatikoa sartzen da, *-iya* bihurtuz, Bidasoaldean eta ipar-sartaldeko nafarreran gertatzen den bezala: *poliziya* ‘polizia’, *txikiya* ‘txikia’, *mendiya* ‘mendia’, *erosiyak* ‘erosiak’. Aditz trinkoetako iraganean *a* dugu *e*-ren ordean, horrez gain, *-ki* aditz atzizkiarekin hornituriko partizipioak ditugu, Bidasoaldean arrunta direnak, eta euskara nafarreraren eta nafar-lapurteraren ezaugarri nabarmena.

Horrez gain, denborazko esaldietan *-likan* ‘-larikan’ dugu, Malerrekan, ordea, *-nean* da nagusi. Bortzirietako Lesakan *-rat* morfemaren forma fosilduak agertzen zaizkigu adlatiboan, eta erakuslearen genitiboko forma *aken* ‘haien’ dugu, nahiz forma hori Malerrekan bakarrik kokatu ohi den. Bertzaldetik, Lesakan nahiz eta *-tikan* forma dela nagusi erraten den (Zelaieta, 2008, 105. orr.) testu honetan ikusten dugu *-tik* ere entzun daitekeela: *Oyartzunetik*. Testu honetan Zuazok (2014, 108. orr.) nafarreratzat ematen dituen ezaugarri hauek betetzen dira: 1.a. 2.a eta 8.a. Honen arabera, izaera nafarra badu.

Alde etnografikoari dagokionez, jakina da Oiartzun eta Lesaka elkartzan dituen mendiko errepeidea nahiko berria dela; Gerra Zibilaren ondoren, frankismoak preso izan zituen errepublikanoek eraiki zuten (1940-43 artean). Frankisten zaintzapean, baldintza kaskarretan eta pikatxoien laguntza bakarraz mila preso baino gehiago aritu ziren errepeide horretan lanean. Helburua zen mugak indartzea eta 2. munduko gerratearen eragina ez kutsatzea, mugaz honunzko lurretan. Oso baldintza gogorretan aritu ziren, barrakoietan lo, janari guti eta zigor fisiko handiekin. «Uno de los castigos que recibían los prisioneros era atarles un saco de terrero de 50 kg y tenían que trabajar picando con el saco a cuestras» Organero (2015, 1. orr.).

Asturiar, valentziar eta kataluniar ugari aritu ziren, baina euskal herritar gutxi, bizkaitarren bat bertzerik ez. Organerok (2015, 1. orr.) liburuaren aurkezpenean horrela dio:

La obra navarra fue una de las que más prisioneros se usaron en su construcción, además de ser también una de las más largas de la zona. En Lesaka llegaron a trabajar cerca de cinco mil prisioneros, de los cuales casi quinientos eran de Toledo, exactamente 467, 185 de Badajoz y 104 de Madrid. Trabajaban con la Unidad de Trabajos Forzados que funcionó hasta 1942 en España, ya que después de la Guerra Civil se siguió usando mano de obra republicana.

Frankismoaren irizpideen arabera garrantzirik gabeko errepublikazaleak ziren guztiak, garrantzitsuak espetxean baitzeuden edo hilik. Bizi izan zutena hiru hitzetan honela laburbil daiteke: «Gosea, hotza eta diziplina». Bidean zehar barreiatuak zeuden barrakoi edo etxoletan bizi ziren, Arritxulegin, San Antonen, Aginan, Endainian, Zalaburun... guztiak alantze sarean erabat inguraturik.

5. LINTZOAIN

Gabrielek 85 urte zituen 2001. urtean grabaketa egin zitzaionean. Herrian sortu eta han bizi izan zen bizi guzian. Euskara hoberen gorde duen erroibartarra dugu gizon hau, xaloea eta jatorra. Herriko bertze gizonekin egiten zuen euskaraz ahal zuenean, soldaduska garaian izan ezik. Elkarrizketa honetan kontatzen du eultziko lana nola egiten zen behorrekina eta estraziekina larrainean; ikatza nola egiten zuten eta Iruñera

Sanfermingo feriara oinez nola joaten ziren gauetz. Lintzoaingo kuxeta egileen berri ematen du, herri horretan eta ondoko Mezkitzen Erroibarko azkenak gelditu baitziren.

Eultziko lana egiten eta kantuz...

—*Lehengo obiturak ere galdu dira?*

—Emen lenago bazire yendiak eta kantatzen zuena uskera, ta baze gizon bat, erri ontan, amar mandamentuek iten tzitue kantatu uskeraz ta aldi batez suertatu zen Zilbetin, ta bertze gizon batekin errondan ta aize kantatzen mandamentu oyek. Orduan apeza ze Leizekoa, nonbait aitu zue ta apez goi atra zitzeyo bidera, bidera atra ta gero orrek kantatu ta arek eskribitu in omen tzitue. Ta ultziek iten tzire, *parvas*, garie ta biltzen tze lenago emen, ta larrañetan iten tze ultzie erraten dena, estraziekin te beorrekin te idiekin te, gizon goiek aitzen tzire gizona zar gaiek kantuz asten tzire, iñalakin kantuz egun guzian.

Lehenagoko heziketa eta oraingoa: eskola gehiago baina edukazio gutxiago.

Or goian eztuzu ziztuz ere aitzen nior, oraingo gazteak bezalakoek eztut ikusi nik, orain eztute... eskola yago oi izein dute, baña edukazio gutiago. Zuek lenago zu bezalako... tratatzen zen maneran zuri te sekretarioi ta apezai te ori, orai ezta distintzioik. Ori kusiko duzue. *De usté* eiten tze denei oyei! Orai eztait, ondolik pasten die ta ez dute yardukitzen! Oyek sartiko nituen nik lekuetian obligatzen direna eta yardukitzera, biar tuztena gauza guziak eta aski ute yardukitzea eta konsegitzeko, ola biar tzute egin oyei. Ola ez [...] yardukitzen duen yendia entendatzen duzu beña eztuena iten eztuzu entendatzen al.

Ikatzari buruz

—*Ikatza egiten zenuten, karbonerak?*

—Karbonera? A! Ikeztogie? Gero iten tzute erri ebetan Eugin, Zilbetin iketza, ta artaik bizi ziren, iketzetik, beño gero debekatu zute, debekatu badakizu zer den? Ta, ara or, ortaik bizi zire familiek.

—*Zu aritu zara ikatz egiten?*

—Aitu naiz iketz oekin denbora puxketez, baña eztakit nik iten, Isaakek bazekie, Isaakek artzen tzitue lotiak iteko.

Herriak hustu, ezkontzarik ez

Luzaide ai men da gelditzen yendeik kebe, bai emen, Luzaidetik tortzen da mazte bat ta nere, orrekin, alabaikin ezkondui tagon orren ama, ta ola ai omen da gelditzen, sosaik guti batzuk il dire lenago. Orai etxeak utsik, errien erdie utsik dagola erran direte.

Or badire yende anitz etzaiotenak inporta desposatzia, ta or ola pastu de. Yagozik Gereñiñe, eztu urrun joan bearrik, Gerein errien erdie utsik dago, ta etxalde obenak. Palaziano, Palazianoñan izen dire bier sei o zortzi aurride, intzute zarrena etxeko baitu labetan oeite bederatzi urte sorik baitu, ta or dao donado, bertzeat Berrañonian eta iruetan oitemabortz urtetan o labetan oeitamabortz urtetan iltze, arrek nai men tzue

esposatu erriko neskatekin ta aitek eta amak ez utzi te etze esposatu, ta ola geldituire, or, esposatu direnak dire pobriak, ondasunak zuztenek ez! Ta orra etxe oek denak orra, gelditzen ai dire! Palazianoña bera, Arimeleko finkek eta baitu etxe ondoan ta ola, pues bi anaia gelditzen dire, biek jubiletui taude, oi oi etxe oek *a pike* joain dire.

Anso desaparezitu ze, neskak gelditu ze, eztaiz nora eaman tzuten, bueno, Lapaxtorra berdin. Geo Migelikoñan ere gazte bat bada, baitu labetanoeitebi urte. Errien o mendien ondoan bada bertze etxe bat...maztia izein zen? ta bizi de bere arrebaikin.

Iruñera oinez joan

—*Nola joaten zineten Iruñara?*

—Oñez! Oñez! Bai. Ze... oi, oi! Denborartan ezginue ez eta... minik zangotan. Ni oñez joan naiz Iruñera frankotan, beño joaten gine aziendekin, San Fermintera, azienda, feria. Orduan joate gine gabaz, emendik atratze gine ilunian ta argiesteko arara, Iruñera. Zenbait aldiz eta denbora onaikin te bertze zenbait aldiz euria ai zuela. Izen neiz Ugerten eta sarmento oyekin sekatzan arropa. Aldi betez, orai ertxita dao, ola errateunte *El Molino de Urdániz*, pues or, asi zue eurie, ta emate gindue berendu pisket, ta iñarginduela... ta bazute estalpe bat, ta an, ta asi gintue sartzen arara zaldiekin ta zaldie gelditu ze ta etzue joan nai altzine, orduen biztu nue metxeroa ta bazue putzubet eta an, pues ez balin, ez balinbeda gelditzen zaldi ure antxe joaten naiz putzu artara! Bai.

Kuxeta egileak eta erretzaileak

Emen lenagoko gizon zar gaiek, e, ta bazire kuxetaileak, kuxetak iten tuztenak zurezkoak bo, ezpelezkoak, orduen ayek kamioneta oetaik tortzen zuelaik olaxeko paketatzuk artzen tuzte, oetaik *colilla de puro*, eta bi sos, iru sos, ori. Fumetzen tuzte ta oaño kolille, pareta zilo atian paratzen tzute, ta denak akabatzen tuztelaik kolille aiek dexente berriz, ayek fumatu. Ta or zarborratuik il tzire! Zar... ya ezleike ortik altziñe paratu.

Neri tokatu zaide, orai eztut iten ori beizik, baña len eta... gerran ee tokatu zekire, gerran aindu zire Madriden, ta igortzen tzute tabakoan airera? Ta, gerran, eunes zaude iretzarrik ta gabas oñiauzu igual guardien, ta guardietik atratzen zarelik eta ola zigarrok ittea pues ori... Gerra denborako torri zire ori, *hebra* oi, len iñartzue tzigarroa. Nik, eta amabortz urte ni... amairu urte nituelaik joate nitze meza launtzera apezai, aste guzien, ta, ta pagatzen tzire iyendian zortzi sos, ta paketeat baliozue amar sos, orduetik asi nitze amairu urte nituelaik. Ta neri, tabakoen gisen, eztire niorek ikusiko eztulke, eztut eztulik iten nik. Ez, ez. Ez, ez, ez... lkusitut nik gizonak emen erri ontan, or benta oi baitego, erri or... karretera ondortan, bazire naibezu fumezaleak, goizian yaikitzen tzire ta artzen tzute basoat kafe arture ta zigarroat, akabatu artio zigarro ure lerriteko eztulka asten tzire, ola, olan enit [...] nik, gise ortan ez, ez baitire eztulik maten pues iten dut. Gero pipetekin iten dut, onekin, ta emen paratzen diot goata puskat, kentzen dio pozoñik andiena...

Elkarrizketatua: Gabriel Soto.

Elkarriztatzailea: Peña Perez Salcedo.

5.1. Fonologia

- *i* eta *u*-ren ondorengo *a* bokala *e* bihurtzen da. Oso joera bizia da GN hegoaldekoan eta eremu honetan. Hauek dira ingurune morfofonologikoak. Hitz barruan: *izen* ‘izan’, *Ugerten* ‘Uarten’, *ure* ‘hura’, *fumezaleak* ‘erretzaileak’, *-a* mugatzailearekin: *zaldie* ‘zaldia’, *gise* ‘gisa’, *kolille* ‘kolilla’. Inesiboarekin: *errien* ‘herrian’, *mendien* ‘mendien’, *guardien* ‘guardian’, *-ra* adlatibo morfema eranstea: *Gerein*, *Gereiññe* ‘Gerendiainera’, eta *bat*, *(e)ta* eta *gabe* hitzekin ere bai: *putzu bet* ‘putzu bat’, *estraziekin te beorrekin te* ‘estraziekin eta behorrekin eta’, *yendeik kebe* ‘jenderik gabe’. Jakina denez, *a > e* asimilazioa bizkorra eta indartsua da Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeretan, Basaburu Nagusian, Imotzen, Ultzaman, Baztanen (Apalauza, 2012, 238. orr.); alabaina, bada aldea herrien artean. Badirudi, ordea, bilakabide oso berria dela *a > e* asimilatzea, Nafarroa Garaian behinik behin (Ibarra, 2003, 358. orr.), Erroibarko testu zaharretan ez delako hain usu agertzen. Nafarroako alderdi zabal batean bada edo izan da ezaugarri hau, baina baita Nafarroaz gaindiko bertze hainbat lekutan ere. Zuazok Hego Euskal Herriko ezaugarritzat hartu du (2008, 239-240. orr.), eta haren erabilera-eremua zehaztu du ia Bizkai osoan, Arabako eremu euskaldunean, Gipuzkoako hegoalde osoan eta Nafarroa Garaiko eremu zabalean erabiltzen da.

- Hasierako *e*- aferesiz galtzea joera orokorra da eremu honetan: *torri* ‘etorri’, *maten* ‘ematen’ (Ibarra, 2000, 50-51. orr.). Honen hedaduraz (cfr. 1.1.).

- Sinkopak bizitasuna du: *atratze* ‘ateratzen’. Erran dugunez, oso joera bizia da GN hegoaldekoan eta ekialdeko hizkeretan, aezkeraz, zaraitzueraz eta erronkarieraz (cfr. 4.1.).

- *ea > ia > ja* diptongatzea ohikoa da, silaba bakar batean ahoskatuz, *semiak* ‘semeak’ bezala: *lotiak* ‘loteak’, eta baita *eu > u* monoptongatzea ere: *ultzie* ‘eultzia’. Jakina denez, Nafarroako bereizgarria da goranzko diptongoen ugaritasuna: goi-nafarreraz, baztaneraz eta baita Sakanan ere hedatzen da.

- Etxe izenetan, *-rena* morfema *-ña* bilakatzen da, *-rena > -*reina > -iña > -ña*: *Palazianoña* ‘Palazioarena’, *Migelitoña* ‘Migelitorea’. Neurri handi batean Aezkoakoen desberdin xamarrek dira, Aezkoan hartzen diren atzizkiak *-ena*, *-eina* eta *-koa* baitira (Camino, 1997a, 110. orr.).

-Bokal arteko *-b*-ren galera ohikoa da *bat* zenbatzailea eranstea: *puskat* ‘puska bat’, *zigarroat* ‘zigarro bat’, *neskat* ‘neska bat’, *pipetekin* ‘pipa batekin’. Joera hedatua da nafarreraz (cfr.1.1.).

- *-st-* eta *-rtz-* aukerari dagokionez, aldaera dardarkaria dena nagusitzen da, goinafarreraz ohikoa denez: *ertxita* ‘itxita’, *erran* ‘esan’ (cfr. 4.1.).

- *Egin* eta *egon* aditzak *behar* modalarekin elkartzerakoan *iñar*, *oñiar* taldeak sortzen dira, hurrenez hurren. Erroibarko bilakaera berezia dugu hau: *iñar ginduela* ‘egin behar genuela’, *iñar tzue* ‘egin behar zuen’, *oñiauzu* ‘egon behar duzu’.

- Jakina den bezala, goinafarrera hegoaldeko eremuan aldea dago leku batzuetatik bertzeetara, eta eremu honetan *i*-ren ondoan palatalizatze joera ez da oso handia: *gine ilunian* ‘ginen ilunean’, *mutile* ‘mutila’, *minik* ‘minik’, *altzine* ‘aitzina’.

- *-n-z* bukatzen diren partizipioei *-en* geroaldiko morfema eranstea *-ain* formak sortzen dira: *joain* ‘joanen’. Etorkizuneko morfema *-en* izatea *-n-z* bukatzen diren aditzetan (eta hauetan bakarrik) nafarreraren ezaugarri bateratzaile bat da Iparraldeko hainbat lekutara ere hedatzen dena, nahiz ekialderago *-i* eta are *-tu* partizipioak ere hartzen dituen.

- *Yod* zaharraren burutzapena *y* igurzkaria da, goinafarreran eta ekialdean bezala: *yardu*, *yaiki*, baina belarea ere badago: *joan* ‘joan’. Honen hedaduraz jakiteko (cfr. 3.1.).

- *uli* aldaerak direla eta, *i* dugu *zilo* ‘zulo’ hitzean, eta, horrez gain *tu-z* bukatutako aditzetan, + *-ko* geroaldiko morfema (*-tuko*, *-tiko* > *-tiko*, *-diko*): *sartiko nituen* ‘sartuko nituen’. Aldaera hauek nagusi dira baztaneraz eta Nafarroa Garaiko erdialdean. Oro har, Caminok erraten duenez (2004, 71. orr.), Iruñetik goiti dauden ibar batzuetan erabiltzen da: Txulapain, Ezkabarte, Odieta, Ultzama, Imotzen (Muskitzen, Oskotzen eta Etxalekun), Anue, Baztan, Esteribar eta Erroibar ibarretan. Iparraldean ere badira arrastoak, Epeldek (2003, 277. orr.) dio Hazparneko hizketa laxoan inoiz aditu duela *-tiko*.

- Hitz hasieran *b-* herskari ahostuna nagusitzen da *p-*ren aldean, ohikoa den bezala Erroibarren: *bixtu* ‘piztu’.

5.2. Izen morfologia

- Goinafarrera eremu handian bezala *artio* da hemengo postposizioa: *akabatu artio* ‘bukatu arte’. Ekialdeko hizkeretan, goi eta behe-nafarreraz, eta lapurteraz ere hedatzen da. Nafarroako Basaburu Nagusian ere badira *artiño* modukoak, eta Larraunen bakanen bat, baina handik mendebalera *arte* ageri da.

- Erakusleetan *g-* protetikoa dago. Sortaldeko azpieskalkien ezaugarria, Erroibarren (cfr. Ibarra, 2000, 129. orr.) txandaketaz betetzen dena: *apez goi* ‘apaiz hori’, *gizon zar gaiek* ‘gizon zahar haiek’. Aezkeraz ere gertatzen da (Camino, 1997b, 410. orr.), erdialderago joan ahala galtzen doa. Bertzaldetik, *ebek* da lehen graduako pluraleko erakuslea Erroibarren: *erri ebetan* ‘herri hauetan’.

- *Nior* izenordaina nagusitzen da goinafarreraz, ekialdeko hizkeretan, eta baita lapurteraz ere, ohikoa den bezala: *niorek* ‘inork’.

- Adlatiboan forma pleonasmotua sortzen da erakusleetan, Erroibarko euskaraz ohikoa dena: *asi gitue sartzen arara* ‘hasi ginen sartzen hara’. Berrikuntza hau Zaraitzun, Erronkarin eta Aezkoan agertzen da, ez dago **etxerara* moduko adibiderik.

- Soziatiboak *-aikin* bukaera du singularrean: *arribaikin* ‘arrebarekin’. Halako formak badira Nafarroa ekialdeko hizkeretan, Erroibarren, Artzibarren eta Aezkoan, eta baita Larraunen ere, bakanka.

- Ablatiboan, erakusleetan *-rik* dago: *hortaik bizi gine* ‘horretatik bizi ginen’. Mugagabea eta pluralean *-etatik* dugu, Imoztik mendebalera baita Basaburu Nagusian ere eta orobat, mendebaldean eta erdialdean. Honen hedaduraz (cfr. 1.2.).

- *-tan hoge* egitura erabiltzen da *hogeiren* multiploekin. Ezaugarri hau nafarreraren eremu handian gertatzen da. Horrez gain, *laur* zenbakiaren *r* galduta *au* diptongoa kontsonante bihurtu da: *labetan hogeite* ‘laurogei eta’.

- Instrumentalean *-s* da erabili ohi den morfema: *eunes zaude iretzarrik* ‘egunez zeuden esnatuta’. Baina, txandaketaz betetzen den fenomeno da hau Erroibarren eta Esteribarren. Hala ere, isoglosa iraunkorra da, alegia, zeharo betetzen ez den bilakabidea da honako hau, txandaketa zegoen lehenago eta orain ere bai Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra, 2000, 103. orr.). Txistukari apikaria erabiltzea euskara nafarreraren ezaugarritzat hartu du Zuazok (2003, 111. orr.); ondoren Caminok (2003, 86-87. orr.) zuzenago irizten dio Nafarroako erdiguneko hizkeren ezaugarritzat hartzeari.

5.3. Aditz morfologia

- Iraganaldiko azkeneko *-n*-ren galera ohikoa da Erroibarko hizkeran, baita Artzibarren, Esteribarren eta ondoko aezkeraz ere: *asi nitze* ‘hasi nintzen’, *asten tzire* ‘hasten ziren’, *gelditu ze* ‘gelditu zen’, *asi gitue sartzen arara* ‘hasi ginen sartzen hara’, *bazekie* ‘bazekien’, *zaude* ‘zeuden’. (Ibarra, 2000, 179. orr.).

- Iraganaldian nor-nori paradigmaren *-ki-z* osaturiko formak ditugu, alegia, **edin* aditz laguntzailearen formak: *tokatu zekire* ‘tokatu zitzaidan’. Jakinaenez, gertakari hau Nafarroa Garaiko erdiguneko hizkeretan bildu da: Imotzen, Sakanan, Burundan, Atetzen, Ultzaman, Odietan, Anuen, Esteribarren, Erroibarren, Artzibarren, Txulapainen, Goñerrian, Eguesibarren, Oltza zendea, Garesen, Gesalitzen eta Ezkabarten, baina honelako aoristo arkaikoaren datiboko forma fosilduak badira hortik kanpo ere (*cf.* Lakarra, 1996, 178. orr., 49. oh.; Ibarra, 2000, 180. orr.).

- Nork-nori-nor paradigmaren, singularreko 1. pertsonari dagokion datiboko morfema *-da* (> *-ide*, *-ire*) da, *-t*-ren ordez: *ez baitire* ‘ez baitit’, *pagatzen tzire* ‘pagatzen zidan’, *eztire niorek ikusiko* ‘ez dit inork ikusiko’. Caminok (2003, 88-89. orr.) Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarritzat jo du *-dal-ra* edo *-del-re* morfema, baina hedadura zabalxeagoa da, adibideak agertzen baitira baita Basaburu Nagusian eta Larraunen ere. Nafarroa Behereko Baigorriara orduko, *-t* ageri da (Apalauza, 2012, 389. orr.).

- Erroibarko eta Esteribarko hizkeran ohienez (*cf.* Ibarra, 2000, 186. orr.), *di-*galtzen da eta horregatik hitz hasieran **edun*-en laguntzaileetan *t*-dunak ditugu, bustidurarik gabekoak: *tuzte* ‘dituzte’, *ikusit tut* ‘ikusit ditut’, *kuxetak eiten tuztenak* ‘kuxetak egiten dituztenak’.

- Goinafarreraren eremu handian ohienez, nork-nori-nor paradigma erabiltzen da nork-nor paradigmaren ordez *ikusi* aditzarekin; adibidez, *eztire niorek ikusiko eztulke* ‘ez dit inork ikusiko eztulka’. Erroibarko testu zaharretan badira nork-nor-en adibideak (*cf.* Ibarra, 2000, 156. orr.) adb. *bota nazucie*, *uz nazazu*, *eraman zaituzte*, baina XX. mendean ia ez zen arrastorik gelditzen.

- Ekialdeko hizkeretan gertatzen den bezala, askatasun handia dago *behar* aditz nagusiaren ezkerrean jartzeko, fokoa denean. Erroko testu zaharretan ere erabilera

hau agertzen da. Testu honetan ere horrela gertatzen da: *ola biartzute egin oyei* ‘horrela behar zuten egin horiei’ (cfr. Ibarra, 2000, 196. orr.).

- Partizipioetan *-rik* nagusitzen zaie *-ta* edo *-a-ri egon* aditzarekin, Aezkoan eta Nafarroa Beherean bezala: *eunes zaude iretzarrik* ‘egunez zeuden esnatuta’.

- Ahaleraren orainaldian *-tzen ahal* egitura da nagusi, baita ezezko perpausetan ere, *ezin*-en ordeztzen baita: *eztuzu entendatzen al?* ‘ez duzu entenditzen ahal?’ Egitura hau arauzkoa da Erroibarren eta eremu zabalagoan ere: «Desde la segunda mitad del s. XVII aparece en autores suletinos *-t(z)en ahal dut* (*nuen*, etc.); a partir de mediados del XIX se extiende a otros autores septentrionales, y su uso se hace gral. y dominante al Norte, aunque sin llegar a desplazar a *ekar ahal dezaket* (*nezaken*, etc.)» (OEH, s. v. ahal I 1.A).

- *-tzen + dute* loturetan *-unt*, *-unte* bezalako formak sortzen dira, laburdura eta metatesia dituztenak: *ola errateunte* ‘erraten dute’. Fenomeno hau aditz nagusia eta **edun*-en orainaldiko laguntzaileak elkartzearen ondorioz gertatzen da, txandaketaz betetzen bada ere (Ibarra, 2000, 86. orr.). Erroko testu zaharretan ez da agertzen, baina bai azken hiztunen grabaketetan (Artola, 2016). Goinafarrera iparralderaino, Ultzamaraino eta Bortzirietaraino hedatzen da fenomenoak, eta desagerturiko goinafarrera hegoalderaino ere bai. Erraterako, Artzibarren, Elkanon, Garesen, Oltzan eta Gesalaten nagusi zen (cfr. Salaberri, 1996, 27. orr.).

5.4. Sintaxia

- Erlatibozko zein kausazko perpausak *bait-* morfemarekin eraikitzen dira, goinafarrera hegoaldekoan ohienez: *ez baitire eztulik maten* ‘ez baitit eztulik ematen’, *benta or baitego* ‘benta hor baitago’. Bi erabileroz hedadura zabala dute Nafarroan (Camino, 2003, 83. orr.) bertzeak bertze, Nafarroa Garaian, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen.

- Denborazko perpausak *-larik*-ekin osatzen dira: *amairu urte nitualaik joate nitze meza launtzera apezai* ‘hamahiru urte nituelarik joaten nintzen meza laguntzera apezari’, *atrutzen zarelik* ‘ateratzen zarelarik’.

- Gorago erran bezala, (cfr. 2.3.) adiera indartzailean *egin* aditzari dagokion partizipioa bi modutan agertzen da, «*egin + aditz laguntzailea*» multzoaren aurrean eta atzean: *iten tzitue kantatu uskeraz* ‘egiten zituen euskaraz kantatu’, *eskribitu in omen tzitue* ‘idatzi egin omen zuen’.

- *Behartu*, *obligatu* eta adiera bertuko aditzekin, *-tzera* nominalizazioa eskatzen da. Ezaugarri hau Ultzamaraino hedatzen da: *obligatzen direna eta yardukitzera* ‘obligatu didana eta jardukitzera’, baita Lesakaraino ere (cfr. 4.4.).

5.5. Lexikoa

altzine ‘aurrera’, *donado* ‘mutilzaharra’, *estrazie* ‘arrastelua’, *etxalde* ‘nekazaritzako edo abeltzaintzako lurrak dituen etxea, familia bat bizi dena’, *iretzarri* ‘esnatu’, *kusina* ‘lehengusua’, *kuxeta* ‘koilarea’, *kuxetabilia* ‘koilara egilea’, *sosa* ‘dirua’, *yagozik* ‘adibidez, erraterako’, *yarduki* ‘mintzatu’, *zango* ‘oina’, *zarboratu* ‘zaharkitu’.

Bertzaldetik, hauek dira erabiltzen diren aditzondoak: *lerriteko eztulka* ‘leher egiteko eztulka’ eta *arimeleko finkek* ‘alimaleko finkak’, *iñalakin* ‘egin ahalak egin’, *iñalakin kantuz* ‘izugarri kantatzen’.

5.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak

Erroibarko Lintzoain herriko grabaketak badu interesa, kontuan izanda euskaldun zahar bakan batzuk bertzerik ez direla gelditzen Erroibar osoan. Honenbertzez, oraingo Erroibarko hiztunek ez dituzte ezaugarri hauek gorde, baizik eta gehienetan forma estandarrek gailen dira. Lintzoainen sortaldeko azpieuskalkiaren ezaugarriak ikusten ditugu: *-tuko* > *-tiko* bilakaera, eta iraganeko *-n* gabeko aldaera. Etorkizuneko morfema *-en* da *-n-z* bukatzen diren aditzetan, nafarreraren ezaugarri bateratzaile bat. Erakusleetan *g-* protetikoa dugu: *gau* ‘hau’, eta *nior* izenordaina da ekialdeko hizkerekin lotzen gaituena. Bertzaldetik, instrumentaleko atzizkia *-s* apikaria da Lintzoainen. Aditzetan, nork-nori-nor adizkiak bertzerik ez dira erabiltzen, nork-nor paradigmaren kaltetan (*cf.* 5.3.). Lexikoan honako hauek agertzen zaizkigu:

arno ‘ardo’, (*cf.* *OEH*, s. *v.* Arno), «Arno es la forma propia de la tradición septentrional, no suletina, donde se usa *ardu*, aunque no faltan en algún suletino, como Inchauspe, formas más «correctas» como *ardoa*, etc. Con todo, los suletinos Sauguis y Oihentart usan *arno*»; *yarduki* ‘mintzatu’, lapurteraz eta behe-nafarreraz ohikoak (*cf.* *OEH*, s. *v.* *iharduki*), «(AN-erro, L, B ap. A; O *VocPo* 73 (L), SP, Urt I 461, Ht *VocGr* 350, Lar, vEys (L), Dv, H), *ihardoki* (H), *ihordoki* (H (BN)), *jarduki* (Lar, Añ (AN), Bera), *yarduki*. Tr. Propio sobre todo de la tradición septentrional no suletina; aparece tbn. en alto-navarro y dialectos pirenaicos, si bien casi sólo en la 5.^a acepción».

Horrez gain, gaztelania ez den erromantze baten (gaskoieraren?) eragina suma daiteke Lintzoaingo lexikoan: *kusina*, *sosa* eta *-et*, *-ette* atzizkia: *kuxeta*. (*cf.* Ibarra 2000, 208. orr.). Bukatzeko, ez dago TO GEN egiturarik, azken hiztunek noizbehinka darabiltena eta testu idatzietan agertzen dena. Testu honetan Zuazok (2014, 108. orr.) nafarreratzat ematen dituen ezaugarri hauek betetzen dira: 1.a, 2.a., 9.a eta 8.a. Testu hauetatik guztietatik ezaugarri gehien betetzen dituen Lintzoaingo da, alegia, hauxe da nafartasun maila gorena erakusten duena.

Etnografiari dagokionez, Erroibarren iraun dute azkeneko kuxetaegileak beranduen, zehazki Lintzoainen eta Mezkiritzen. Kuxetak edo koilareak ezpelez egiten ziren, kuxeta horiek egunero jateko, eta gaur egun sukaldatzeko erabiltzen zuten. Herri hauetako ohianetan, bereziki Berragu deiturikoetan ezpel ugari egoten baitzen. Horrela, neguko egun luzeetan honetan aritzen ziren hainbat gizon herrian, bereziki azienda handirik ez zutenak (Urabayen 2010, 105. orr.).

Azkenekoa, Marcos Saragueta mezkiriztarrak halaxe dio (Ibarra, 1997, 79. orr.): «yo he conocido aquí 378 habitantes, de estas, 24 eran cuchareros. Y en cada familia al menos había trabajando 6 u 8 hombres. Nosotros hemos estado 6 a la vez». Mezkirizko ezpela bukatzen zenean Aezkora joaten ziren, Orbarako ohianera, ezpel bila, astoarekin, 48 urte izan zituen alokairuan hango basoa; han hamabortz egun pasatzen zituen etxera joan gabe. Astean behin joaten zen egindakoa biltzera. Lintzoainen ere kuxetagile familia

batzuk gelditzen ziren 1980 urte inguru arte, hauek izan ziren Erroibarko azkeneko herriak tradizio hori gorde zutenak.

Mezquirizko Markos Saraguetak kuxeta mota hauek fabrikatzen zituen: kuxeta, hori arruntena izaten zen; aitaren estilokoa, kutxarona, kuxeta berrikoa eta azkenik tenedorea, zurezkoa izaten zena. Errefinatu gabe ere egiten zituen bertze batzuk: balentziano estilokoa, Geronako kuxeta eta Geronako tenedorea. Izen hauek erakusten dutenez, lanik gehiena Gerona eta Valentzia aldera eramaten zuen, lehundu gabe, hango fabrika batera han findu zezaten. Bere produkzio zati bat mandatuz hartutako lanak egitea zen; jendeak etorri eta erraten zion zer nahi zuen eta bakoitzetik zenbat eta orduan enkargu hori egiten zion.

Saraguetak erabiltzen zituen lan-tresnak, berriz, hauek ziren: epel mozteko aizkora, zerra, puñala. Mailue, lantzeko aizkora, marraza, zeinue, marrusketa makurre, kanibeta, pettua, marrazaren pikedera, zeiuaren pikedera, aizkora finatzeko pikedera eta lantresnak finatzeko harriak. (Balda, Ulibarrena, Yarnoz & Yarnoz, 1981, 124. orr.). Gaur egun, lanbide honen berreskurapenaren saio bat egin da berriki aurkezturiko dokumental honetan: (Sánchez, 2018) «kuxetagileak» izenekoa.

Azkenik, gure Lintzoaingo berriemaileak beste lan baten berri ematen du, elizan apetzari laguntzekoa: meza-laguntzailearena. Lan hori mutil gazteek egiten zuten, tunika txuri moduko bat jantzita elizako lanetan aritzen ziren, meza garaian apaizari laguntzen, eta horren truke sos batzuk hartzen zituzten.

Jakina denez, haritz eta pago ugari zegoen herri hauetan ikatza egin behar izaten zen; pagoetako zura erretzen ikaztogiaren. Oraindik orain inguru honetan, ohianean aurkitu ahal ditugu ikaztogiak kokatzen ziren lur lauak, ‘plaza’ izena zutenak. Ikaztogiaren prestaketak prozesu luzea zeraman, eta egunak eramaten zituen zura egosteak, batzuetan 15 egun txondorretik sua ateratzen, ikazkinek adi egon behar zuten haren inguruan txondorrek su har ez zezan. Horregatik, egunak eta egunak pasatzen zituzten ohianeko txaboletan bizitzen, han babak eta txingerra jaten zutela. 15 egun hauetan ikatza egiten zen, gero zakueta biltzen zen, ikaztegi bakoitzeko 30 karga ateratzen ziren eta karga bakoitzak 4 zaku inguru zituen.

Erroibarko Zilbeti herrian gelditu da esapide bat lanbide honen lekuko: *Yoantxin* (yoan-xin). *Yoantxin* zen Iruñera egindako bidai bat ikatza eramanez, oinez *joan* eta *etorri* ‘xin’ egun berean; horixe adierazten du. Martxa ateratzen zen gaueko 12ak aldera eta han farolen argiekin hasten zen errenkada, zakuak sorbaldan zituztela. Hurrengo egunean, arratsian bueltatzen ziren, Iruñean bazituzten bezeroak ikatza erosteko. *Joantxin* hau 1920-30 inguruan bukatu zen, baina, komertzio hau oraindik Eugi eta Zilbetirekin iraun zuen urte gehiago. Esapide horrek adierazten du ikaztogiaren garrantzia lur hauetan; horrez gain, Zilbetiko etxe guztietan ere bazegoen halako estalpe bat ikatza gordetzeko.

Ondoan dagoen Esteribarren, Usetxiko hitzun batek kontatzen du ikaztogia nola egiten zen eta Artolak bildu zuen (Artola 2017, 26. orr.):

ikaztogia esaten giniona guk? plantatzeko? olako, plazoleta t'iten tzuten? redondo-redondoa. Eztakit zenbat metro izein tzuen, zirkunferentzian; nik, ori, eztut oitzen, zematzu metro. Ta an asten tzien? ori... lenbixien? Erdierdien jartzen tzutzen, lau egur,

ola, arrailduek, luziak, tente aiek, ta uzten tzuten?barnian? olako zulua, ereki(i)k, ta gero, andik? aixkurea? aëek, lemixiko lau abek?paratute? asten tzien, gero, eurre? ur, ori... lodi ortaik? tente jartzen, ta ingurukoan ingurukoan, patzen tzien, ta... azkenian gañekoa? pues, beti... akitzera alako... muturr antxa.

Ondoko Artzibarren Etxegoienek 1362. urteko kronika bat biltzen du, eta bertan jarduera honen berri ematen da. Anitzetan Erroibarko herrietatik biltzen zen ikatza, gero Urrobin zeuden mehategietara eramateko.

La primera cita que conocemos se relaciona con la minería. El rey de Navarra en 1362 ordenará que una vez a la semana, o cuando lo mande el director de las minas, Bracha, que los valles de Artzibar, Erroibar y Aezkoa tenían que hacer carbón vegetal en sus propios valles y llevarlo a las nuevas minas abiertas en Urrobi» (Etxegoien, 2013, 3. orr.).

Nolanahi dela ere, azkeneko urteetan ikatza ez zen mehategietara eramaten eta oraindik orain herriko agureek gogoratzen dute lanbide hori herriko mendietan. Ibarrek (1997, 77. orr.) kontatzen du nola Mezkiriko gizonak alogeratzen zuten Auritzen eta Aurizberrin mendi lotea ustiatzeko. Umeek ere laguntza ematen zieten eta herrira itzultzean Mezkirizko emakume batek kontatzen du nola eramaten zuten ispilua aurpegia zikina zuten ikusteko eta gero garbitzeko, herrira heldu baino lehen.

Jakina denez, eultzia izan da eremu honetako eginkizun bat, udako egun beroetan egiten zena. Larrainak buztinarekin ongarritzen ziren eta gero, estrazia pasatzen zen. Haren gainean umeak eseritzen ziren pisu gehiago izan zezan; atsalde partean haize boladak zetozenean haizeratzen zen, sardeekin, pikorra lurrera eroriaz eta lastoa bertze aldera bereizten zen. Jarduera honen lekuko gelditzen dira hainbat etxeren ondoko larrain borobilak; orain lorategi bilakatuak. Hortxe egiten ziren eultzi lanak.

Ondoren «trilladorak» agertu ziren, eta han, herriko plazan eultzia egiten hasi zen. Horrek aurrerapen handia ekarri zuen; orduan eultzi lana auzolanean egiten zen denok batera, lehenik etxe baterako eta ondoren, bertzerako eultzitzen zen. Ederra zen ikustea gizon errenkada bat plazatik etxeko sabaioetara lastozko maindirea buruan eramanez; herri guztia harrotzen zen eultziaren egun bero horietan.

Ezkontzari dagokionez, gure elkarrizketatzaileak kontatzen du nola ari diren herriak hustutzen. Jakina denez, Nafarroako Iparraldean maiorazgoa izan da Euskal Herriko usadioa. Halaxe dio Gabriel Sotok: «intzute zarrena etxeko». Adibide gisa jartzen du ondoko *Gerein* (Gerendiain edo Bizkarret) herrian gertatzen dena. Zenbait etxe hustu dira, alde batetik, gurasoek debekatua zieten 'gustukoa' ez zuten senargaiarekin ezkontzea, etxalde handikoa ez zelako edota bertze arrazoeingatik. Bertzaldetik, seme zaharrena etxerako gelditzen zen oinordeko eta seme hori zenbaitetan ezkongabe gelditzen zen.

Eta seme zaharrena, ondasuna zuena, ezkontzen ez bazen, etxalde handienak bertan gelditzen ziren, ondorengorik gabe, eta herriak biztanle gutxiarekin:

El matrimonio contratado era el medio de garantizar la sucesión de linaje y de la casa, y de incrementar los títulos y bienes patrimoniales. Tradicionalmente la elección de consorte fue por tanto obra de padres y parientes. Claro que no se pasaba adelante

sin contar con la voluntad de los hijos, pero no era común que éstos se opusieran a su elección (Vázquez de Prada, 1996, 343. orr.).

Bertzaldetik, oraingo heziketaz mintzatzen da, bereziki haurrek duten errespetu gutxiaz. Bistan da, lehenago umeen heziketa herriko jende guztiaren esku zegoela; helduei eta agintariei begirunez tratatzen erakusten zieten lehenago, orain ez bezala, nagusi batek atentzioa deitzen ahal zion ume bati eta baita edozein lan agindu ere.

Un adulto podía mandar a cualquier chaval del pueblo –aunque no fuese su hijo– a hacer algún encargo o a ayudarles, teniendo éste que interrumpir inmediatamente u obedecer sin rechistar. También podía ser reprendido por cualquier adulto si se le encontraba haciendo alguna «diablura». Toda la sociedad se sentía en el derecho y el deber de corregir, enseñar y educar a la población infantil (Beguiristáin & Iturri, 1996, 363. orr.).

6. LIZARRAGA- ERGOIENA

1920. urtean sortutako emakumea da hau, herrian bizi izan dena ia bizi guzian; 80 urte ditu grabaketa egiterakoan; halere, gazte denboran Donostian egon zen haurtzain, eta Gerra Zibila han pasatu zuen, etxe batean neskame. Pasarte honetan kontatzen du gerra denbora nola izan zen Donostian, bertzeak bertze, urik gabe gelditu ziren. Elkartasuna ageri da zaurituei zainduz eta jendea etxean izkutatuz eta, bertzaldetik, elkarren arteko gorrotoa ageri da.

Haurrak zaintzen etxe batean

—Pues, enakan serbiziyok eta gio emanubien beste etxatia eta gio beste etxartan oso ongi, aur baten kasintzale eta oso etxe ona tokatu zakiten, oso etxe ona... eta aurr'ure etxen oten giñen eta nausie lanien, laniaa faten zan ta etortzen zan jatordubek ittaa, bea oso ona zan ura, oso kontentu yotenitzen.

—*Eta serbitzeko beste lagun bet bez zoñakizun?*

Bei, beste lagunbet bei, geiztuak, ura, geiztua. Nik enakin lanien emengo lanien, ango lan klasetan enakin eta nik nei izatenuen nuen jakitte atenditzie, nola itten zuen lana eta arrek neiez nei yakustie.

Gerra denbora Donostian

—Gerrako denboran giñon nausi oikin, ai asi zanien, laumetan asi zan.

—*Launeta o igendie?*

—Launetan Donostin asi izan eta gio pues... igandiekin batia militarrek eta guzie, beya sartu zian, militarrek eta gio pues fan zian frentia, gorriyek otsaitten giñon, gorriyek frentia faten zan eta andik pues giñon pues Gipuzkun, gipuzkoar batzuk eta bestiek, batzuk Naparruen eta bestiek Gipuzkun. Ta tiroteuek izan zian bastante... goien eta gue nausian aitte, etxeoandre ama aitte, mikue eta erittuek sartu situen kuartua, kuartua, komedoría eta an etzinda, ni akordatzen neiz nola yon, ta ziena etzinda militarrek

deei, ez takit guai, ez au e olako zerakuek, *guardias municipales* otseitten giñon ee, munizipalak eta aik iil zian gerran. Gerran gue etxe artan zoin aik asarrakan iili, jende oikin ez takit orduen ze ez zian nazionalak o kontuek, eno! Ura akatu zen pues gio geldittu giñen gerran, gerran giatu giñen eta utsai jendu zoren eta Donostin utsi pai giatu giñen, bakizie, bakize kapitalien ze suzediade dia?

—*Ya!*

—Utsik pai! Guai ekartzen zugun orduen utsai emateko ta utsa, utsai ematen zoren orduetan eta faten giñen denok gein atekin o katxarro yos ginuezkien'ekin eta ekartzen giñuen etxa, ematen etxa.

Zaurituekin irriak

—Gio arrimatzen zazkigun mutiko gizajuek gugana bakize, gaztiek gazteta ta, erittuek, erittu gizajuoik, *leves heridos leves* ja, ja! Batien begiek zakala, bestien ankan zakala, bestias besuen zakala, erittu lebiek eta arrimatzen zazkigun gukin, gugana eta aikin neiko irri itten giñuzkien, egun betes neiko irri in giñuzkien eta egun betes atek ze esan? Ta artzen dut emendik olixen a aragitik olixen a onutzeino ekatzu eta txokatu dakigu Denek, *mirar, mirar!* Anketxo *que gordo era!* Onutzeino, ja, ja, ala!

—*Ze irriyek!*

—Aik irriyek irris yoten giñuzkien eta gaztien gaztiek galas eta gio gue izuei klaro, gue izue dendan eta gio faten zazkiyon ezaunek denda, esaten zoren nola irriyakin giñon ta etortzen giñen dendatik etxia tan e garayen, ta *¿Qué, os habéis reído bastante Dora?*, izuek nei, esaten zunen ta banakin ba kontatuta ta nai irriye atatzten zakiten eta olexen ibiltzen giñen.

Elizara joan zirenean

Eta gio beste jei betes fan giñuzien mezaa, mezaa fan giñuzien gein manteliñekin eta guk emen azeran eta beste mutiko koadrilla, bes, azeran eta elizan andien tokatu giñen ta «—A esas, a esas hay que darles a cada cuatro tiros». Ixixille guk, ez giñen sartu're in elizan.

—*Etxa*

—Ixixille, ez zia! Trebe dia gio... *media vuelta* artu ta etxia! Etxekoandriai esan... kontatu giñon ze pasatu zakigun eta geyau ez zugun bieldu etxekoandrie e mezaa ez giñen fan geyau meza, aik eta gerra biyetarte.

Elkarrizketatzailea: Iosune Senar.

Elkarrizketatua: Ixidora Senar.

6.1. Fonologia

- Sakanako hizkeraren joera da bokalen artean y tartekatzea *-i-z* amaitzen den morfemaren muga, Gipuzkoako eta Bizkaiko alderdi batzuetan bezala: *irriya* 'irria'. (cfr. 4.1.)

- Jakina denez, Sakanan eta Burundan ohikoa da hasierako **jo* taldea *f-* ahoskatzea, salbuespenak badiren arren, adibidez Lakuntzan ez dago. (Honen hedadura geografikoaz, *cfr.* Mitxelena, *FHV*, 178. orr.): *faten* ‘joaten’².

- Disimilazioak. Hitz hasieran *eo-* > *io-* > *yo-* bilakabidea dugu, eta gero kontsonantizazioa: *yoten* ‘egoten’, *yon* ‘egon’. Bertzaldetik, *-ea* > *-ia* disimilazioa dugu, batzuetan bokal arteko kontsonantea galdu ondoren *-ia* bilakatzen dena: *giatu* ‘geratu’, *etxia* ‘etxera’, *zia* ‘zera’. Hauxe da Irurtzun inguruan sortzen den mikroeremu bat, Basaburu Nagusia, Larraun era Sakana barne hartzen dituena.

- Bokal arteko dardarkari bakuna galtzen da: *dia* ‘dira’. Horrez gain, *-ra* adlatiboarena ere galtzen da: *etxia*, *etxa* ‘etxera’.

- *-e* > *-a* irekitzen da dardarkariaren aurrean: asarrakan ‘aserre’. Honen hedaturaz (*cfr.* 3.1.)

- *-u* eta *a*, *e* edo *o* bokalen artean (*cfr.* Zuazo, 2010, 46. orr.) *b* epentetikoa sartzeko joera indartsua zen XIX. mendearen erdialdean, Gipuzkoan, Bizkaiko ekialdean eta Lapurdiko itsasbazterrean. Atzerakada handia egin badu ere, Sakanan gorde da: *eritubek* ‘zaurituak’, *kontubek* ‘kontuak’, *mikube* ‘medikua’, *jatordubek* ‘jatorduak’, *ordubek* ‘orduak’.

- *-a* > *e* bihurtzen da aurrean *i* eta *u* duenean: *izeba* > *izoa* > *izua* > *izue* ‘izeba’, *ixille* ‘ixila’, baita *i* hori bigarrenkaria denean ere: *etxeoandrie* ‘etxeoandrea’ eta *bat* determinatzailearekin ere bai: *jei betes* ‘jai batez’, *lagun bet* ‘lagun bat’, *egun betes* ‘egun batez’.

- *-ai* > *-ei* egitea Sakanako ezaugarri ezaguna da: *jei* ‘jai’, *gein* ‘gain’, *geiztue* ‘gaiztoa’, *debei* ‘ere bai’, *neiko* ‘naiko’, *neiz* ‘naiz’. Burundan ez da gainerako herrietan bezain indartsua.

- Fonologian *-a-* > *-au-* bilakera dugu: *aundi* ‘handi’; gipuzkerarekin bat egiten du ezaugarri honek.

- *Jendu* ‘kendu’ aldaera dugu Sakanan. *Gendu* zaharra goinafarreraz hegoaldeko testuetan testigatzen da eta baita zaraitzuerazkoetan ere, eta *gentu* erronkarierazkoetan (OEH, s. v. *kendu*). *Jendu* eta *gendu* ditugu Etxarrin eta Uharten (*cfr.* Erdozia, 2004).

- Palatalizazio automatikoa ugaria da bokal osoaren eta bokalardiaren ondoren: *ixille* ‘ixilik’, *otsaitten* ‘hots egiten’, *jakittea* ‘jakitea’, *ittaa* ‘egitea’, *erittu* ‘eritua’.

6.2. Izen morfologia

- Muga adlatiboan *-tzaraino* morfema konplexua nagusitzen da: *onutzeino* ‘honaino’ (hitzez hitz ‘honuntzeraino’).

2 (OEH, s.v. *joan*) Tr. *Joan* es la forma más extendida; *goan* y *gan* aparecen en autores labortanos desde finales de los ss. XVII y XVIII respectivamente, pudiéndose encontrar la segunda forma tbn. en algunos textos bajo-navarros desde finales del s. XIX. (...) *fan* (G-nav). Ref.: Inza *RIEV* 1928, 152 y 153; Iz *ArOñ* (*ule*). Desaparecer; agotarse, acabarse, extinguirse. “*Joana zeok*, está pasado (AN-larr)” Inza *RIEV* 1928, 153. ● Tr. De uso general desde principios del s. XVII.

6.3. Aditz morfologia

- Nor-nori iraganaldian *-ki* atzizkidun forma erregularrak aurkitzen ditugu: *zazkigun* ‘zitzaizkigun’, *pastu zakiguna* ‘pasatu zitzaiguna’, *tokatu zakiten* ‘tokatu zitzaidan’, *atatzen zakiten* ‘ateratzen zitzaidan’. Orainaldian ere *-ki-* morfema dugu: *txokatu dakigu* ‘harritu zaigu’. Sakanako hizkeraren bereizgarri bat izan arren, «Sakanan baizik ez dira entzuten horrelakoak» (Zuazo, 2010, 138. orr.), *-ki-* morfema Nafarroa Garaiko erdiguneko bertze hizkeretan ere bildu da (Camino, 2003, 89. orr.): Imozko Erason eta Muskitzen, Sakanako erdialdean, Burundan, Atetzen, Ultzaman, Odietan, Anuen, Esteribarren, Erroibarren, Artzibarren, Txulapainen, Goñerrian, Eguesibarren, Oltza Zendea, Garesen, Gesalitzen eta Ezkabarten.

- *a* bokala dugu *e*-ren orde *jakin*, *egon* eta *eduki* aditz trinkoen iraganaldian: *banakin* ‘banekien’, *zakala* ‘zeukala’. Lehenago ikusi dugunez, iragana *-a*-ren bidez egitea nafarreraren ezaugarri ez eskusiboa da, zabalera handikoa. Hurbileko hizkeretan haxe dugu: Imotzen, Basaburu Nagusian, Atetzen eta Ultzaman (Ibarra, 1995, 503. orr.) *a* ageri da nagusiki; eta *a* zein *e* nahaska ageri dira Larraunen.

- Pluraleko bigarren pertsona *-zie*, *-ze* da: *bakizie*, *bakize* ‘badakizue’. Jakinaenez, *-zie* morfema Nafarroako eremu zabalean ageri da: Atetzen, Ultzaman, Anuen, Odietan, Erroibarren, Esteribarren, Artzibarren, Aezkoan, goinafarrera hegoaldekoan eta Ergoienan, baina ez Sakana osoan (Camino, 2003, 769. orr.).

- *Izan* aditzean 3. pertsonaren aldaera *zan* da: *faten zan* ‘joaten zen’, eta ez *zen*. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan gehienean *-a-* dago eta *-e-* berriz, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan. Burundak eta Sakanak mendebaleko eta erdialdeko hizkerekin egiten du bat, eta beraz, *-a-* erroa daukaten adizkiak erabiltzen dira; aldiz, *-e-* dago Goierrin.

6.4. Sintaxia

- Sakanako hizkeran *arik eta* + aditza + *arte* egitura oso emankorra da denborazko perpausetan (cfr. Zuazo, 2010, 184. orr.): *aik eta gerra biyetarte* ‘ahalik eta gerra bitartean’ Honen hedadura haxe da gipuzkera, goinafarrera eta baita iparraldean ere: (cfr. OEH s.v. harik eta: harik eta (gral.; Lar, Añ, Dv (*a-*), H), *alík eta* (G, AN; Lar, Añ, Dv, H), *aiketa* (V-gip, R), *adiketa* (G; Aq 471 (G)). Ref.: A (*arik eta*, *alík eta*, *aiketa*, *adiketa*); Satr *VocP* (*alíketa*); Etxba *Eib*; Elexp *Berg* (*aiketa*).

- Gorago adierazienez (cfr. 2.3.), *egin* aditz indartzailea erruz erabiltzen da: *ez giñen sartu're in elizan* ‘ez ginen sartu ere egin elizan’.

6.5. Lexikoa

bai ‘gabe’³, *bes* ‘berriz’, *izue* ‘izeba’, *kasintzale* ‘kasoeginzalea, zaindaria’, *launeta* ‘larunbata’, *manteliñe* ‘mantelina’, *momoxarro* ‘inauteri’, *jendu* ‘kendu’, *otsein* ‘hots egin, deitu’, *utse*, *utsa* ‘ura’.

3 *Bai*: *Bage* aldaera Arbizon, Dorraun, Lizarragan eta Olaztin erabiltzen da. Ondoren, bokal arteko *g*-ren elisioa eta bilakaera hau dugu: *bage* > *bae* > *bai*; *utsik pai* ‘urik gabe’.

6.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak

Lizarraga Ergoieneko testuak eremu honetan bizirik dirauten ezaugarriak erakusten ditu: bokalen artean *-b-* sartzeko joera; *eo-* > *io-* > *yo-* bilakabidea; *-aki-* erroa erakustea nor-nori iraganaldian eta *-a-* erroa iraganeko adizkietan. Mendebaldean eta erdialdean bezala, Sakanan bereziki, ohikoak dira *-du* erantsiz sortzen diren partizipio analogikoak, *arik eta* + aditza + *arte* egitura eta *Izan* aditzean 3. pertsonaren aldaera *zan* da. Bukatzeko, lexikoan *momoxarro* ‘inauteri’, *utse* ‘ura’ eta *jendu* ‘kendu’ ditugu, Sakanako hitz bereziak. Eta aldaeren artean *bea* ‘baina’, *beix* ‘berriz’ dugu. Lizarragako testuan Zuazok (2014, 108. orr.) nafarreratzat ematen dituen ezaugarrietatik bi betetzen dira. 1.a eta 9.a. Horrenbertzez, izaera nafar nahiko lausoa da eta trantsizio hizkeraren zantzuak nabarmenak dira.

Etnografiari dagokionez, hauxe da azpimarragarri, gerrako gorrotoa eta mehatxuak kalean bertan, lau tiro emateko mehatxua mezara joaten zirenean, jakina, buruan mantelina jarrita zutela. Mantelina horiek eraman ziren 1970 urte arte, neskek eta emakume helduek eramaten zuten elizara joateko, begirune seinale gisa. Emakume helduagoak beltzez jantzita joaten ziren eta kapusai handia zeramaten burutik ia lurrerraino. Bertzaldetik, herriko emakume gazteendako beti aukera bat izan da kanpora ateratzea, haurrak zaintzeko edota zerbitzari lanak egiteko. Arratsaldeetan edo hurrekin kanpora ateratzen zirenean, haien artean elkartzeko aukera izaten zuten, eta orduan eguneroko gora-beherak komentatzen zituzten, eta, aldi berean, lan berriak izateko aukera zabaltzen zitzairen. Garai hartan, 50-60 hamarkadan emakume anitz joan ziren Frantziara lan egitera, han diru bikoitza irabazten zela erraten baitzuten:

Para las jóvenes con escasos recursos la salida más frecuente ha sido «ponerse a servir». Cuando se encontraba una buena casa, la joven iniciaba una etapa de verdadero aprendizaje con la dueña y las criadas mayores que le enseñaban y corregían (Beguiristain, 1996, 437. orr.)

Neskame edo haurtzai hauek gazte izaten ziren eta goi mailako etxeetan lan egiten zuten. Neskame lanak eta haurrak zaintzea zen beren eginkizuna. Sukaldatzea, plantxatzea, liliba egitea, etxearen garbiketa, erosketa, mahaia zerbitzatzeta, mandatuak egitea, jantziak jostea, haurrak zaintzea. Hori zen egin beharreko guztia. Kasu batzuetan erizainen papera ere egiten zuten.

Etxe anitzetan uniformeak eraman behar izaten zuten, etxeko nagusien gustuen arabera: mandarra, kofia, mantala...Neskame hauek normalean etxe barruan bizi ziren eta egun osoan lan egiten zuten, salbu libre zuten arratsalderen bat. Momentu horretan elkartzeko ziren beren adineko bertze neskameekin.

7. LESAKA, OIARTZUN

Gure elkarrizketatuak 81 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. 1921. urtean jaio zen, Oiartzunen, baina 29 urterekin Lesakara joan zen bizitzera. Joxek lana Errenterian egin zuen, eta kontrabandoan ere aritu zen, muga zeharkatuz. Tunel batean egiten zuten kontrabandoa, itsasontzietan; karabineroak salduta zeudela kontatzen du. Oso ohikoa zen kontrabando guneetan.

Kontrabandoa

Ni ibili nintzen kontrabandun, gu ibili giñan, or zea, ez dakit nola deitzen zan, or Ulia, Ulia du izena mendiya, Donostia aldetikan, beno ba... an, ara barku bat San Juan de Luzetik sartu zan, arraiñen barkua zan, an zai gu arrocketatik, ardua zai, gui san tzigun, zea deskargatzea joan bear genula San Pedro, San Pedro erri bat da. Oixe san tzigun!

Ta sartu giñuzten, zea esan ziguten sartu ein bear tzea, ta sartu or barruko jendia ta..., beno, ba, ze ein bear din? Ta esan ziagun... mendiya tunel ttiki bat alde batetik bestea pasatzeko, eta andik eingo dugu gu kanalia, ta ure eldu dau andik.

Ta an sartu zea artan tunel artan, ta... izutu pasa giñan arrocketatik antxe ibiltzen zen ta ibayan beste aldean, non zen... Donato, San Donato, beti beste aldia pasa ein arrokata. Ta an neon ta artzaiekin kostako barkua, zeana, mariñalana, ta ta pasatu zen gauza bitxi bat, bitxia, ta barkua urbildu zen pixkat eta txalupak ekartzen zuten zea, beia larruak, geo kaja batzuk, kargatu batzuten, kaja batzu, ta ospa! Geo toldo batzu ta ori ere zer da... eitten genun txalupatik bota ta geo beste arrapatu ta besteik bestea, ta geo olatuk jo ziyok aldaxkatik [...] ta an pillatu dena, ein genun dena pillatu ta lau karabineruk beira, errosiyak zien *¡vendidos!* Erosiyak!

Ta jakina, joe, geo tunelak Biarritze aldetikan ta kolder einak, ta kao! tunelak ta eon ta eon, egunak oson zabaltzia ta, guardia ziilak ere jakina, errelibua bildurra, ta aiek nai zuten ta!

A ver, A ver, a ver Ta mecauen la leche! A ver sí! fusillak utzi ta beak e lagundu ein tzigun, euna zabaltzeko, denak sartu genitun barrena, barrena, denak... leer einak, barrenian, geo barrenian esan ziguten alde batetik bestera, pasa bestela!

Pasa sittun or dena, or! Aittu parranda batetik bestea pasa, ta ondo paatzen ziuten bai eune, bai, joe! Geo ordun, e, astin zenbat irabazten zan, ta ogeitairu duro, ta patzen tziun ogei, iru ogei, iru ogei duro... patzen ziun, ta sei ordun aski da... ze paliza artuta! emen geinak kontrabando eon.

Nafarroatik Gipuzkoara, muga pasatu behar

Oain libertade geiago dago, libertade geiago dagola, oain askatasun geio... zea lenago ein bear tzenun emendik Gipuzkuara joateko san (ordun) ta, fotokin ta denekin, ilabetero atera beartzenun, ilabetero, *cada mes* bear zenun, emen zonalde ontan bai, ta arrapatzen, arrapatzen bazenun... *y a la comisaria!*

Bai, bai, bai... baiña ordun izugarria zen, e! Ibiltzen zian poliziya ta guardia zibilla parejaka, emen Bidasoa, tren txikiya bazen Bidasoa, Elizondoño joaten zen, ta or beti guardia zibil pareja, ta poliziya, geo... batek sartu ta, zeakin, zapata or eskukin ta zerarik gabe, zamarra zar bat, ta neondu an, ta altxa ta:

A ver, la documentación, policía, mecauen la ospa!

Elkarrizketatzailea: Iosune Irigoien.

Elkarrizketatua: Joxe Landa Arbelaitz.

7.1. Fonologia

- Gipuzkeraz eta Bortzirietan ohikoa denez, *-ia* morfema mugetan, kontsonante antihiatikoa sartzen da, *-iya* bihurtuz: *poliziya* ‘polizia’, *txikiya* ‘txikia’, *mendiya* ‘mendia’, *erosiyak* ‘erosiak’, *ibayan* ‘ibaian’. Gauza bera gertatzen da aditzetan ere: *ziyon* ‘zion’. (cfr. 4.1.)

- Morfema mugetan, inesiboan mugatzailea desagertzen da: *-oan* > *-un*: *ordun* ‘orduan’. Zuazok dioenez (1998a, 224. orr.), Bizkaiko itsasaldeko hizkera batzuetan, Nafarroako alderdi batean eta Gipuzkoako Azpeiti aldean soiltzen edo galtzen da, aldeak alde, mugatzailea; Euskal Herri osoko baina eremu murrizteko ezaugarria da.

- Morfema mugetan pluralean erabateko asimilazioa izaten dugu: *-uak* > *-uk*, erdialdeko hizkeretan, Basaburuan, Malerrekan eta hainbatetan ohikoa den bezala: *olatuk* ‘olatuak’.

- Bokal arteko *r*, *d*, *g*, *b* kontsonanteak erraz galtzen dira horrelakoetan, erdialdeko hizkeretan ohikoa denez: *oain* ‘orain’, *geio* ‘gehiago’, *zea* ‘zera’, *lerreinak* ‘leher eginak’, *eon* ‘egon’, *ziilak* ‘zibilak’, *zian* ‘ziran’, *kao* ‘klaro’, *beak* ‘berak’. Batzuetan bokal luzeak sortzen dira: *paatzen* ‘pagatzen’.

- Palatalizazioa ugaria da, erdialdeko hizkeretan ohi denez: *pillatu* ‘pilatu’, *zibilla* ‘zibila’, *aittu* ‘aditu’. Nafarroan ohikoa da Bortziriak-Malerreka-Bertizarana aldean (salbu Etxalarren); honen hedaduraz gehiago jakiteko (cfr. 3.1.)

7.2. Izen morfologia

-Ablatibo kasuan *-tikan* morfema dugu, erdialdeko hizkeretan bezala, baina *-tik* morfemarekin batera: *Donostia aldetikan* ‘Donostia aldetik’, *alde batetik bestea* ‘alde batetik bestera’.

7.3. Aditz morfologia

- *du* aditz partizipio analogikoa badago: *eondu* ‘egon’. Honen hedaduraz jakiteko (cfr.1.3.):

- Nork-Nor aditz paradigma erabiltzen da: *ta sartu giñuzten* ‘sartu gintuzten’, Fraile & Frailek (1996, 111. orr.) erraten dutenaren kontra: «bakanak dira N-N-N-era lerratzen ez direnak».

- *Izan* aditzean 3. pertsonaren aldaera *zan* da, eta ez *zen*. Hauxe da, hain zuzen ere, erdialdeko hizkeren ezaugarria, baita Oiartzungo hizkerarena ere, nahiz orain *e* hartzen ari den nagusitasuna (Fraile & Fraile, 1996, 103. orr.). Honen hedaduraz (cfr.6.3.).

- *Behar izan* aditzak bi erabilera eredu ditu euskalkien arabera. Erdialdeko joerari erantzunez, gure testuan *sartu* bezalako aditz iragangaitzari laguntzaile iragangaitza dagokio honetan: *sartu ein beartzea* ‘sartu egin behar duzu’.

- Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ohi den bezala, «etorri» aditzaren forma trinkoen ordeaz «heldu + izan» egitura erabiltzen da adiera puntukariarekin: *ta ure eldu dau andik* ‘eta ura heldu da (dator) handik’. Ezaugarriaren muga Nafarroaren eta Gipuzkoaren

artean dago, baina Gipuzkoan ere badira salbuespenak, *eldu da* erabiltzen baita, errate baterako, Oiartzunen (Fraile & Fraile, 1996, 127. orr.).

7.4. Sintaxia

- «Partizipioa + *egin* + aditz laguntzailea» perifrasiari partizipioa «*egin* + laguntzailea» multzoaren ondoren zein aurrean ere koka daiteke, erdialdeko hizkeretan ohi denez: *lagundu ein tzigun* ‘lagundu egin zigun’, *ein genun dena pillatu* ‘egin genuen dena pilatu’, *sartu ein beartzea* ‘sartu egin behar zara’ (cfr. 1.3.).

7.5. Lexikoa

Aldaxka ‘adarra’, *euna* ‘oihala’, *kolder* ‘koldar’, *zera* (zalantza adierazteko erabiltzen da eta gipuzkeraz arrunta da: *zerarik gabe*). Horrez gain, *ondo* aldaera nagusitzen da, erdialdeko hizkeretan gertatzen den bezala, ez *ongi*.

7.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak

Lesaka-Oiartzungo testua interesgarria da, hiztunak Oiartzungo ezaugarri gehienak, alegia, erdialdeko euskararen ezaugarriak direlako agerian: *-tikan* morfema Oiartzunen eta erdialdeko hizkeretan bezala (cfr. Fraile & Fraile, 1998, 76. orr.), testu honetan biak agertzen dira. Eta erdialdeko euskalkietan gertatzen den bezala, *x* ahoskera dago euskal hitzen hasieran (*jan*, *jantzi*, *jo*), bai *egin* aditz indargarria, baita *ondo* aditzondoa ere. Bertzaldetik, Lesakan bizi den hiztun honek gordetzen ditu *izan* lehenaldikoaren *-a*-dun aldaerak, nahiz orain *e* nagusitasuna hartzen ari den Oiartzunen. Bertzaldetik, Nork-Nor saila, erraten denaren kontra (Fraile & Fraile, 1996, 111. orr.) oraindik erabili egiten da. Eta *egin* indargarria erruz erabiltzen da, nahiz Zelaietak dioen gutixko erabiltzen dela Bortzirietan (Zelaieta, 2010, 138. orr.). Bertzaldetik *arrain*, eta *dugu* aldaerak ditugu, eta horiek nafarrerara hurbiltzen gaituzte.

Bukatzeko, testu honetan Zuazok (2014, 108. orr.) nafarrerarendako ematen dituen ezaugarrietatik ez da betetzen ezta batik ere; honen arabera, erdialdeko hizkeratik hurbilago dago. Horrez gain, Lesakako bertze testutik (cfr. 4.) aldentzen da, horretan hiru ezaugarri betetzen zirelako.

Jakina denez, Pirineo guztian eta muga egiten den eremu guztian gaueko lana egin zen. Gerra ondoko gabeziari aurre egiteko, 50ko eta 60ko hamarkadetan mugaz honuzko aldean eskasia handia zegoen; horregatik, mugaz bertzaldetik garraiatzen ziren produktu anitz: irina, kafea, puntillak, kautxoa... Eta hori gauez egin behar zen, eta baserritarrek ongi ezagutzen zituzten bidezidorretan egiten zen: 30 kilo bizkarrean eramanez, eta 500 pezeta inguru kobratzen zuten bidai bakoitzarengatik. Gosea kentzeko egiten zen lan hori, ez aberasteko, eta, nolabait onartua zegoen, orok ezagutzen zuten jarduna zen (Perales, 2004). Eta bai, gaueko lanak gose anitz kendu zuen. Horrela dio Iparraguirreren (2004) lekukotzak:

Gaueko lana gogorra zen. Ni neu ez naiz oroitzen, baina han ikusi ditut gizonak negarrez benetan, ezinak jota. Gainera gauez lan egiten genuenok egunez ere lan egin behar. Egunez lotan geldituz gero deklaraturata baitzegoen zertan zenbiltzan. Gau batzuk, astean pare bat edo, osorik galtzen genituen. Eskerrak ez genuela gauero

egiten, bestela... Harrapatu ere inoiz harrapatu gintuzten. Ni Guardia Zibil batekin lurrean bueltaka ibilita nago. Metrailetaren punta saihets tartean sartu zidan, baina mirariak salbatu eta alde egitea lortu nuen. Haiei hiltzea ez baitzitzaien komeni. Dirua komeni zitzaizen azpitik, eta azpitik pagatuz gero uzten zizuten bidea libre, baina azpitik pagatuz gero ez zen norberarentzat gelditzen irabazirik. Horretan zen komeria.

Oiartzunen mandoekin ibiltzen ziren, horrela agertzen da ahotsak.eus webgunean (Sasiain, 2010). Mandoekin mota askotako garraioak egiten zituzten, baina batez ere egur-ikatzarekin aritzen ziren; jaitsi menditik eta beraiek ikatza saldu. Butanoa eta gasa sartu zenean, egur-ikatzaren eskaera jaitsi egin zen eta lanik gabe gelditu ziren mandazainak. Muga hori oso begiratu zegoen eta zainketa estuak egiten ziren, horrela guardia zibilak bikoteka joaten ziren: «No hay que olvidar que la vigilancia en esta época era muy fuerte en torno a la muga. Por un lado los alemanes vigilaban las orillas del Bidasoa y por otro la Guardia Civil establecía severos controles y patrullas volantes que recorrían los montes de la comarca» (Jiménez de Aberasturi, 2006, 3. orr.).

Gure berriemaileak dioenez, mugako eremu horretan zeuden trenetako tunelak aprobetxatzen ziren.

8. OSKOTZ

Berriemailea Aezkoako Iriberrin jaio zen eta han egon zen 20 urte bete arte. Ezkondu zenean Oskotzera, Martixenea bordara joan zen; gero, semeak izan eta herrira jaitsi zen bizitzera zahartu arte; 89 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Aziendarekin lan egin zuen, txerriekin bereziki. Oskozko hizkera egiten du berriemaile honek, ondoren ikusiko dugunez. Nunuak ateratzen txerriei emateko euria eta hotzarekin, artoa erein eta argirik gabe han egoten ziren artoa xehatzen. Irurtzungo merkatuan saltzen zituzten gaztainak, eta gero hamar kilometro zuten etxera joateko. Azkenik, inauterien eta mozorroen berri ematen du.

Bizitza pobrea

Jar zazu ba. Oi, oi, oi! gure bizie oso pobrea izandu da. Bere! Joaten giñen, eurie izen eta otza itten zun eta oi, dena larra eta dena zikiñe eta ala ere, joaten giñen nunuk atratzera, ta nunu aiek egosi eta ematen giñoten txerrii. Eta baita beiei ere bai, eitten giñuzen sekatu, beiei emateko sekatu. Eta gero ori? Pertz andi betean egosten giñuzen nunu oiek, ta nunu oiek ematen giñoten beiei jatera agotzaekin, txiki txiki ein ta, txiki katxarro batekin txiki txiki ein, ta agotzaekin ematen giñoten beiei, bei gaixoei, ez giñun besteik emateko beiei janik, eta olaxen ematen giñoten.

Eta pues olaxen, igendetan igual lana itten giñun, egunoro bezala, bai, eta umetxoak txikittoak zirenean gaixoak oain bezala turronik eta etzitzaigun ailtatzen, keba! Ta Iruñera joaten nintzenean, erosten nittun olaxen kajatto batzuk xubien figure bezalaxeok ta olaxen engañatzen nittun umeak urteberritan ta... Eta pues... gero kotxeik? Ez nioten eitten umei ta. Umeai ere, neonek josten nittun arropak eta antxe pastu de amak eintako soinekoekin ez giñun... modistari emateko eta neonek josten nittun, antxe, bordan. Argik ez giñun, urik erez, *lo único* egurre giñun sue eitteko, besteik ez giñun.

Ta gero ailatzen zen septienbrea eta gaztañek, giñuzen arbolak. Eta antxe ume ttikittoekin, aik botzera makillaekin arbolan, eta umeak eta ama gaztain pikor aiek denak biltzen. Ta olaxen ibili izandu gara, orra, pobreak bezala, pobreak bezala. Ta maizek ereiten giñuzen ere, ta arratsetan ez giñun argik, ta petroloakin kandile biztu eta dena eittea eta antxe aitzen giñen, maizek pelatzen, ta olaxen ibilli ga.

Gaztainak bildu eta saldu

—*Eta gaztañak eta maizak zuentzako?*

—Bai gaztañek eta ferie eunekin joaten giñen Irurtzune, saltzera. Saldu eitten giñuzen, bearko, ez giñun diruik kontribuzioa pagatzeko. Eta irine erosteko obie itteko, eta antxe saldu eitten giñuzen. Eta an farmazin ondoan ze otzak! Gaztañek ezin salduz, eta merke zauden gaztañek ere ordun. Eta olaxen kontento, beiek artu, karroa... eta ogei erregu ematen giñuzen gaztañek saltzera. Eta antxe eoten ginen otzak ezin akatus gaztañek saltzen. Eta gero, amar kilometro ta geigo bordara ailegatzeko, arratsean ilunduta. Ta bordara joan ta argik ez giñun, ta kandile, kandile petroleoekin, eta orrek atratzen zun ¡*Qué asco, hombre!* Eta olaxen ba otza, ze nauzu esatea!.

Inauteriak eta festak

Iotretan, pues iotretan ere umetxoak eoten zen etxean, zeatik denak tapatzen zen mutilak o gizonak, eta arpatzen zutena pues ingurik eitten zittotten umei. Eta antxe etxe atarik ertxi ongi eta etxean, bai bai! Etxe barnean, bearko! Eta joaten zen bai, joaten zen akordeonaekin ta, errondan joaten zen eskatzera. Ta ematen giñoten, urdai puskon bat o arraultze batzuk o, ematen giñozen, joaten zenak eskean. Beno ta umeak eta iotretan etzen etxetik atratzen ez, gizonak bai o mutilek biño, neskatxek ez, ez, neskatxek etxe barnean eoten zeen! Bearko. Gaiñerakoan eitten zitzaten ingurik ta etzuten ezautzen nor zen dena tapatuik, mozorroa, klaro! Ta olaxen ba iotretan eoten zen etxean.

Pestetan, pestetan bai errire jeisten zen biño... biño, iluntzeako laister etxera, laister etzen gauetz atratzen ordun, ez, ez oaingoak bezala, ez, ez, ez. Oaingoek gaue eguntako, biño ordun ez, ez, ordun kieto etxean! Bearko!.

Elkarrizketatzailea: Edurne Alegre Santander.

Elkarrizketatua: María Bastero Conde.

8.1. Fonologia

- Bokal armonia edo hurbileko bokal asimilazioa ohikoa da, alegia, *a > e*, *i* eta *u*-ren atzetik: *bere* ‘begira’, *mutilek* ‘mutilak’, baita morfema-mugaz kanpo ere: *errire* ‘herrira’, *Irurtzune* ‘Irurtzunera’. Imotz eta haren inguruko hizkerak isoglosaren barnean daude (cfr. 1.1.).

- Gainerako hainbat herritan ikusi dugunez, *-on* atzizkiak bukaturiko maileguetan *-on* gordetzen da: *akordeona* ‘akordeoia’, *turrona* ‘turroia’. Honen hedaduraz (cfr. 3.1.)

- Sinkopa indartsu xamar dabil: *atratzen* ‘ateratzen’, *arpatzen* ‘harrapatzen’, *botzera* ‘botatzera’, *iotretan* ‘inauterietan’, *eguntako* ‘egunetako’ (cfr. 4.1.).

- *-i*-ren ondoko bustidura automatikoa maiz gertatzen da: *eitten* ‘egiten’. Baita bustidura adierazgarria ere: *ttikittoak* ‘txikitxoak’, *kajatto* ‘kajatxo’.

- *-st-* eta *-rtz, rtx-* kontsonante taldeei dagokionez, bigarren aukeraren ondorioak ikusten ditugu: *ertxi* ‘itxi’; halere, ez da sistematikoa: *esan* dugu, eta ez *erran*. Hain zuzen ere, Oskotzen eta Muskitzen artean pasatzen da isoglosa hau, aspaldian Sánchez Carrionek (1974, 263. orr.) adierazi zuenez (*cfr.* 4.1.).

- Bokal arteko *g, r, b, d* kontsonanteak desagertzeko joera bizia da Imozko hizkeran: *oaingoek* ‘oraingoek’, *ematen* ‘eramaten’, *eitten* ‘egiten’, *akatus* ‘akabatuz’. *Izan* aditzaren orainean, *-r-rik* gabeko adizkiak agertzen dira: *ga* ‘gara’ eta *zeen* ‘ziren’.

- Herskariaren aldaera ahoskabeak eta ahostunak ditugu txandaketan hitz hasieran. Imotzen ez dago erraterik batzuk ala bertzeak nagusitzen direnik. Ahostuna ageri da hitz batzuetan, eta ahoskabea bertze batzuetan, eta aldea egon ohi da herritik herrira (Apalauza, 2008b, 86). Erraterako, *p* ahoskabea agertzen da erdal maileguetan: *pestetan* ‘bestetan’. Aldiz, euskal jatorrizko hitzetan, *b-* dugu: *biztu* ‘piztu’.

- Artikulua asimilatzeke joera dago eremu honetan: *-ian >-iin> -in:* *farmazin* ‘farmazian’, baita *-uan > -un* ere: *ordun* ‘orduan’, eta determinatzaile plurala gehitzean ere bai: *-u + -ak > -uk:* *nunuk* ‘nunuak’.

- *-n-z* bukatutako aditzari *-ta* atzizkia gehitzean, herskari ahostuna ageri da herri batzuetan (*-nda*) eta ahoskabea, aldiz, bertze batzuetan (*-nta*): *eintako* ‘egindako’ dugu Oskotzen. Hona banaketa zehatza: «gure eremuari dagokionez, ahostuna dugu Imozko Goldaritzen, Basaburua Nagusiko Berueten, Larraunen eta Araitz-Betelun. Ahoskabea berriz, Goldaratz ez bertze Imozko herrietan, eta Beruete ez bertze Basaburu Nagusiko herrietan» (*cfr.* Apalauza, 2012, 290. orr.).

8.2. Izen morfologia

- Prolatiboari dagokionez, *-tako* dugu: *eguntako* ‘egunetarako’. Honenbertzez, Oskotz Ultzamara eta Baztanera hurbiltzen da ezaugarri honetan (*cfr.* 3.2.).

- *-on bat* egitura dugu Nafarroa Garaiko erdigunean, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen: *puskon bat* ‘puskaren bat’. Ultzamako XIX. mendeko testuetan ageri da (Ibarra, 1992, 928. orr.). Apalauzak dioenez, edozein bokal edo kontsonanteren ondoren ager daiteke eta diakroniari dagokioenez, aski ezaugarri berria dirudi (Apalauza, 2012, 332. orr.).

-Instrumentaleko atzizki txistukaria apikaria da Imotzen (*-s*): *akatus* ‘akabatuz’. Oso joera hedatua da Basaburu Nagusian, Larraungo hego-ekialdean eta Atetz-Ultzaman (*cfr.* Apalauza, 2008, 96. orr.).

- *-tto* atzizki txikigarria oso arrunta da Imozko ahozko jardunean; Basaburu Nagusian eta Larraunen maiztasuna galtzen da: *kajatto* ‘kajatxo’. Imoztik ekialdera ageri da Ultzaman, Esteribarren eta Erroibarren, Baztanen eta Ipar Euskal Herriko zenbait hizkeratan.

8.3. Aditz morfologia

- 3. pertsona pluraleko datiboaren morfema eratzeko, singularreko formari *-te* morfema gehitzen zaio Imotzen. Horrela, *-ote* morfema dugu, nafarreraz ohikoa denez: *ematen giñoten* ‘ematen genien’, ez *nioten eitten* ‘ez nien egiten’. Datiboko morfema

hori ondoko Basaburu Nagusian eta Arakilen ere bada, eta orobat handik ekialdera eta hegoaldera hedatzen da, Lapurdiraino gutxienez.

- Imotzen *a* duten adizkiak arruntak dira, bereziki *egon*-en pluraleko adizkietan: *zauden* ‘zeuden’. Honen hedaduraz (*cfr.* 6.3.)

- *-iñu* dugu **edun* aditzaren lehenaldian: *maizek eitten giñuzen* ‘artoak egiten genituen’. Adibide berean ikus dezakegu adizki hauetan pluralgilea *-z-* dela, erdialdeko hizkeretan gertatzen den bezala, Sakanan, Imotzen eta Larraun inguruan.

- Erdialdeko hizkeretako *-du* partizipio analogikoak ere arruntak dira Imotzen: *izandu* ‘izan’. Hauxe da partizipio hedatuena Basaburuan, Imotzen eta Larraungo herri guztietan (*cfr.* Apalauza, 2012, 385. orr.).

- Nor-nori-nork saileko adizkietan *-it-* pluralgilea erabiltzen da Imotzen: *eitten zittotten* ‘egiten zizkieten’. Pluralgile honi aparteko garrantzia eman zaio euskal dialektologian, eta iparraldeko goi-nafarreraren ezaugarri definitzaitzat hartu izan da (*cfr.* Zuazo, 2014, 110. orr.).

- Partizipioak *-rik* eta *-ta* morfemekin osatzen dira: *tapatuik* ‘tapaturik’, *ilunduta* ‘ilundua’. Ezaugarri honetan, alegia, bi morfemak erabiltzean, ikusten da tarteko izaera dela hau, *-rik* atzizkia baita nafarreraren ezaugarri bateratzailea, nahiz ez den eskusiboa. Honen hedaduraz (*cfr.* 3.3.).

8.4. Sintaxia

- *Egin* aditz indargarriarekin osatutako egituretan bi ordenak erabiltzen dira hemen ere, alegia, «*egin* + aditz laguntzailea + aditz nagusia» eta «aditz nagusia + *egin* + aditz laguntzailea»: *eiten giñuzen sekatu* ‘egiten genuen sekatu’, *saldu eiten giñuzen* ‘saldu egiten genuen’.

- Denborazko esaldietan *-nean* nagusitzen da, nafarreraz eremu batzuetan ohikoa denez: *ta Iruñera joaten nintzenezan*. Apalauzak (2008b, 127. orr.) dioenez, Imotzen bi morfemak erabiltzen dira, *-larik* eta *-nean*. Denbora perpausak eratzeko *-larik* morfema Goldaratz ez beste Imozko herrietan erabiltzen da. Bistan denez, ez da hain sistematikoa banaketa hau, Oskotzen *-nean* baitugu.

8.5. Lexikoa

akatu ‘akabatu, eutsi’, *erregu* ‘garai bateko neurria, zekaleak neurtzeko erabiltzen zena’, *iotreak* ‘inauteriak’, *maize* ‘artoa’, *nunu* ‘basaporru’(OEH: 3 *nunu*). «Gamón, asfódelo» (AN-ulz, comunicación personal). v. *anbulo*, *basaporru*, *unanu*. **Nunu-makil-urte*, *arto urte*. (AN-5vill). Inza *NaEsZarr* 1529 (que explica: «*Nunu*: basalandare, makilla luzea duen bat. Izen asko ditu euskeraz: *anbulo*, *kukulumurru*, *unanu*, *basaporru*, *otsapurru*»); *obie* ‘ogia’, *orra!* ‘horra!’, *pertza* ‘bertza’ (gazt. «caldera»), *xube* ‘suge’ (*xubien figure* ‘sugeen figura’).

8.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak

Oskozko hizkera egiten du berriemaile honek, nahiz eta Aezkoan sortu zen. Tarteko hizkeratzat, alegia, euskara nafarreraren eta erdialdekoaren artekotzat hartu izan da

Oskozkoa (Zuazo, 2010, 39. orr.). Apalauzak (2012), ordea, nafarreraren barnean ikusten du Imozko hizkera.

Gure testuan nafarreraren ezaugarri anitz agertzen dira, nahiz erabat sistematikoak ez diren. Hain zuzen ere, ezaugarri hauetan Imozko eta Basaburuko hizkera hauek, Zuazok tartekotzat dituenak, nafarrerari hurbiltzen zaizkio. Bertzeak bertze, *-tto* atzizki txikigarria dugu, nafarreraren eremu handian zabaldua, nahiz eta erabat sistematikoa ez den. Erabakigarriagoztat jo daiteke Nork-nori-nork saileko adizkietan *-it-* pluralgilea egotea, ezaugarri eksklusiboa baita eta, antza denez, zaharra, XVIII. mendetik aurrera lekukotzen da Nafarroan eta Bortzirietan lehenago (Reguero, 2017). Halaber, instrumentaleko atzizkia *-s* apikaria da Imozko Oskotzen. Oso joera hedatua da Basaburu Nagusian, Larraungo hego-ekialdean eta Atetz-Ultzaman (*cfr.* Apalauza, 2008, 96. orr.), baita Erroibarko hizkeran ere. Eta, bukatzeko, erdal *-on* bukaerak gordeak ditugu Oskotzen, Lesakan eta baita Gartzaronen ere, Nafarroa Garai gehieneko hizkeretan bezala, eta hedadura kontuan hartua esanguratsua da, mendebalde eta erdialde gehienean *-on* > *-oi* eta *-ion* > *-ioi* bilakatu baitira.

Hala ere, erran bezala, muga lektala dago herri honetan: alde batetik *-rtx* taldea dugu (*ertxi*), baina *esan* ere bai, hain zuzen ere, *erran/esan* isoglosa bertatik pasatzen da (Sánchez Carrión, 1974, 263. orr.). Bi dialektoen arteko mugan dago baita partizipioen bukaerei dagokienez ere, zeren eta *-rik* eta *-ta* morfemekin osatzen baitira; gainera, denborazko morfema *-nean* da, erdialdean bezala, eta *xube* ‘suge’ bezalako aldaerak daude lexikoan, erdialdekotzat joko genituzkeenak. Dударик gabe, ezaugarri batzuk alde batera eta bertze batzuk bertzera jotzea azaltzeko modu bakarra hauxe litzateke, alegia, garai batzuetan Nafarroa aldeko joeren mendean bizi izan dela, eta bertze batzuetan erdialdeko joeren mendean. Azkenik, testu honetan Zuazok (2014, 108. orr.) ematen dituen ezaugarrietatik hauek betetzen dira: 1.3.6. Badira, beraz, nafarreraren barruan sailkatzeko ezaugarriak.

Etnografiari dagokionez, kantauri isurialde osoan dago –edo behintzat egon da– gaztainarekin lotutako tradizio eta ohitura handia. Gaztainondoak duela gutxi arte oinarrizkoak izan dira inguru hauetako pertsonen bizitzan: elikatze edota gaztainondoa egurrerako batez ere, baina, baita istorio eta mitoak sortzeko ere. Euskal Herrian gaztainak oinarrizko elikadura izan da, gaur egun arte. Belaunaldiz-belaunaldi gaztaina ezinbesteko jakien multzoko bat zen, eta hau baieztatzen duten testu idatzi ugari daude. Honela, XVI. mendean, adibidez, Jean Baptiste Bruyerin Champier mediku eta gastronomoak zioen Frantziako Perigord eskualdeko biztanleek gaztainarekin zuten loturari buruz: «Herri askorentzat gaztainak uzten antzekoak dira... [...] familia gutxi daude han –noblezia ez beste– ogiz elikatzen denik».

Belaunaldietan zehar gaztainak izan dira oinarrizko elikadura sei hilabetetan, etxe bakoitzak zituen gaztainondoak eta neguan hara biltzera joaten ginen gure haurtzaroan, gero, negu osoan gauean postretzat gaztain erreak jaten genituen.

Múgicak (1918, 311. orr.) horrela baieztatzen du Gipuzkoako gaztainondoei buruz: «entre los frutos, el más importante sería la castaña, que todavía sirve de alimento al labrador durante cuatro meses de invierno, además de la que vende y utiliza para el ganado cerdal».

Bertzaldetik, garai batean gaztainak gordetzeko erabiltzen ziren harri multzoz osatutako eraikinak, kirikiñausiak izenekoak. Izen hori hartzen dute Orozkon behintzat, eraikin zirkularrak dira gehienak, eta handienak 7,5 metroko diametroa eta ia bi metroko altuera ditu.

9. URDAZUBI

Dionisia 1924. urtean sortua da, Iturraldekobordan, Erratzun. Zortzi anai-arrebaren artean bigarrena da; 18 urterekin esposatu zen Luziano urdazubiarrarekin eta senarraren herrira joan zen bizitzera. Elkarrizketa etxe bereko biloba batek egin zion eta baserriko bizitzaz mintzo da: txerrien salmentatik dirua nola ateratzen zuten, errekan garbitzen pasatutako hotzaz, igande arratsaldeko dantzaz eta gerraren ondorengo goseteaz eta errazionamenduz aritzen da.

Baserriko bizitza

—*Bainan zuk ez duzu... zu leno zuretako ez zineten gaizki bizi.*

—Ez, ez, ez ongi.

—*Ikusten zinuen jende obekiau?*

—Ez bate obekiau, kusten gintuen gu baino makurrau ere, nik e nuen deusen eskasieik izen, sosa aunitz ez ginuen, baina ez naiz beinere sos falta, enaiz beinere...

—*Orai, geyau dugulaik geyo nai duu.*

—Izante, geyo naiti. oixe, bai orduen saltzen bazinuen zerrikumeak sos pixka aken esperoan noiz artuko zinuen sosa ta *¡tan feliz!* ya saltzen zinuen aratzea... ez dut nion arrankuraik izen.

—*Ta otza pastu duzue.*

—Otza ederrak pastu, eskuek suminduek arropa garbitzen aitzen ginelaik ta, askan aitzen ginen arropa garbitzen neguen ta gaten ginuen ur beroa eskuek or sartzeko... otzak!

—*Berotzeko.*

—Ta ez zuek bezala kautzu batzuekin aztalak igual larrutuek edo zangoa kautzuak ola baitie... antxe ibiltzen ginen

—*Ta espartinekin ere...*

—Espartinek ere bai... espartinekin beti.

—*Ta lanean.*

—Ta igual Mutur punte? Autxie bai espartinekin ta arekin ibiltzen ginen, ta kautzu zaar batzuk, ta espartinek... kautzu batzuekin antxe errestaka, antxe altzen bezala. Gaten nitzen Ortxisera bazkariakin ta iratze biltzen pixkek etxea torri ta beiak sartu belaitik etxera ta atxeko afaria in, una torri orduko berriz, ta ogie izaten ginuen etxean...

Ogia egiten

—*Ta ogia zenbat denbora izaten zinen?*

—Urte geienean izeten ginuen ogie.

—*Ta ogia egunero ez zen iten astean bateko...*

—Ez etzen egunero iten, leno aste bateko, labea kendu ginuen ta gero konomiken iten ginuen bi eunetakoe, ta errotaa gaten ginuen xakue egotzera ta andik karri ta pastu setabeen, ta ogiek in ta sotopilek ere bai; ez ginen oren bat beira egoten. Iyande atxaldetan mezperetan gaten ez baginen, iyande arratsaldetan bai, Berradenera gaten ginen firletan aitzera, Martine zena, Auzteiko Mari, Sastemeko Pol ta antxe aitzen ginen firletan iyande atxaldetan ya biziotu ginen ortaa, ez ginuen siestaik iten, ez ginuen egunez iten ez ginuen astiik izeten ta bazkaldute ta segiden gaten ginen Berradeneko atera firletan aitzera ta gero an aspertu ginelaik.

—*Zer aitzera?*

—Firlek, ez dakizu zer diren firlek? Bola bat patu xutik ta inguruz inguruz ta bola bota ta ta gero berriz asi ginen ya Martina zaartu zien ta ya etzien tortzen ta Istakoneko atera gaten ginen gorapera, aitzera partxisean Margarita Istakonekoa, Rosario...

—*Oi noiz?*

—Gero.

—*Zenbat urte...?*

—Bai orai dela igual ogei urte, berroi urte berroi urte igual aitzen ginen

Talao jan

—*Ta gerra sumatu zinen?*

—Lemizian fitxik ez, gero sumatu ginuen ogi gosea sumatu ginuen bordan ginelaik, taloa yaten ginuen arto taloa, gazteak baitzien denak, gu ez ginuen sumatu fitxik; yaten bagintuen taloa gasna, ilarra biltzen ginuen, artoa biltzen ginuen taloa in ta gasna taloa esneaikin... beorrekin gan tzien ez dakit noapaite Endarlazko.

—*Endarlaza.*

—Bai, o ara nonbai, ta pastu zuen amabortz egun edo aitzen gintuen tiruek eta bonbak bonbak eta denak!

—*A aitzen...*

—Bai aise, ta gero artzen tzuztelaik *ciudad...?* Aitzen gintuen ezkilek, tzuzte errietan oi denak aitzen gintuen baino bertzeik ez dugu zautu...

Eskolan euskaraz eta gaztelaniaz

—*Ta eskolan nola ikasten zenuten?*

—Eskolan euskaaz aitzen ginen maistra euskaldune ginuen, beti eskuaz, ta ni ortaz ez nuen erdaraz, maistra Erratzukoa ginuen ta beti euskaaz ure, ta ni erdaraz ez dut

ikasi egundeino, Majosefaikin ta Pantxitaikin ta Nati... ikasi zuen nere aizpek erdaraz, yostera gaten baitzen Erratzure gero koxkortu ondoan ta ure... badaki erdaz ni baino obeki.

Oroitzen naiz karabineroen alabak erdaldunak zien ta bat bi iru lau kontatzeko berrogoi artarano kontatzen ginuen, eta berek ‘bi ogoi’ ta gu kontent ez tzakitela euskaraz.

Gerra ondoko gosea

Ez ginuen zautu fitxik, goseik es ginuen zautu. Gero esposatu geoztik gerra ondoan etzen ogie te kartzen ginuen Frantziatik, ogie ta rasionamentue baitzen, txokolatea ta oiek ere xuur izaten tzien gauzek orduen ta sosa balimazinuen erosten zinuen... Ta azukrea, amabortz duro.

—Amabortz duro?

—Bai, *setenta pesetas*.

—*Oi ze urtetan?*

—Ma Josefa esposatu zelaik oo sortu zelaik, ez paitzien...

—*Oi nondik kartzen...*

—Elizondotik kartzen ginuen ixilke. Kartzen tzakuten azukrea.

—*Azukrea*.

—Bai ta olio e bai, amabos duro paatzen ginuen ta egun batean aitek ta gatue.

—*Nor?*

—Unek, nee gizonak ta konomike gainean utzi izain nuen ta botoile ta gatue konomike gainien ta ai te gatue yo bear zuela asi te botoile autxi... Ta gero izaten zinuen rasionamentue merke izaten tzen, izaten zinuen ilabeteen ez dakit zenbat litro erdi bet edo ez dakit zenbat maten tzuten ez dakit, ez naiz oroitzen zenbat maten tzuten edo litroa ematen tzuten igual familiaintzat.

—*Ta maten tzuten...*

—Azukrea ta txokolatea ta patzen tzitzuzten ta ez bazinuen aski ta sosa balin bazinuen kartzen zinuen Elizondotik. Berantxin etxetik kartzen ginuen ta arek in tzituen bai sosa arek bazuen saltzeko...

Guk ez duu zautu gerra denboran... ogi eskasie bai, ola baina bertzenaz.. Bordan egoten zen ere aitain iloa bertze bat, ure an egon tzen, amar baginen arekin. Gure amak bakarrik taloak iten tzituen, goizean yeiki ta taloak in, ta bazkaltzeko taloak, ta...

Ta ama torri yorratik, ama ee ta talo iten lurreko su in, izerdi putzuten gaizoa!

—*Ta ardia...*

—Ez, ez ardiak ez ginuen izaten, maixter izaten ginuen eun bet ardi, bizpairu lau zerri ta antxe ederki bizi ginen. Iyandetan gaten ginen bailera, Iñarbeiko arat ere bai, bai, ze nauzu?

Elkarrizketatzailea: Ainhoa Miura Ariztia.

Elkarrizketatua: Dionisia Elorga Etxeberria.

9.1. Fonologia

- Yod fonema soinu igurzkariarekin ahoskatzen da. Baztanen, Zugarramurdin eta Urdazubin, beraz, [j] ebakera dago: *yorratik* ‘jorratik’. Bertzaldetik, *jo-* > *go-* bilakaera betetzen da *gan* ‘joan, eraman’ aldaeran. *Joan* ez da Zugarramurdin eta Urdazubin batere ohikoa, eta aukera nagusia *gan* da (Montoya, 2004, 74. orr.) (cfr. 6.1.).

- *st* eta *rtz* kontsonante taldeei dagokienez, *rtz* gailentzen da Urdazubin eta Zugarramurdin eta Baztango mintzoan: *bertzenaz* ‘bestela’, *amaborz* ‘hamabost’ (cfr. 4.1.).

- Aferesia, hots, hasierako bokalaren galtzea arrunta da, Nafarroa Garaiko eremu zabalean bezala: *konomiken* ‘ekonomikan’, *maten* ‘ematen’, *zautu* ‘ezagutu’ (cfr. 1.1.).

- *u* eta *i*-ren ondoren *a* fonema *e* bihurtzen da: *eun bet* ‘ehun bat’, *asi te* ‘hasi eta’, *putzuten* ‘putzuetan’, *ixilke* ‘ixilka’, *eskasie* ‘eskasia’, *erdi bet* ‘erdi bat’, *Erratzure* ‘Erratzura’, *eun bet ardi* ‘ehun bat ardi’. Nafarroa Garaiko eremu zabalean betetzen da ezaugarri hau eta Zugarramurdi eta Baztan eremu honen barnean daude (cfr. Montoya, 2004, 53. orr.).

- Jakina denez, lapurteraz (kostaldean izan ezik) eta behe-nafarreraz ez dago asimilazio bustidurarik eta despalatalizazio joera nabarmena da. Gure testuan bustidura asimilazioa urria da, *-i* bokal osoa eta bokal erdiaren ondoan: *botoile* ‘botila’, *ginen* ‘ginan’, *ilabetean* ‘hilabetean’, *zinuen* ‘zenuen’. Salaburuk & Lakarrek (2005, 50. orr.) adierazten dutenez, palatalizazioaren gaia konplexua da, eta orokorrean erran dezakegu zenbat eta iparralderago joan, orduan eta sabaikaritze gutiago aurkituko dugula. Aldiz, Baztanen bertan, Oronoz, Arraioitz eta Basaburuko herrietan bustidurak arruntak dira, baina baldintza estu barnean.

- Heskari ahostunak nagusitzen dira hitz hasieran: *gatue* ‘katua’. Aldaera hau ohikoa da Zugarramurdin eta Urdazubin (Montoya, 2004, 84. orr.).

- *e-o* > *o-o* bokal asimilazioa dugu, behe-nafarreraz bezala: *ogoi* ‘hoge’, *berrogoi* ‘berrogei’. Zugarramurdiko eta Urdazubiko aldaera nagusiak dira hauek.

- *oi* diptongoa ageri da *botoil* ‘botila’ hitzean eta *eu*-ren metatesia dugu, *eskuaaz* ‘euskaraz’, sistematikoa ez bada ere. Biak Zugarramurdiko eta Urdazubiko aldaerak dira.

- 1. mailako erakusleak *u*-dunak dira, Baztanen eta Zugarramurdin bezala, alegia, *o* > *u* ixten da sudurkariaren aurretik: *unek* ‘honek’, *una* ‘hona’.

- Bokal arteko hasperenaren ordez *g* dugu: *xakue egotzera* ‘zakua ehotzera’. Urdazubi eta Zugarramurdiko aldaera da *ego* hau eta, honezaz gain, Nafarroa Garaiko ultzameraz, Erroibarko euskaraz, eta abarretan ere gertatzen da (Montoya, 2004, 72. orr.).

- Hitz hasieran *x*-izatea Ipar Euskal Herrian ohikoa da, lapurteraz eta behe-nafarreraz batez ere; hots, nafar-lapurteraren ezaugarria da: *xuur* ‘zuhur’, *xutik* ‘zutik’, *xakua* ‘zakua’. Baina hemen, baztaneraz gertatzen den bezala, bertzelako frikariak ere baditugu hitz hasieran: *zerri* ‘txerri’, *zerrikumeak* ‘txerrikumeak’.

9.2. Izen morfologia

- *Norat* adlatibo morfema da nagusi, goinafarreraz eta ekialdeko hizkeretan gertatzen den bezala: *arat* ‘hara’. Zugarramurdin eta Urdazubin adlatiboko morfema bai *-ra* bai *-rat* izan daitezke. Biak agertzen diren arren, ez dago bien artean desberdintasun argirik eta, beraz, bata edo bestea erabiltzeak ez dakar erranahi aldaketarik.

- Genitiboan 3. mailako izenordainetan pluraleko absolutiboaren gainean eraikitako formak nagusitu dira, datibo, destinatibo eta genitiboan: *aken* ‘haien’. Forma hauek mugako herrietan nagusi dira: Irunen, Hondarribian eta Bortzirietan. Baztanen ere *oken*, *oketan*, *oketara* bezalako aldaerak jaso ditugu eta baita Imotzen ere (Apalauza, 2004, 94. orr.), baina, Urdazubin *oiki* ‘haiei’ ere bildu du Montoyak (2004, 126. orr.).

- Soziatibo morfema *-aikin* da: *Josefaikin* ‘Josefarekin’, *esneaikin* ‘esnearekin’. Halakoak badira Nafarroako ekialdeko hizkeretan, hala nola Erroibarren (Ibarra, 2000, 101-102. orr.), Artzibarren edota Aezkoan (Camino, 1997, 379-380. orr.); Imotzen eta Larraunen ere kasu bakanen bat ageri da. Gisa berean, genitiboan *-aren* > *-ain*, bilakaera dugu, nafarreraz ohikoa dena: *aitain iloa* ‘aitaren iloba’. Lapurteraz, behe-nafarreraz eta goi-nafarrerako hizkera askotan gertatzen da. Bilakaera hau bereziki indartsua da Zugarramurdin eta Urdazubin, eta zaila da salbuespenak aurkitzea.

- Destinatiboan *norendako* eta *norentzat* erabiltzen badira ere, lehenengoa maizago entzuten da; tesu honetan, ordea, bigarrena agertzen zaigu: *familiaintzat* ‘famiarentzat’, Montoyak (2004, 114. orr.) erraten duenaren kontra: «Zugarramurdin eta Urdazubin... *-tako* morfema erabat nagusi delako», Erratzun ere *-tako*, *-dako* dira aldaera ohikoak (Salaburu & Lakar, 2005, 75. orr.).

- 3. mailako izenordain ergatiboa *arek* da, eta *unek* 1. mailakoa, Urdazubin eta Zugarramurdin eta Iparraldeko hizkeretan bezala.

- *Artaraino* postposizioa arrunta da: *berrogoi artaraino* ‘berrogeiraino’, goinafarreraz *artio* forma laburtua ohikoagoa bada ere. *Artaraino* aldaera Urdazubikoa da, nahiz arruntean «aditza + *arte*» den egiturarik arruntena; «aditza + *artaino*» agertzen da testu zaharretan (Montoya, 2004, 120. orr.).

- Instrumentalaren morfema *-z* dugu, ez *-s* nafarra: *euskaaz ure*, *ta ni erdaraz* ‘euskaraz eta ni erdaraz’.

- Adlatiboan *-ra* morfema dugu, ez *-rat*: *etxera*, *Ortxisera*. Montoyak (2004, 119. orr.) biak aukeran daudela erraten du eta bata edo bertzea erabiltzeak ez dakar esanahi aldaketarik.

- Adlatibo destinatibo morfema *-ko* da: *aste bateko* ‘aste baterako’. Morfema hau ekialdeko hizkeretan ezaguna da; erdialdeko eta mendebaleko hizkeretan, berriz, *-rako* da formarik ohikoena.

-*Nion* tankerako izenordainak Baztan eta Zugarramurdiko (Montoya, 2004, 125. orr.) bereizgarriak dira eta lapurterarekin batzen gaituzte. Nafarroa Garaian baziren horrelakoak aspaldi; gaur egun mugako herri batzuetan baizik ez da gorde, eta Baztangoizan, Erroibarren eta Esteribarren (*cfr.* Ibarra, 2000, 133. orr.).

9.3. Aditz morfologia

- **Edun* aditzaren iraganaldiko adizkietan *e > i* gertatu da, Zugarramurdin, Urdazubin, eta goinafarreraren ohikoa den bezala: *iten ginuen* ‘egiten genuen’.

- Nork-nori-nor aditz paradigman *-aku* erako formak nagusitu dira, Urdazubiko, Zugarramurdiko eta Baztango hainbat herritako mintzoan ohi den bezala: *kartzen tzakuten azukrea* ‘ekartzen ziguten azukrea’. Bi erro erabiltzen dira gaur egun Urdazubin eta Zugarramurdin, **i* eta **eradun* erroak, eta azken honek bizirik jarraitzen du datiboko 1. eta 2. pertsonekin. Erratzun, ordea, *erran zion*, *bota zion*, *erran zioten* gisakoak biltzen dira sistematikoki, 1973. urteko grabaketa batean oinarrituz (Salaburu & Lakar, 2005, 207, 209. orr.).

- Geroaldiko morfema *-en* da *-n* kontsonantez bukatutako aditzetan. Honen hedaduraz *cfr.* (5.1.). Zugarramurdin eta Urdazubin *-anen > -ain* bihurtu da, genitiboan bezalatsu, eta oso joera indartsua da: *utzi izain nuen* ‘utzi izanen nuen’.

- Nor-nori-nork paradigman, 3. pertsonaren datiboko morfema *-ote* da, goinafarreraren eremu handian ohi den bezala: *ez nioten eitten umei* ‘ez nien egiten umei’.

9.4. Sintaxia

- *-larik* morfema nagusitzen da denborazko esaldietan, baztaneraz eta mugaz bestaldera ohikoa den bezala: *orai*, *geyau dugulaik geyo nai duu* ‘orain gehiago dugularik, gehiago nahi dugu’, *esposatu zelaik* ‘esposatu zelarik’.

- *Bait*-ekin osaturiko kausazko esaldiak nagusitzen dira, behe-nafarreraz eta goinafarreraz ohikoa denez. Ez dugu *-lako*-ren arrastorik aurkitu: *ez baitzien* ‘ez baitziren’, *gaten baitzen* ‘joaten baitzen’, Montoyak kontrakoa baieztatzen badu ere. Zugarramurdin eta Urdazubin *bait*- zein *-lakotz*, biak erabiltzen dira, eta bata zein bertzera guztiz arruntak dira (*cfr.* Montoya, 2004, 220. orr.).

- Perpaus neutroetako *ba*- aurrizkia: Zugarramurdin eta Urdazubin neutroak diren perpausetan *ba*- ager daiteke (*cfr.* Montoya, 2005, 240. orr.). Ezaugarri honetan bi herri hauek mugaz bertzaldekoekin bat egiten dute: *amar baginen arekin*.

9.5. Lexikoa

Arrankura ‘kezka’, *aztala* ‘orpoa’, *belai* ‘belardia, hesiekin itxia’, *berantxin* ‘berandutzean, arratsean’, *berrogoi* ‘berrogei’, *ego* ‘eho’, *egundeino* ‘egundaino’,

firletan ‘birletan, firiletan’, *gorape* ‘atari’, *fitxik* ‘deus ez’, *gasna* ‘gazta’, *gaten* ‘joaten’, *ilarra* ‘babarruna’, *kautzuak* ‘kautxoak, gomazko bota antzeko batzuk’, *larrutua* ‘larrua kenduta’, *oren* ‘ordu’, *sosa* ‘dirua’, *setabe* ‘zetabe’, *zango* ‘hanka’. Joan aditzaren aldaera *gan* da, baztaneraz bezala eta baita Urdazubin ere. Bi adiera ditu aditz honek: batzuetan *joan*-en aldaera da: *iyandetan gaten ginen bailera* ‘igandetan joaten ginen dantzara’; eta *eraman*-en sinonimoa, bertzeetan: *gaten ginuen ur beroa* ‘eramaten genuen ur beroa’.

9.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak

Urdazubi-Baztango testu honek Baztango mintzaeraren eta nafar-lapurteraren ezaugarriak islatzen ditu argi. Ipar Euskal Herriko eragina nabari da askotan. Lexikoan honako itemak dira nafar-lapurteraren hizkeren bereizgarriak: *gasna* ‘gazta’, *egundeino*, *arrankura*, *gorape*, *oren*, *ilar* «alubia» eta *fitxik* eta aldaera hauek: *ogoi*, *botoil*, *berant*, *eskuaz* aditzondoa edo *nion* ‘inon’, lapurteraz bezala.

Honez gain, genitiboaren forma *aken* ‘haien’ dugu, mugako hizkerekin lotzen gaituena, eta Baztan eta baita Malerrekarekin ere. Izen morfologian, badago genitibo singularraren *-aren* > *-ain* bilakabidea, bai eta adlatibo eta destinatibo *-ko* morfema ere, eta *-entzat* morfema destinatiboan eta *ba-* perpaus neutroetan. Bertzaldetik, hitz hasieran *x-* izatea ere nafar-lapurteraren ezaugarria da: *xuur* ‘zuhur’. Baina, bertzelako frikariak ere baditugu: *zerri* ‘txerri’. Hauexek Urdazubi-Zugarramurdi mendebaletik nahiz erdialdetik banatzen duten ezaugarriak dira, baina ezaugarri batzuetan ere baztanerarekin batera doaz.

Hala ere, gero eta hegoaldeetik hurbilago ikusten dugu. Adibidez, ez dugu kontsonantez edo «kontsonante + *e* mutua»-z bukatutako frantses mailegurik, alegia, *ekipa*, *minuta* erakorik. Bertzaldetik, ez dago *st* kontsonante taldea, Nafarroa Beherean eta toki gehiagotan dagoena, Baigorri izan ezik. Fonologian ere Lapurdin eta Nafarroako eremu gehiengan arrotza da *i* bokalak eragindako bustidura asimilazioa. Zugarramurdi-Urdazubietan ez dago hurbileko bokal asimilaziorik, eta testu honetan, ordea, bai. Honez gain, ez dago TO GEN egituraren arrastorik: *ama ee ta talo iten* ‘ama ere taloa egiten’, *xakue egotzera* ‘zakua ehotzera’ ditugu. Zelaietak (2008, 204. orr.) bere sailkapenean gaur egungo isoglosatzat hartzen du hau, Zugarramurdi-Urdazubi eta Baztan barnean hartzen ditu, baina, bistan denez, ez da hain sistematikoa. Gisa berean, «partizipioa + *-a*» egitura dela ohikoena dio Montoyak (2004, 188. orr.), eta «partizipioa + *-ta*» egitura behin edo bestetan baizik ez da agertzen»; testu honetan, ordea *izante* ‘izanda’ dugu, *-nta* bukaerarekin, Zugarramurdin, Lapurdiko Saran, Malerrekan, Bertizaranan eta Baztanen ohikoa denez. Bukatzeko, ez dugu Ipar Euskal Herrian (Montoya, 2005, 118. orr.) hurbiltze adlatiboko *-ri buruz* egituraren arrastorik aurkitu: *atera*, *gorapera* eriden ditugu.

Horregatik diogu baztaneraren ezaugarri batzuk erakusten dituela testu honek: *a* > *e* bokal asimilazioa, 1. mailako erakusle *u*-dunak eta aferesiaren hedapena eta adlatiboan *-ra* morfema, ez *-rat*. Honenbertzez, gure ustez, Nafarroako iparraldean gertatzen ari den aldakuntzaren adibide gardena da hau, alegia, Lapurdirekin eta Nafarroa Behereko eskualdearekin lotuagoa zegoela antzina eta orain nafartzen ari dela. Azkenik, testu honetan Zuazok (2014, 108. orr.) ematen dituen ezaugarrietatik bakarra betetzen da:

3.a Tarteko hizkeratzat jotzen du Zuazok (2014, 94. orr.) Urdazubikoa eta testu honetan izaera hori nabarmentzen da.

Jakina denez, baserriko lana amaigabea izaten zen, eta eginbeharrak handiak eta desberdinak: aziendari bazka ematea, bilketa eta garraiatze lanak eta horrez gain, etxeko lan guztiak. Eginbehar hauek guztiak, alegia, ogia egitea, liziba, bazkaria prestatzea eta abar emakumeek egiten zituzten:

Horrela biltzen da Aranzadiko entziklopedian baserriko lan amaigabea:

En fin: es viviendo entre ellos, conviviendo en su casa, asistiendo a las mil labores que desempeña la familia agrícola del caserío vasco, como se da uno cuenta del «agobio» de trabajo, del enorme peso que supone en ellos la necesidad de «hacer» («eginbearra»), la necesidad de continuar trabajando, labrando, sembrando, cuidando las parcelas, recogiendo, almacenando, transportando y vendiendo, aparte de darles de comer a los animales dos o tres veces al día, forraje verde que hay que cortarlo y llevándoles a beber a la fuente otras tantas veces... En fin, mil trabajos a la semana. (E. A., 1959, 123. orr.).

Gainera, emakumeek zenbat eta iparralderagoko herrietan egon, are gehiago egin behar zuten etxetik kanpoko lanak. Ogia etxeko labean egiten zen, aste gutzirako. Aurretik errotara joan behar izaten zen zakua ehotzera. Gehienetan gariaren hirina erabiltzen zen, baina, eskasia zegoenean artoa erabiltzen zen. Ogia zortzi egunetatik behin egiten zen.

Gero taloa jaten zen. Horrela kontatzen du Iztuetak (1847/1975) XIX. mendearen hasieran nolako abantailak zituen artoak:

Muchas veces se les ve, en efecto, que no sólo en igualdad de condiciones prefieren el maíz al trigo, porque bien saben que el rico y caliente talo es mejor para comer sólo, adoctrinados por la costumbre que el pan endurecido y viejo. Por esta razón, los labradores de Guipúzcoa muestran sumo empeño en seguir cultivando el maíz. En efecto, ¿qué otro alimento habrá que el campo proporcione con mayor rapidez, tan abundante, tan buen saciador del hambre, tan sólido, y, para comerlo solo, tan suave, dulce y bueno? Desde que se siembra, ya para el quinto mes, se encuentra maduro. Da en abundancia la hoja, la flor y el envoltorio para alimento del ganado, el tallo para abono y la mazorca, una vez desgranada, para combustible, del hogar; y sus dulces, nutritivos y abundantes granos para saciar la gente, al capricho.

Jakina denez, artoak gose handia kendu du Euskal Herriko baserrietan. Amerikatik ekarritako landare honi kostatu zitzaion urte batzuk Euskal Herrian sustraiak hartzea eta 1625. urtean, Gipuzkoan behintzat ogia egiten hasi zen honekin. Horrek ekarri zuen abantaila handia gosetearen kontrako borrokan. Artoaren pikorra, aziendarendako jakia izaten zen eta baita familia handien gosetea kentzeko ere. Lehenik, burdin borobil batean, txapa batean berotzen zen, eta ondoren, sukalde ekonomikoaren gainean egiten zen. Sukalde horrek, 1920-30 urteen inguruan jarri zenak, aurrerapen handia ekarri zuen etxeetara; jakiak prestatzeko erraztasun handia ekarri baitzuen, eta aldi berean, etxean ur beroa izateko aukera.

Gerra zibilaren ondoren, gosete garai latzean, berriz ere artoa nagusitu zen etxeko janarietan, grabaketa honetan dioen bezala, gariaren eskasia zela eta. Horregatik, anitzetan afaltzeko artoa eta esne beroa hartzen zen. Gosaltzeko ere 1900-1940 urteen bitartean bizi zen jendeak hartzen zuen artoa eta zopak esnea, azukrea eta gatz pixka batekin. Artoz landatzen zen eremu handi xamarra baserriaren ondoan, eta toponimia ugariak horixe islatzen du; etxe ondoko soroetan *Artorri* eta *Artoalor* izeneko soroak egoten baitziren Erroibarren, adibidez.

Grabaketa honetan, badago aipu bat janzkeraren inguruan. Garai hartan, gizon anitzek oinetan ezpartinak janzen zituzten lurra idor zegoenean. Oinateko honen garrantzia adierazgarria da (1833-1839) lehen karlistadan Espainako ejertzitoak aukeratu zuen ezpartina kanpainako oinetako bezala. Poliki-poliki bertze oinetako modernoago batzuek ordezkatu dituzte ezpartinak, baina oraindik orain saltzen da udako oinetako gisa eta dantza-talde anitzek gordetzen dute zenbait dantza folklorikotan.

Baina, lurra bustirik zegoenean kautxuak jartzen zituzten. Alegia, kautxuz egindako oinetakoak, errestaka eramaten zirenak, alegia gomazko oinetakoak ziren. Larruzko abarrek indarra galdu zutenean, gomazkoak hasi ziren, horiek 1950. urteetan nagusitzen hasi ziren eta autoetako kautxuekin egiten ziren. Kautxu horien puska horiek bihurritu eta gero makina batekin berdindu behar ziren prentsa elektriko bat erabiliz. 20 minututan presioan izan ondoren, eta hoztu ondoren, goma moldatua zegoen eta mozteko prest (*cf.* Imbuluzqueta, 1996, 290-302. orr.).

10. URDIAIN

Biak Urdiainen jaioak, emaztea 1919. urtean jaio zen, eta senarra 1926.ean. Herrian bizi dira eta bertako euskaraz egiten dute. Elkarrizketa 2001. urtean egin zien herriko ezagun gazte batek. Umeen hainbat jolasez mintzo dira: «Karnekan», «Artxikan», «Mutxikan», «Komekexua», «Mankanakan», «Pipitokue» «Pilotakan». Izen hauek zituzten garai hartako jolasek. Bertzaldetik, momoxorren berri ematen du eta argi uzten du nola aprobeztatzen zuten egoera hau neskekin lizunkerietan aritzeko.

Umeen jolasak

—*Zertara jolasten zenuten eta zeintzuk ziren jolas gustokoenak?*

—Txikiek gindala, asko «karnekan» ibiltzen gindan, «karnekuluek», ezur puxkak zian. Errekrea atazten gindanian korruen kuadrilla bat patzen gindan eta an ibiltzen gindan *karnekan*. Sokakin saltokan re bai asko ibiltzen gindan.

«Artxikan» re bai yoten gindan, atxiek bietzak bairdo lodixoko egur puxkak zian, bobilak, iru o lau laun goran patzen gindan goiko Latastan⁴ makil eta atxiekin eta beste iru o lau laun makillakin gainbien patzen zian. Goitik «Atxi!» esaten gendun eta bestiek gainbetik «putxi!» Orduen atxi ua botatzen genduen makillakin batia, korrikan goikuek makillak artu berko genduen eta gainbekuek atxia, aiek atxia artzen bazein gu makilla artu lenuo eta gu... eusten bazein, geure lekua fan bairdore lenuo atxi arrekin eskutan, erreik! Esaten zein eta orduen goikuek gainbia fan berko zian eta gainbekuek gora.

4 Herriko toki bat, aldapa handia daukana.

«*Kukutan*» re bai ibiltzen gindan. Bizkarrez jartzen zan, burua paretan jarrita kontatzen zan eta bestiek korrikan estaltzia faten zian.

Gu mutxikan asko ibiltzen gindan, «*Atxikan*» asko ibiltzen gindan; gio re bai mutikuek pixkat astu eta lazkarriyokuek gindala beste jokuta «*mutxikan*» ibiltzen ginda «*Estakatxurrero*» garraxi iten genduen batzuk estalduik yoten zian eta bestatzuk aurretik estakakin segitzen zian, arrapatzen zianai jo eta yasta, jotzia zan dana.

«*Komekexo*» oi zan oi lazkarrikeya, joku au Vitorio difuntuek yakus zen. Kutxilua artu eta lurrien sartzen zan, oinbeste falta iten bazenduen, kutxilua ez sartzen, olako atxi txiki bat, zotz txiki bat, lurrien sartu eta ortzakin ata berko zan. Oi Elizazpien iten genduen, an zotza sartzen genduen, leku artan kaka guztiek iten genduzen eta an jolasten genduzen «*komekexua*».

Pilotakan re bai asko jolasten genduen. Bazon joku bat «*Mankanakan*» karduzko pilota batekin jotzia, nik zuri jotzen banezun zuri, zu jartzen zindan neri jotzeko pilotakin.

Joku polit bat «*Pitipotuek*» zian, gustua jolasten genduen orta, tomatu potuek alanbre batekin, tapiluka lotu, an anak sartu eta zein laisterrao ailatu arek ibazten zun.

Aundixo gindanien kartaka jolasten genduen geyenbat. Aparte «*mantagunak*» re bai iten genduen, guai re bai iten dia bea momoxarruen launbatien bakarrik, leno udazkenetik otsailia bitartien iten zian, momoxarruek artia ibiltzen gindan. Gaubietan manta aundia butik patzen gindan eta jantzi be zenai jotzen gendian, neskai leku ilun batia yaten gendian eta ipurdia ikutzen gendian.

Momoxorroak

Momoxorrotako donbeka momoxarro txiki iten zan, guaindo re bai iten da, eta asteartien momoxarro aundiek, momoxarro bea seriuek, segiekin da atatzten zian. Akordatzen naiz urte batien Karretero Javier da segiekin ata ziala, aundi-aundiek narru oiekin jendiei bildurtzen zian.

Afizio aundiena emakumiei eskua ipurdien sartzia zan. Ikagarriek izaten zian momoxarruek, etxetan sartzen zian barruko jendiei kanpua atatzeko. Egun artan etxe guziek zabalik yoten zian eta ez bazein, etxeko jabiak momoxarrueiri ataya zabaltzen zian barruen zenai jotzeko, klaro, ebeiri ez zian jotzen ataya zabaltzen ziaailakoz, bea ondo pasatzen genduen, leno gutxi ibili eta gayo disfrutatzen genduen.

Aundixo gindanien Altsua faten asi baindo lenuo, neskak ingutzen zian Otxoetarren terrazan, iluntzien terraza arta faten gindan gu re bai, ebeiri ipurdien jotzia faten gindan, bea amarretako etxien yon berko gindan. Aurrexo Altsua faten asi gindan, amarrak artio musika yoten zan da, jairo faten gindan dantzaitia eta ez poteua, guk dantzaiten gustua yoten gindan batzutan poteua re bai faten gindan, bea oso gutxitan. Amarrak ailatzen zianien andragaya zukainak, andragayekin da bestiek obenien Martinentxia faten gindan eta azkeneko dantzaildia Urdinen bota ta etxia.

Elkarrizketatzailea: Itxaso Saenz Pascual.

Elkarrizketatua: Kamino Zufiaurre eta Isidro Etxabarri.

10.1. Fonologia

- Bi bokal berdinak direnean, *b*, *d*, *g*, *r* tarteko kontsonantea galdu eta batean biltzen dira, bokal luze gisa gauzaturik: *bobilak* ‘borobilak’, *butik* ‘burutik’. Fenomeno hau arrunta eta oso bizia da erdialdeko hizkeretan, eta bereziki Sakanako erdigunean (Zuazo, 2010, 54. orr.). Sakanan (Etxarrin eta Lakuntzan) eta Burundan berezkoa da aldaera hau: *Bage* > *bae* > *bee* bokal arteko herskari ahostunaren galera badago: *jantzi be zenai* ‘jantzi gabe zenari’ (cfr. Erdozia, 2001, 65. orr.).

- Bertzaldetik, *-ago* morfemak bilakaera hau du: *-ago* > *-ao* > *-oo* eta *-o*: *aundixeo* ‘handixeago’, *aurrexo* ‘aurreraxeago’, *astuo* ‘astuago’, *aundixo* ‘handixeago’.

- *oa* bokal taldeak hitz hasieran dagoenean *g*-protetikoa hartzen du, Sakanan ohikoa denez: *guai* ‘orain’, *guaindo* ‘oraino’. Ezaugarri hau Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarritzat har daiteke, baina erdialdera ere hedatzen da: Imotzera, Basaburu Nagusira. Apaluzaren (2008, 68. orr.) datuen arabera *goa-* eta *gua-* duten aldaera batez ere goinafarreran eta Zaraitzun ageri dira, eta badira adibideak Aezkoan, Nafarroa Beherean, Zuberoan eta Oiartzun aldean ere bai. Nafarroako ipar ekialdean ere ezaguna da (Baztan, Malerreka, baina ez Arakilen). Beraz, gutxi gora-behera Nafarroako Garaiko erdiguneko bilakabidea da.

Hitz hasieran *-eo* > *io* > *yo*, *ea* > *ia* > *ya* bilakabideak ditugu, azkenean *y* kontsonante igurzkaria bihurtzen delarik aditz batzuetan: *yoten zan* ‘egoten zan’, *yon* ‘egon’, *yakus* ‘erakuts’. Hau gertatzen da hitz erdian ere: *ataya* ‘ataria’. Ezaugarri hau Sakanatik kanpora ere Larraungo ekialdean, Basaburuan eta Imotzen ezaguna da.

- Nafarroa Garaian hain hedatua dagoen *i* eta *u* ondoko bokal asimilazioa hemen ere agertzen da: *ipurdien* ‘ipurdian’, *gainbien* ‘gainbeheran’ (cfr. 1.1.).

- Burundako bereizgarria da *n* > *nd* eta *n* > *nb* egitea zenbait hitzetan: *baino* > *baindo*, *oraino* > *guaindo*, *gindan* ‘ginen’, *dombekan* ‘domekan’. Horrezaz gain, muga adlatiboko *-do* morfema ohikoa da Burundan, bereziki Urdiainen: *guaindo* ‘oraino’.

- *f* > *p* egitea Burundako joera da, nahiz eta gaur egun ihartutako araua den. Bertzaldetik, erran bezala, *joa-* hasierak *f*-egiteko joera du, eta pertsona izenetan ere erabiltzen da: *Fan* ‘Juan’ eta *Fakina* ‘Joaquina’ (cfr. Zuazo, 2010, 64. orr.). Hitz hasieran /*x*/ > /*k*/ gertatu da Urdiainen, alegia, fonema belarea herskari ahoskabe bihurtu da. Horregatik, *Kazinto* eta *kikara* hitzak erabiltzen dira, bertzeak bertze.

- Bokal arteko *b*, *d*, *g* eta *r* galtzea oso arrunta da. Hizkera lasterrean gertatzen dira galera horiek, eta batzuetan aukerakoak dira, baina bertze batzuetan galtze horiek erabatekoak dira eta, hala bada, Urdiainen galdu dira: *aitu* ‘aritu’, *ata* ‘atera’, *eosi* ‘erosi’, *butik* ‘burutik’, *inik* ‘eginik’, *bazon* ‘bazegoen’, *lenuo* ‘lehenago’, *aurrexo* ‘aurreraxeago’, *ingutzen* ‘inguratzen’ (cfr. 3.1.).

- *u* eta *a*, *e*, edo *o* bokalen artean *b* sartzeko joera indartsua zen eta kolore berezia ematen dio hizkera honi. Honen hedaduraz (cfr. 6.1.): *gaubietan* ‘gautetan’.

- Asimilazio bustidura ez da Burundako ezaugarriarik esanguratsuen, hau da, *i* bokalak ondorengo kontsonantean ez du eraginik, baizik eta ohikoa da *il*, *it*, *in* segidak palataldu gabe ahoskatzea: *pilota* ‘pilota’, *ailatu* ‘heldu’, *ilun* ‘ilun’, *iluntzin* ‘iluntzean’,

iten ‘egiten’, baina testuak salbuespenak badira: *makilla*, *kuadrilla*. Sakana osoan eta bere inguru guztiko hizkeretan indartsua da bustidura; Etxarrin eta ondoko Goierrin ere bai. Burundan, ordea, saihestu da bustidura (*cfr.* 3.1.).

- *-ra* morfemaren *r* kontsonantea maiz galtzen da, eta *o*, *e* bokalez bukatutako hitzetan *-ua* eta *-ia* taldeak erruz agertzen dira: *Martinentxia* ‘Martinen etxera’, *gainbia* ‘gainbehera’, *Altsua* ‘Altsatsura’, *kanpua* ‘kanpora’, *gustua* ‘gustura’. Goranzko diptongoak agertzen dira hemen, honen hedaduraz (*cfr.* 5.1.). Eremu horrekin egiten du Sakana osoak bat, eta maiztasun handiz gertatzen dira *wa*, *we*, *ja*, *jo* diptongoak (Zuazo, 2010, 50. orr.).

10.2. Izen morfologia

- Urdiainen *bea* ‘bera’ eta *ebeik* ‘berak’ erraten da. *Ebeik*, *ebeiri*, *ebein*, *ebeikin*, horrelakoak erabiltzen dira deklinabide osoan. *ebek* ‘hauek’ aldaera Nafarroa Garaiko eremu handian, Erroibarren erraterako, antzekoak nagusitzen dira (*cfr.* 5.2.).

- Postposizioen artean *artio* dugu: *amarrak artio* ‘hamarrak arte’. Ezaugarri hau goinafarrera hegoaldekoan, behenafarreraz eta lapurteraz ohikoa da.

- Sakana osoan dago *-ka* atzizkia *-kan* egiteko joera: *Mankanakan*, *pilotakan* ‘pilotaka’, baina *kartaka*, *tapiluka* ere baditugu testu honetan.

- Datibo pluralean *-eiri* / *-airi* aldaerak sortu dira: *momoxarrueiri* ‘momoxorrueri’, *ebeiri* ‘haiei’. Burundako hizkeraren bereizgarria dugu hauxe, baina mendiez bestaldean antzeko egoera daukagu Oñatin (Zuazo, 2010, 200. orr.).

10.3. Aditz morfologia

- Aditz laguntzaileetan *nd* taldea nagusitzen da **edun*, **i* eta *izan* aditzen iraganaldian: *genduen* ‘genuen’, *jotzen gendian* ‘jotzen genien’, *jolasten genduen* ‘genuen’, *gindan* ‘ginan’.

- *Eduki* aditzaren iraganaldiko adizkietan *eu* > *u* monoptongazioa gertatu da: *zukai* ‘zeukatenak’ (*cfr.* Zuazo, 2010, 152. orr.). Burunda gehienez *eduki* nagusi da eta *zeukan* > *zukan* gertatu da, alegia, *-u-* dugu *eduki* aditzaren erroan.

- Nork-nori-nor aditz sistema erabiltzen da Nork-Nor-en ordeaz: *nik zuri jotzen banezun* ‘nik zuri jotzen banizun’.

10.4. Sintaxia

- *Zein...hura...* bidezko egiturazko perpausak agerian daude: *zein laisterraio ailatu arek ibazten zen* ‘zein lasterrago heldu, harek irabazten zuen’. Zuazok dioenez (2010, 108. orr.) Urdiainen bi izenordainak *zein/nor* erabiltzen dira. Egitura honetaz gain, orokorrean, *zein* galdetzailea Gipuzkoako hizkeretatik hurbil dauden eremuetan ageri da, hala nola Aranon, Areson, Sakanako erdialdean (Erdozia, 2001, 185-186. orr.), Bortzirietan (Zelaieta, 2004, 241. orr.), eta baita Araitz Betelun ere.

- Kausazko perpausetan *-lako*z morfema erabiltzen da: *ataya zabaltzen ziailako* ‘ataria zabaltzen zietelako’. Zuazok dioenez (2010, 181. orr.), Urdiainen adineko hitzunik maizago erabiltzen dute *-lako*z aldaera hau, gainerako herrietan, ordea, *-lako*

nagusitzen da. Ezaugarri hori Donostiatik eskuin agertzen hasten da, eta hedadura zabala du: Bortzirietan, eta abar.

- (*e*)la denborazko morfema agertzen da: *txikiek gindala* ‘txikiak ginenean’; jakina denez, morfema hau ugari da mendebalean eta erdialdean.

10.5. Lexikoa

akordatu ‘oroitu’, *atxiek* ‘behatzak baino lodiagoko hezur puskak’, *bea* ‘baina’, *be* ‘gabe’ (eta *beiko/baiko* ‘gabeko’), *karnekan* ‘jolas mota, hezur txikiekin jolasa’, *karnekulo* ‘hezur txikiak umeek jolasteko, taba antzekoak’, *kartaka* ‘kartetan’, *lazkarrieki* ‘nazkagarria’, *mantagunak* ‘manta egunak (mantekin estaltzen ziren besta egunak)’, *mutxikan aitu* ‘jolastu, denborapasa moduan edo kirola eginez’⁵, *narru* ‘larru’, *obenian* ‘hoberenean, agian’, *tapiluka lotu* ‘korapilota lotu’.

10.6. Ondorio linguistiko eta etnografikoak

Testu honetan Sakanako ezaugarri berezko batzuk agertzen dira eta bertze batzuk orokorrak eta mendebaldearekin loturikoak eta guti dira nafarrerarekin lotzen dutenak: *artio* aldaera da nabarmenena. Orokorrak dira hauek: *-ea > -ia* eta *o > u* eta *-oa > -ua* (*gustua* ‘gustora’), hemen Euskal Herriko gainerako alderdietan baino indartsuagoa da. Eta, hitz hasieran *eo > io > yo*, *ea > ia > ya* bilakabidea oparota da: *yon* ‘egon’, *yakus* ‘erakuts’ agertzen dira.

Bertzaldetik, Urdiaingo testuan bertako hizkera biziaren erakusgarri da *ebeik* aldaera. Horrez gain, aldaera esanahigarriak hauek dira: *be* ‘gabe’ (eta *beiko/baiko* ‘gabeko’) eta *n > nd* bilakaera aditzetan: *genduen* ‘genuen’, eta *-do* morfemarekin osaturikoak: *guaindo* ‘oraino’, *baindore* ‘baino lehen’ aldaerak ditugu. Aditzetan, esperatzekoa zenez, *eduki* aditzak **edun* ordezkatu du: *andragaya zukainak* ‘andregaiak zeukanak’. Sintaxian, *zein* galdetzaila Gipuzkoako hizkeretatik hurbil dauden eremuetan ageri da, eta Urdiainen agertzen zaigu, eta baita *-nean* ere, Larraun osoan eta Sakanan nagusi dena. Azkenik, *-lako* ageri da, adineko hiztunen aldaera, gazteengan *-lako* nagusitu baita. Lexikoan *narru* ‘larru’, *tapiluka* ‘korapilota’, *momoxarro* hemengo hitz bereziak dira eta lehenengoan mendebaleko eragina sumatzen da.

Bigarren maila batean, Zuazok (2010, 218. orr.) *-kan* atzizkia erabiltzeari buruz aipatzen duen joera ez da hain sistematikoa: *kartaka*, *tapiluka* erakoak ere bai baitugu testu honetan. Gisa berean, kausazko esaldietan *-lako* agertu da, eta ez da «*nolabait + aditza + -en*» egituraren arrastorik aurkitu (Zuazo, 2010, 218. orr.); honenbertzez, ez dirudi Sakanako bereizgarri sistematikoa denik.

Azkenik, testu honetan Zuazok (2014, 108. orr.) ematen dituen ezaugarrietatik bakarra betetzen da: 11.a Tarteko hizkeratzat jotzen du Zuazok (2014, 97. orr.) Burundakoa eta testu honetan izaera hori nabarmentzen da.

Etnografiari dagokionez, umeen jolasik gehienak kalean izaten ziren, naturarekin harremanetan, amurrainez betetako ibaietan, masustez betetako bide zidorretan,

5 Urdiainen eta Bakaikun *mutxikan aritu edo ibili* ‘jolastu’.

sugandilez jositako hormetan, horixe zen jolastokia, karrika. Gure herrietan hauek ziren jolasik ezagunenak: pote-potean, kinkinean, karnekuluan, kuriketan, harrapaketan eta herri bakoitzean asmatutako jolasetan. Harrigarria da zein aberastasun erakusten duten umeen jolas mota horiek; eguraldi ona egiten zuenean karrikan bertan jolasten zen. Euria eta elurra egiten bazuen elizako atarian, ikuiluko txokoren batean, eta bereziki frontoietan. Haurrak herriko edozein txokotan egoten ziren, eta haien zalaparta eta algararekin alaitzen ziren herrietako karrikak. Gurasoek ere parte hartzen zuten umeen jolasetan: trapuzko pilotak eginez, zanbaluzkak bi sokekin, zurezko tresnak eta txirribilak, alegia, umeek burni batekin eramaten zituzten burdinezko gurpilak.

Zugarramurdiko testuetan ikusi dugu firletan, birletan ‘boloekin’ jolasten zutela; hori izaten zen ohiko jolasa. Horrez gain, *karnekuluak* hezur puskekin egindako jolasa zen. Jolas hori *–las tabas* erdaraz– oso errotua zegoen herri guztietan eta bereziki azienda dagoen tokietan. Joku hau antzinako Grezian jolasten zen eta Europatik Ameriketara eramane zuten. Jolas horren oinarria karnekulua gora botatzea da eta apustua egitea segun nola erortzen den, lau aldeak desberdinak baitira. Karnekulua da hezur puska bat, ‘astrágaló’ izen zientifikoa duena; gehienetan arkumearen atzeko hankena erabiltzen zen eta haurrak zain egoten ziren arkumea noiz hil, horiek hartzeko.

Bukatzeko momoxarroen tradizioa aipagarria da herri honetan; hain zuzen ere, moxorroen jantziek, eta maskarek beldur izugarria ematen zuten. Horrez gain, egun hauek aprobetxatzen ziren debekuak hausteko, hain zuzen ere neskei hurbiltzea eta ikutzea. Horixe esaten du Urdiaingo berriemaileak momoxorroen ohitura zein zen kontatzen duenean: ‘Afizio aundiena emakumiei eskua ipurdien sartzia zan’ eta beranduago errepikatzen du: ‘ebeiri ipurdien jotzia faten gindan’ eta beherago: ‘neskai leku ilun batia yaten gendian eta ipurdia ikutzen gendian’.

Dueñasek (2001, 5. orr.) hauxe bera azpimarratzen du:

¿Qué se encierra detrás de la máscara?: ¿caso unos pensamientos algo salvajes no llevados a cabo en circunstancias convivenciales a lo largo del año? Era la posibilidad de conseguir tocar el culo, o levantar las faldas a una joven. De esta forma pensaban algunos activos disfrazados de principios de siglo.

Jakina denez, inauterietako garaiak ekartzen du hausdura arauekin eta urte guztiko neurriak hautsik, bertze hauek nagusitzen dira festa hauetan: neurrigabekeria, lizunkeria, barre-algara eta iseka.

11. ONDORIOAK

Mende hasieran jaiotako hiztun hauek agerian uzten dute bertze gizarte mota batean bizi izan zirela. Ikusi bertzerik ez dago pasarte hauen iruzkina atal bakoitzean: gerra kontuak, baserriko bizitza, haurren garaiko jolasak, kontrabandoa, inauteriak, jankera, gaztainen bilketa, lixiba egitea, eskola, euskara, umeen jolasak eta abar. Gai horiek guztiak jorratzen dira artikulu honetan eta, hasteko, ikuspegi etnografiko zehatza ematen digute, beti aberasgarria eta osagarria, orain erabat aldatu dena, aztertutako alor guztiak galduak baitira orain.

Gartzaronen aztertu dugu ardiei jartzen zitzaien marka identifikatuak izateko, orain galdu den ohitura eta etxe bakoitzaren boterea adierazten zuena. Iturenen «piperropilak», alegia, etxean egindako pasta goxoak, egiteko ohitura aztertu dugu; neska gazteek mutilendako egiten zutena eta banatzen zitzaiena inauterietan. Herri berean aztergai izan da joareak soinatzeko ohitura. Errege bezperan joareak jotzea etxeko atarrietan izan da Pirineoko herri anitzetako ohitura; eta orain zenbait herritan berpiztu nahi dena.

Leitzan lixibaren lana aztertu dugu. Urratsez urrats lixiba nola egiten zen; aspaldian galdutako lanbidea eta horrez gain, txerri hiltzea nola egiten zuten. Lesaka-Oiartzungo testuan aztergai izan da presoek egindako mendiko errepidea; errepublikanoek lan neketsuekin burutu zutena eta Oiartzun eta Lesaka lotzen zuena. Herri bereko beste testuan kontrabandoa aztertu dugu, mugako herrietan egiten zena gerra ondoko gabeziari aurre egiteko.

Bertzaldetik, Lintzoainen hiru lanbide izan dira aztergai: eultziko lana, ikaztogiak eta kuxetaegileak. Hirurak desagerturik daude eta garrantzi handikoak izan dira Pirinioko herrietan. Azkeneko biek berezitasun batzuk dituzte Erroibarren, izan ere Erroibarko Zilbeti herrian bada joan-etorri bat Iruñera, izen berezia duena, ikatzako zakuak eramatea Iruñera. Bertzaldetik, Lintzoainen eta Mezkitzen kutxetaegileen lanbidea iraun du beranduen. Azkenik, herri hauetako biztanleen hustuketaz aritu da gure berriemailea, hain zuzen ere maiorazkoarekin edo premutasunarekin harremana duena. Etxeko bizimoduarekin du zerikusia ere Lizarragako testuak, non neskameen lana ikusten den, herriko emakume gazteendako beti aukera bat izan dena; orain ere desagerturiko bizimodua.

Oskotzen, gaztainen garrantziaz aritu gara, elikaduraz; belaunaldietan zehar gaztainak izan dira oinarritzko elikadura familia handiendako eta horrela ikusten da herri honetako berriemaileak dioenez. Baserriko bizitzaz eta artoaren garrantziaz aritu gara Zugarramurdiko testuan. Horrez gain, baserriko lan amaigabeaz aritu gara, eginbeharrak handiak eta desberdinak izaten baitira. Azkenik, janzkeraren atal bati heldu diogu, hain zuzen ere kautxuak eta ezpartinak erabiltzeari. Bi oinetako mota hauek erabili izan dira egunero: lurra bustirik zegoenean, bata eta idor zegoenean, bertzea. Bukatzeko, momoxarroen tradizioa aipagarria izan da herri honetan; hain zuzen ere, mozorroen jantzien, eta maskaren sortzen zuten beldur izugarria. Horrez gain, maskarak aprobeztatzen ziren neskei hurbiltzeko eta ipurdia ikutzeko; horixe da inauterien beste alde bat.

Bertzaldetik, guk hizkeren ezaugarri linguistikoak izan ditugu ikergai. Lehenik eta behin, nafarreraren ezaugarri eskusiboak (Camino, 2009, 348. orr.): 1) Instrumentaleko atzizkia -s apikaria da: *gogos*, *oines*; 2) Nor-i dagokion *y*- morfema baliatzen da bigarren pertsona singularrean: *yaiz* 'haiz', *yuen* 'huen', *yago* 'hago'; 3) *-zki >-iti* morfema pluralaren aldaketa analogikoa gertatu da Nor-nori-nork aditz sailean: *ditiot* 'dizkiot'; 4) *joan* aditzaren era trinkoan *noaie*, *goaie*, *doaie* aldaerak ditugu; 5) mailegutan *-on* atzizkia dugu: *kamion*, *fronton*, *karton*. Ezaugarri hauek agertzen dira gure testuotan.

Honez gain, aztertu dugu Caminok (2009, 349. orr.) zehaztu duen 25 ezaugarri bateratzaile ez eskusiboen sorta, eta egiaztatu ahal izan dugu hauek ia guztiak agertzen direla aztertuturiko testu hauetan. Hala bada, hurrengo lerrootan saiatuko gara testu hauetan agertzen diren nafarreraren ezaugarri komunak zehazten. Parentesi artean

jarriko dugu zein herritan betetzen diren. Kontuan har bedi testu hauek zati motzak direla, eta horregatik batzuetan nahiz eta ziur jakin ezaugarri bat herriko hizkeran bizirik dagoela, ez da testuan agertzen, hartarako egokierarik ez delako sortu, adibidez. Erraterako, *-en* etorkizuneko erran gabe doa Baztanen erabiltzen dela, baina bertako hizkerari dagokion pasartean ez da agertzen; halaber, badakigu *goa-* berezkoa dela Lintzoainen ere, baina ez dago horren alerik testuan.

- Fonetika-fonologia: Aferesiak eta sinkopak (Urdiain salbu, gainerako herri guztietan). Hau da sistematikoen errepikatzen den ezaugarria, honenbertzez. Bokaletan *u* bokala *i*-ra palatalizatzeke joera (Lintzoain). /*wa*-ren aitzinean *g*- garatu izana: *guaye* ‘hoae = hoa’, *guartu* ‘ohartu’ (Gartzaron, Urdiain). *rtz* kontsonante taldea: *bertze*, *bortz* (Oskotz, Baztan, Lesaka, Lintzoain, Urdazubi).

- Izenaren morfologia: genitibo singularreko *-aren* > *-ain* laburdura (Urdazubi, Lintzoain). Izenordainetan *nior* sailekoak erabiltzea (Lintzoain, Urdazubi). Destinatioan eta prolatioan *-tako* (Oskotz, Lintzoain). Bizidunen inesioan *-ren baitan* egitura. Hurbiltze adlatioan erakusletan bederen *-rat* morfema (Lesaka, Urdazubi). Modua adierazteko *-ki* eta *-(r)ik* atzizkiak (Lesaka, Oskotz, Urdiain).

-Aditzaren morfologia: etorkizuneko morfema *-en* izatea *-n-z* bukatzen diren aditzetan (Lintzoain, Urdazubi). Hanpadura adierazteko *-ki* aditz atzizkia erabiltzea (Lesaka). **Edun*-en orainaldian *u*-dun aldaerak erabiltzea (herri guztietan). Erlatibo eta konpletibo atzizkia lotzean *den*, *dela* erakoak, eta *izan*-en aditz sailean *-en* bukaera (herri guztietan). Iraganeko Nor-nork aditz sailean nork pluralean *i* agertzea: *ginduen* (Lintzoain, Leitza). Aditz sintetikoan iraganeko *a*: *nakien*, *zabilen* (Lizarraga, Oskotz, Lesaka). Ahaleraren orainaldian *-tzen ahal* egitura nagusitzea (Lintzoain). Adiera puntuarrikako *heldu izan* (Lesaka, Lintzoain).

-Sintaxia: *bait-* kausazko perpausetan (Urdazubi, Lesaka). *-larik* denborazko perpausetan (Lintzoain, Lesaka, Baztan, Gartzaron). *-ela* ezezko konpletiboaren menpeko perpausetan. Adlatioa *utzi* eta *eman* aditzen menpeko perpausetan: *etziguten utzitzen yoatia* ‘ez ziguten uzten joatera’ (Ituren).

Errandakoaz gain, euskara nafarraren bereizgarri batzuk ditugu lexikoan: *guti*, *erran*, *anitz* (Lesaka, Lintzoain), *guai* (Lizarraga) *goiti* (Urdiain). Eta, hasieran genionena lerro hauetara berriro ekarriz, argi erran behar dugu euskaldun zahar hauen euskara eta herri bereko gaurko gazteagoena ez direla bat; estandarizazioak bere eragina izan du eta honenbertzez, adinaren araberrako alderaketa hori egiteko litzateke. Baina, hori, ez da gure eginkizuna.

Hauek guztiek gure dialektoek espazioan barrena sortzen duten ikuspegi nabar eta aberatsa osatzen dute, ezaugarri komunak erakutsiz, alde batetik, eta bertzetik, nafarreraren barruko aldaerak badirela erakutsiz. Testuak orain arte Caminok (2009, 348. orr.) eta Zuazok (2014, 108. orr.) emandako sailkapen irizpideekin alderatu ditugu atalez atal eta, ahal den neurrian, ondorioztatu dugu ezaugarriak betetzen diren, eta sistematikoak diren ala ez, eta trantsizio hizkerak badiren ala ez.

Bukatzeko, Zuazoren (2014, 108. orr.) proposatutako sailkapenarekin lotura laburbilduz (*cfr.* 1. sarrera), hauxe da ondorioa. Kontuan har testuak mugatuak direla eta

proposatzen diren ezaugarriak 11 bertzerik ez direla. Honen arabera, Lesaka-Oiartzungo testuak ez du betetzen ezta ezaugarri bat, koherentea da erdialdeko hizkeratik hurbilago dago, nahiz salbuespenak dituen. Ondoren, Urdazubi eta Urdiain dira ezaugarri gutien betetzen duten testuak, ezaugarri bakarra betetzen baitute; nolabaiteko trantsizioa erakutsiz. Hierarkia honetan Leitzako eta Lizarragako testuak datoz ondoren, bi ezaugarriekin; lotura lausoagoa islatzen dute. 3 ezaugarriekin ditugu Lesaka, Ituren, Oskotz eta Gartzaron herrietako testuek; lotura izan badute nafarrerarekin. Azkenik, testu nafartarrena Lintzoingoa dugu, 4 ezaugarriekin.

12. ERREFERENTZIAK

- Apalauza, A. (2008a). Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu, *FLV*, 107, 63-104.
- Apalauza, A. (2008b). *Imozko euskara*. Nafarroako Gobernua.
- Apalauza, A. (2012). *Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren egitura geolinguistikoa*. Iruña-Bilbo: Nafarroako Gobernua-Euskaltzaindia.
- Apalauza, A. & Lakar, M. (2005). *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduman*. Nafarroako Gobernua, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia.
- Artola, K. (1992). Hegoaldeko goinafarreraren azentua dela-ta (Hurbiltze saiakera). *FLV*, 60, 187-227.
- Artola, K. (2016). Erroibarko aldaeraren inguruan. (2. Hego Erroibarko azpialdaera. Lehen erdia). *FLV*, 121, 5-66.
- Artola, K. (2017). Erroibarko aldaeraren inguruan (5-Esteribarko erdialdeko azpialdaera. Lehen erdia). *FLV*, 124, 299-354.
- Ariznabarreta, A. (1991). La marca ganadera y su utilización como signo de vinculación entre la casa y su sepultura (El Pueyo de Jaca. Valle de Tena). *Kobie (Serie Antropología Cultural)*, 5, 140-147.
- Arrarás, F. (1983). *Danzas e indumentaria de Navarra. Merindad de Sangüesa*. Pamplona: Diputación Foral de Navarra.
- Balda X., Ulibarrena, O., Yarnoz D. & Yarnoz, S. (1981). Kuxetalari bati egindako inkesta. *CEEN*, 37, 123-132.
- Beguiristáin, M. A. (1996). La mujer navarra. In *Etnografía de Navarra*, 2. *Ocio, ritos y creencias* (443-448. orr.). Pamplona: Diario de Navarra.
- Beguiristáin, M. A. & Iturri, A. (1996). Ritual de infancia. In *Etnografía de Navarra* 2. *Ocio, ritos y creencias*. (354-368. orr.). Pamplona: Diario de Navarra.
- Camino, I. (1997a). *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Nafarroako Gobernua.
- Camino, I. (arg.). (1997b). *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*. Bilbo: UEU.
- Camino, I. (2000). Abiaburu bat Donostiako euskara aztertzeke. In K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak* (53-85. orr.). Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, Kultura Saila.
- Camino, I. (2003). *Hego-nafarrera*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Camino, I. (2004). Nafarroa Behereko euskara. *FLV*, 97, 445-486.

- Camino, I. (2009). *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Donostia: Elkar.
- Dueñas, X. (2001). El solsticio de invierno y sus celebraciones festivas. Fundamentos estructurados alrededor del carnaval. *Euskonews & Media*, 111.
- E. A. (1959). El caserío vasco. Labores de la familia labradora. *Munibe*, 11(3), 120-130. Hemendik hartua: www.aranzadi.eus/fileadmin/docs/Munibe/1959120130.pdf
- Echegut, M. O. (1991). Le carnaval à Ituren et à Zubieta (Navarre) du début du siècle au lendemain de la guerre civile. *CEEN*, 58, 137-186.
- Epelde, I. (2003). *Larresoroko euskara* (argitaragabeko tesia).
- Erdozia, J. L. (2004). *Sakanako hiztegi dialektologikoa*. Bilbo: Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia.
- Etxegoien, J. (2013). Carbón vegetal. El carbonero. *Valle de Arce-Artzibar*. Hemendik hartua: <http://www.valledearce.com/cultura/carbon-vegetal-el-carbonero/>, 1-6.
- Euskaltzaindia. (1985). *Euskal gramatika. Lehen urratsak*. Iruña.
- Euskaltzaindia. (1992). *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra, Agiriak*. 1991. X. 21/25. Bilbo. (Iker, 7).
- Fraile, I. & Fraile, A. (1996). *Oiartzungo hizkera*. Oiartzun: Oiartzungo Udala.
- Guerrero, A. & López, A. (2011). El traje regional. Traje de los joaldunak (Ituren). Hemendik hartua: <https://docplayer.es/22825447-Marzo-traje-de-los-joaldunak-ituren-navarra-del-por-ana-guerrero-y-americo-lopez-sala-el-traje-regional.html>
- Haddican, W. (2005). Standardization, functional shift and language change in Basque. *Estudios de sociolingüística: Linguas, sociedades e culturas*, 6(1), 87-112.
- Haddican, W. (2006). On Egin: Do-support and Verb Focalization in Central and Western Basque. *University of Pennsylvania Working Papers in Linguistics: Vol. 12: Iss. 1, Article 10*. Hemendik hartua: <https://repository.upenn.edu/pwpl/vol12/iss1/10>
- Ibarra, O. (1992). Ultzamako euskaraz idatziriko bi dotrinaren edizioa eta azterketa. *ASJU*, 26(3), 915-977.
- Ibarra, O. (1995). *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Ibarra, O. (1997). *Valle de Erro. Historia, lengua y costumbres*. Pamplona.
- Ibarra, O. (2000). *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*. Iruña: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Ibarra, O. (2006). *Erroibarko eta Esteribarko hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia; Iruña: Nafarroako Gobernua. (Mendaur, 4).
- Imbuluzqueta, G. (1996). El calzado tradicional. En *Etnografía de Navarra 2* (443-448. orr.). Pamplona: Diario de Navarra.
- Imbuluzqueta, G. (1991). Las encerradas del día de la víspera de Reyes. *CEEN*, 58, 265- 273.
- Iñigo, P. (2007). Bortzirietako hizkeraren zenbait berezitasun gaurko gazteen mintzairan. *Euskera*, 52(1) (2. aldia), 291-318.
- Iparraguirre, X. (2004, azaroaren 28a). Gaueko lana. *Argia*, 1968. Hemendik hartua: <https://www.argia.eus/argia-astekaria/1968/gaueko-lana>

- Izeta, M. (1996). *Baztango hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Iztueta, J. I. (1975). *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia* (facsimil). Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca. (1847. Donostia: J. R. Baroja).
- Jiménez de Aberasturi, J. C. (2006). De Bruselas a Londres pasando por Oiartzun y Rentería: el itinerario de la red. *Comète. Euskonews & Media gaiak*. Hemendik hartua: <http://www.euskonews.com/0358zkb/gaia35801es.html>
- Lujanbio, O. (2012). Hizkuntza-aldakortasuna Goizuetako euskaran. *Uztaro*, 80, 77-97.
- Makazaga, J. (2009). *Elgoibarko euskara*. Elgoibar: Elgoibarko Udala, Elgoibarko Izaarra Kultur Elkartea eta Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkartea.
- Merino J. M. (1994). *El caserío vasco. Labores de la familia labradora*. En Munibe, Antropologia-Arkeologia. Suplemento Publicaciones, Aranzadi Elkartea, 120-130. Hemendik hartua: www.aranzadi.eus/fileadmin/docs/Munibe/1959120130.pdf
- Milroy, L. (1980). *Language and social networks*. Oxford: Blackweel.
- Mitxelena, K., (1977 [1961]). *Fonética histórica vasca (FHV)*. San Sebastián.
- Montoya, E. (2004). *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*. Nafarroako Gobernua.
- Múgica, S. (1918). *Provincia de Guipúzcoa. Geografía general del País Vasco-Navarro*. Barcelona: Ed. Alberto Martín.
- OEH. (1987-2005). *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Olano, M. (1998). *Areso eta Leitzako hizkerak. Bertako hitz eta historian barrena*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, Aresoko eta Leitzako Udalak.
- Olano, M. (2000). Gipuzkoa ondoko bi hizkera nafar: Areso eta Leitzako paradoxa. In *Dialektologia gaiak* (123-150. orr.). Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Organero, A. (2015). *Batallón de pico y pala: cautivos toledanos en Navarra (Lesaka, 1939-1942)*. Pamplona: Pamiela.
- Ormaetxea, J. L. (2008). Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa. *FLV*, 108, 249-262.
- Perales J. A. (2004). *Fronteras y contrabando en el Pirineo occidental*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- Reguero, U. (2017). *Goi-nafarrera arkaiko eta zaharra: azterketa eta testuak* (tesi argitaragabea). UPV/EHU. Hemendik hartua: <http://hdl.handle.net/10810/23535>
- Salaberri, P. (1996). Iruñea: toponimia eta hizkuntza. In *Iruña eta euskara* (21-44. orr.): Iruña: Iruñeko Udala.
- Salaburu P. (1986). Baztango euskalkiaz. Elizondoko doktrina bat, *ASJU*, 20(3), 817-844.
- Salaburu P. & Lakar, M. (2005). *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.
- Sánchez Carrión, T. (1974). Esan/Erran en el área lingüística alto-navarra, *FLV*, 17, 261-264.
- Saragueta. (2018). Kuxetagleak/Cuchareros (trailer). Hemendik hartua: <https://vimeo.com/254483922>
- Sasiain, B. (2010). *Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea*. Hemendik hartua: Ahotsak.eus: <https://ahotsak.eus/bermeo/pasarteak/brm-018-033/>

- Urabayen L. (2010). *Leoncio Urabayen y el Pirineo navarro. Sus trabajos: Aurizberri/Espinal, Jaurrieta, Orotz Betelu*. J. Etxegoien (arg.). Pamplona: Eusko Ikaskuntza, UPNA.
- Vázquez de Prada, M, (1996). Casamiento y familia. In *Etnografía de Navarra*, 2 (338-368). Pamplona: Diario de Navarra.
- Zelaieta, E. (2005). Bortzirietako Euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena, *Fontes Linguae Vasconum*, 96, 223-248, eta 99, 287-306.
- Zelaieta, E. (2008). *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Euskaltzaindia. (Mendaur, 7).
- Zuazo, K. (1997). Oiartzungo hizkeraren kokagunea. *FLV*, 76, 397-424.
- Zuazo, K. (1998). Euskalkiak, gaur. *FLV*, 30, 191-233.
- Zuazo, K. (argit). (2000). *Dialektologia gaiak*. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zuazo, K. (2003). *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. (2008). *Euskalkiak. Euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, K. (2010). *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia. (Mendaur, 8).
- Zuazo, K. (2014). *Euskalkiak*. Elkar.

Laburdurak:

GN: goi-nafarrera

BN: behe-nafarrera